

Euskal Literaturaren Historiografiari buruzko II. Jardunaldia

Donostian, 2013ko abenduaren 13an

Euskera. 2013, 58, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Aurkezpena

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Literatura Ikerketa Batzordeburua

Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak (LIB) antolatuta, iragan urteko abenduaren 13an *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldiak egin ziren Donostiako Aita Villasante Ikergunean. Jardunaldiak jorratu zuen gaia periodizazioa izan zen.

Euskal literaturaren antologia bat osatu nahian gabiltza batzordeko ki-deok. Berez, jada amaituta dago lehen liburukia: «Erdi Arotik Errenazimentura» izenburupean, denbora-tarte horretan ekoiztutako corpora abiapuntu, alderdiren batetik esanguratsuak jo diren idazlanetatik lagin zabal samarra jasotzen du. Ikuspunturen batetik adierazgarria izan zitekeen idazlan oro hartu da gogoan; izan ere, literatur genero tradizionalen barrutia gaindituz, bada balio historikoan oinarrituz aukeratutako testutatik bildutako zatirik ere.

Euskal literaturaren antologia osatu nahi bada, egitasmoa ez da bukatzen Errenazimentuan, noski. Edozein dela ere bizitzako eremua, une jakin batean indarrean daukana iraunkortasun mugatukoa du, denbora ez delako alferrik igarotzen. Hortik, ardatz diakronikoan kokatuz egindako azterketa guztien justifikazioa. Baita historian barrena mamitu diren idazlan literarioei buruz dihardutenena ere, jardun literarioaren jarraibideak aldatuz joan direlako denboran zehar.

Azterketa diakronikoak aroak, garaiak, aldiak, bereiztea eskatzen du. Aroak, garaiak, aldiak bereizteak, berriz, eragiketa gauzatzeko irizpideak. *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldien asmoa testuin-

Euskera. 2013, 58, 2. 487-488. Bilbo
ISSN 0210-1564

guru horretan sortzen da. Horrenbestez, jardunaldiak antologiak euskarri izan zitzakeen periodizazio-irizpideak argitzea, zehaztea, zuen xede. LIBk esku artean duen egitasmoa, hain justu euskal literaturaren antologia, egituratzen laguntzea zuen jomuga jardunaldiak.

Gauza jakina da euskal literaturaren ibilbidean, gutxienez XIX. mende arte, testu profanoaren urritasuna nabarmena izan dela. Urritasun horrek, eta ez bestek, desberdintzen du inguratzen duten hizkuntza ofizialetan idatzitako literatura handietatik, gainerakoan, euskal testuak ez baitira isolamenduaren produktu. Dena den, zehatz-mehatz literarioak izan daitezkeen beharrak asetzeraz bideratutako idazlanei beste premia batzuei erantzuteko idatzitakoak modu ohargarrian nagusitzeak ez du errazten periodizazio-lana.

Horregatik, zein idazlanetatik jaso laginak erabakitzeak edo aldiak zedarritzeko erabili beharreko irizpideak finkatzeak badu zailtasun erantsirik. *Euskal Literaturaren Historiografiari* buruzko II. Jardunaldiotan parte hartu zuten hizlariak eskatu zitzaizkien euskal literaturaren ibilbidearen periodizazioak sorrarazten dituen arazoen gainean hausnartzea, eta arazo hauei aurre egiteko proposamenak mahairatzea. Hizlarion txostenak jardunaldian aurkeztu aurretik eskuratu zitzaizkien parte hartzeraz gonbidatu ziren kideei, eztabaida, iritzi-trukaketa, bateratze-lana... eraginkorragoa izan zedin.

Euskera agerkariaren zenbaki honek prestatu ziren txostenak baino ez ditu argitaratzen, txosten bakoitzak piztutako jarduna eranstea bertan beharra utziz. Baina, eskerrak ematerakoan behintzat, txostengileei luzatutako eskerra zabal bedi jardunaldiko hitzaldi bakoitza osatzen, aberasten, zenbait alderdi auzitan jartzen eta abarretan lagundu zuten gonbidatuengana: mila esker.

Aldiak mugatuz euskal literaturan: eredu bila

Fijando los periodos en la literatura vasca: en busca del
modelo

Détermination des périodes dans le littérature basque:
à la recherche de modèle

Establishing periods in Basque literature: the search for
a model

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Deustuko Unibertsitatea. Euskaltzaindia

Noiz jaso: 2014-02-17
Noiz onartua: 2014-04-28

Euskera. 2013, 58, 2. 489-514. Bilbo
ISSN 0210-1564

Literaturaren historiak aldietan antolatzeko irizpide desberdinak erabili dira: dela kronologikoa, dela sozio-politikoa, dela generoen nahiz belaunaldien arabera... Euskal literaturarako irizpide sozio-politikoa baztertzea hobesten da euskaldungoak inoiz ez dituelako gertaera sozio-politiko berdinak bizi izan eta irizpide literarioetan oinarritzearen alde egiten da, garai batean indarrean dagoen arau literarioen sisteman berritasunen bat ekartzea bihurtuz mugarrak finkatzeko euskarri. Dena den, azken finean, euskal literaturaren historia periodizatzerako bi aukera nagusi daude: edo inguratzen duten hizkuntza ofizialetan egindako literaturetara jo erreferentzia bila edo eremu urriko hizkuntzetan garatutakora.

Hitz-gakoak: Aldia, mendea, generoa, arau literarioa, berritasuna, botere politikoa, hizkuntza ofiziala, eremu urriko hizkuntza.

La historia literaria no solamente debe seleccionar los textos que la conformarán, debe establecer también un criterio de periodización. Habitualmente recurren a razones cronológicas, socio-políticas, generacionales, género del texto... En relación a la historia de la literatura en lengua vasca este artículo propone descartar el criterio socio-político, porque la comunidad vascohablante nunca ha vivido acontecimientos socio-políticos compartidos y optar por criterios literarios, adoptando la renovación del sistema de normas literarias como fundamento para determinar los períodos. En cualquier caso, el historiador de la literatura en lengua vasca ha de buscar su modelo en el ámbito de las literaturas desarrolladas en las lenguas oficiales de la Europa Occidental o en las desarrolladas en las lenguas minorizadas.

Palabras clave: Período, siglo, género, sistema de normas literarias, novedad, poder político, lengua oficial, lengua minorizada.

L'histoire littéraire ne doit pas uniquement sélectionner les textes qui la constitueront mais elle doit aussi établir un critère de périodisation. Habituellement on recourt à des arguments chronologiques, socio-politiques, générationnels, au genre du texte... En ce qui concerne l'histoire de la littérature en langue basque, cet article propose d'écarter le critère socio-politique, car la communauté bascophone n'a jamais vécu d'événements socio-politiques communs, et d'opter pour des critères littéraires en adoptant le renouvellement du système de normes littéraires comme base pour déterminer les périodes. Quoi qu'il en soit, l'historien de la littérature en langue basque doit chercher son modèle dans le domaine des littératures des langues officielles d'Europe Occidentale ou dans celles des langues minoritaires.

Mots-clés: Période, siècle, genre, système de normes littéraires, nouveauté, pouvoir politique, langue officielle, langue minoritaire.

Various criteria have been used to establish literary periods: chronological, sociopolitical, text-genre or generational... In the case of Basque language literature, the sociopolitical approach is ruled out, as Basque speakers have not shared the same sociopolitical events, and literary criteria have been preferred, taking contributions which renew the system of literary norms as the basis for determining periods. In the final analysis there are two options available for establishing the periods of Basque literature: by referring either to literatures in surrounding official languages or to those in minoritized languages.

Keywords: Period, century, genre, system of literary norms, novelty, political power, official language, minoritized language.

Literaturaren historia jasotzen duten liburuak aldi edo mugimendutan zatituta agertzen dira. Historia horretara eramateko datuak hautatzen dira eta datuon antolaketan datza periodizatzea. Datu horiek ordenatzeko, historia egituratzeko, elkartzeko saioa, ahalegina, da, periodizatzea. Aldia ezin atzeman daiteke isolaturik: aldien sail edo segida baten barnean bakarrik da aldi, eta elkarrekin gatzatzen eta osatzen dute literaturaren garapena.

Edozein literatura nazionalen epekatze-ariketa zaila suertatzen bada, berez, XX. mendera arte literatura «normalizatu» bat mamitzera iritsi ez den literatura baten ibilbidea aldien segida bat jarraituz atontzea ez da errazagoa. «Normal» adjektiboa literatura handietan garatutakoari eranstean bazeaio, hiztun komunitate zabala euskarri duten hizkuntza ofizialetan jartzen da eredua. Literatura handien jardunbidearen azterketan oinarritzen dira aldiak zehazteko erabili izan ohi diren kategoriak eta hizkuntza ofizialetan burututako literaturak bereganatutako babesaren jabe izatera ez dira heldu historikoki ofizialtasunik eskuratu ez duten hizkuntzetan landutakoak. Normaltasunaren eredutzat hartzen bada euskal literatura inguratzen duten hizkuntza handietan (gaztelera, frantsesa) moldatutako literatura, zalantzarik gabe, berezitasun batzuk aurkezten ditu euskaldunak. Berezitasun horiek ez dira murrizten kopuru-mailara. Uste izatekoa da hiztun-kopuruak zerikusia izango duela ekoizpenarekin eta, horrenbestez, proportzioa gogoan eduki beharreko irizpidea izango dela: eremu urriko hizkuntza batean ondutako literatura ezin izan eremu urrikoa ez den hizkuntza batean jorratutakoa bezain ugaria. Baina, euskal literaturaren berezitasunak ezin azal daitezke proportzioen alor soilera lotuz, testu-tipo batzuetan proportzioak gorde zitezakeen arren, (oro har, eliz liburuan), literatur genero tradizionalen barrutiko emaitzak historikoki oso urriak izan direlako: kontakizunaren kasuan, hiru mende luzetan testigantza bakar bat ere ez.

Ez proportzioen alorrera, ezta maiztasun batekin aipatu den berankortasunarenera joaz ere, argi daitezke berezitasun guztiak; zeren eta berankortasunarekin batera eguneratzeko egindako ahalegina ere azpimarratzeko modukoa baita. Ez ote, bada, eguneratzeko ahalegina Errenazimentu bete-betean Etxeparek herri-hizkuntza idazketaren iragazkitik iragazi eta hizkuntza horren goraipamen sutsua egin izana? Ez ote, bada, eguneratzeko ahalegina, beste zenbait berrikuntzekin batera, Oihenartek maitasunezko

neurtitzetan dakarren banakoa den «ni» liriko baten eraketa? Ez ote, bada, eguneratzeko ahalegina XVI. mendean bertan hasita errefrau-biltzaileek betetako eginkizuna?

Gauza jakina da aspaldidanik euskara ez dela izan Euskal Herrian hitz egin den hizkuntza bakarra. Halaber, nabarmena da, literatur genero tradizionalek, genero epiko, liriko eta dramatikoak, leku txikia bete dutela euskal letren barrutian. Euskaldun ikasiek beren behar intelektual eta literarioak asetzeko bitarteko legez, beste hizkuntza bat hobetsi, eta euskara baztertu izanean legoke kausa, ziurrenik. Euskal Herriko gizarte-geruza ikasiak idazlan profanoa euskaraz paratzeko eta gozatzeko zaletasun handiegirik erakutsi ez izanean, hain zuzen ere. Ondorioz, euskal literatura inguratzen duten literatura handiekin erkatzeak bereziki bistaratzen duena zera da, hauetan ere historikoki (gutxienez XVIII. mendearen bigarren erdira arte) nagusiki eliz liburua ekoitzi izanagatik, honen ondoan idazlan profanoak tarte zabalagoa eduki zuela.

Egia da dokumentu literarioak galdu direla edo baten bat berrikitan aurkitu dela. Duela hamarkada eskas bat arte Lazarragaren euskarazko eskuizkribua ezezaguna zen; 1967an lehenbiziko aldiz argitaratu zen Oihenarten (1592-1667) *Arte Poetikoak* (1665) utzi du berririk: egileak esku artean izana aitortzen duen poesi eskuizkribuak galduak dira; poeta ere ba omen zen Zalgizeren idazlan poetikoaren arrastorik ez da gelditu... Beraz, bada albis-terik jakinarazten duenik Lazarragak, Etxeparek edo Oihenartek egungo dokumentazioak adierazten duena baino lagun gehiago izan zituztela euskararen erabilera literarioan. Alegia, euskaldun ikasiak egun dokumentatua dagoena baino gehiago landu eta gozatu zuela euskaraz literatura, nahiz eta historiaren uneraren batean, transmisioa eten izanak gure ezagueraraino garraiatzea galarazi duen.

Euskal produkzio literario idatzia bizirik iraun duena baino ugariagoa izan arren, zoritxarrez, gorde den dokumentazioa bakarrik da benetakoa. Dokumentazio horren arabera, Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzak hiru mende luzetan aurreratzen badu ere euskal kontakizunaren jaiotza, ordutik XIX. mendearen azken herenera arte itxaron beharko da genero horrek jarraipena izan dezan. Zalantzarik gabe, XVI. mendean bertan

euskal kontakizunaren sorrera kokatzea ez da huskeria, aditzera ematen duelako euskal literaturan berau inguratzen duten literaturetan bezalatsu hasi zirela gauzak, baina, dirudienez, haiek bezalatsu garatuz joatea ez zuen lortu: hiru mendetarako desagertuko da idazketaz baliatzen den kontakizuna.

Eta, zer esan antzertiaz, Hegoaldean XVIII. mendera arte dokumentatzen ez denean?

«Hutsune» hauek, transmititzera heldu denaren urritasunak, bihurtzen dute berezi euskal literatura inguratzen duten bi literatura handien aurrean: gaztelerarena eta frantsesarena. Horrela, hauek literatur genero tradizionalai eskainitako arreta normaltzat jotzen den neurrian, euskarazkoak XX. mendera arte normaltasunik ez duela eskuratu ondorioztatu behar.

Haatik, agerikoa da euskalduna ez dela bizi izan isolaturik Europako mendebaldean. Euskarara iritsi eta euskaraz ere adierazi dira aldian aldiko pentsamendu eta korronteetatik ernetako idazlanak. Egiatzapen honen aitzinean, norbaitek proposa dezake euskal literatura idatziaren historia egitea baztertzea eta euskal letren historiarengatik ordezkatzeta. Hala, garai historiko desberdinetako letrik azaleratutako pentsamendua jasoko luke historia horrek. Garai edo aro historiko bakoitzaren pentsamendutik sorrarazitako testuei egingo lieke leku. Euskal literatura idatziaren historia, ostera, literatur genero tradizionaletakako eremu hutsera bilduko litzateke.

Historia egitea jomuga duenak ezinbesteko du datuak hautatzea. Nire ustez, iragan denboretako historia ezin osa daiteke letra profanoen esparru soiletik, batik bat, esparru horretakoak ez diren testuren batzuek berebiziko garrantzia izan dutelako euskara idatziaren eraketan eta historian. Murrizketa gogorregia litzateke asmo estetikoak nagusi duten idazlanetara mugatzea, besteak beste, inguruko literaturetako historiek ere bereganatzen dituztelako literatur genero tradizionaletatik kanpo geratzen diren testu-tipoak: dela aszetika, dela mistika... Gainera, egon zitekeen helburu didaktikoa asmo estetikoaren aurretik zuen idazlanik, gerora, xede estetikoaz eginiko idazlanen batean eragin zezakeenik. Juan Mari Irigoienek idazlanen batek, kasu, badu harremanik Axularren *Gerorekin* (1643), hizkera-mailan behintzat.

Ez hori bakarrik. Gogora ekar daiteke sailkapen hirukoitza berraztertze-ko saiorik ere egin dela. Zatiketa hirukoitzaren derrigortasuna auzitan jarritz, badira eskema zabalago baten alde azaldu direnak, nahiz eta, oraingoz, heldutasun eta zehaztasun gehiegirik lortu ez «laugarren generoa» deitua zedarritzean. Izendapen desberdinak erabiliz, bai «literatura meditatiboa», bai «literatura aplikatua», bai «didaktika», banaketa hirukoitzak barneratzen ez zituen hainbat testu-motaren aterpe bihurtu da.¹

Historikoki hizkuntza ofizialaren estatusa erdietsi duen hizkuntza ez dago estatus horren jabetzarik gabe laga denaren parean. Jakina, literaturaren garapena baldintza dezaketen beste alderdi batzuk ere egon daitezke hizkuntzen artean, hala nola hiztun-kopurua. Betiere, babes sendoagoa izango du hiztun-kopuru ugari-ko hizkuntzan sortzen duen idazleak. Halere, botere politikoak bultzatzea ala mespretxatzea, oraindik erabakigarriago da. Euskaratuko ote zen Testamentu Berria baldin eta kalbinismora bihurtutako erregina bat egon ez balitz? Albreteko Joanaren agindupean bizi zen euskaldungoa, nahiz orduko euskaldungo osoa bera ere ez zen jendetsua izango, baina, zeinahi botereren menpe bizi zena nagusiki elebakarra izateak, eta jakina, horien artean zeuden erreginare-
ren agindupekoak, berekin ekarri zuen Erreginare-
ren egitarau erlijiosoan euskara sartzea. Tamalez, fede kalbinista hedatzeko bitarteko moduan bakarrik hartu zuen aintzakotzat euskara.

Zantzuek adierazten dutenaren arabera, premiak soil-soilik eraman zuen euskaragatik arduratzera. Alegia, Albreteko Joanak euskararen alde eging-
dakoak bere egitarau erlijiosorako atxikimendu zabalagoa eskuratzea zuela jomuga eta ez besterik. Datua da euskara hizkuntza ofizialaren estatus gabe utzi zuela, bere erresumako beste hizkuntza komunitate batena zen bearne-
sa ez bezala. Albrete-
tarren Gortean, seguru asko, euskara ez zen zeharo ezezaguna. Angulema-
ko Margaritak, Joana Erreginare-
ren amak, babestu zituen intelektual eta idazle-
etako batek, Rabelais-ek, hain justu, Nafarroako Gortean igarotako egonaldi baten ondoren, bere *Pantagruelen* (1532) euskarazko zenbait hitz jasotzeak, euskararen oihartzunak Gortearaino iritsiak zirela pentsatzeko bidea irekitzen du, edo, agian, baita gehiagorako ere:

¹ Hernadi, P., 1978, *Teoría de los géneros literarios*, Barcelona: Antoni Bosch editor, 26-29.

bazirela euskaraz zekitenak. Haatik, Frantzisko I.a Frantziako erregeren arreba Angulemako Margaritaren laguntzatik ez zen erne euskaraz idatzita-ko testu bakar bat ere eta norbaiten idazte egintza sustatu bazuen, ez da bakarrik galdua dela, baizik eta berririk ere ez dela geratu, galdutako beste testu batzuei buruzko albisteren bat ailegatu zaigunean.

1. Aldiak zehazteko irizpideak

Kausak kausa, egun ezagutzen den uztak osatzen du euskal literatura eta uza hori da alditan antolatu behar dena. Literaturaren historiak maiztasun handiarekin literaturatik at aurkitu dutela aldia mugatzeko irizpidea gauza ezaguna da. Hala, besteak beste, irizpide kronologikoaz baliatu dira. Ez dira gutxi «mendea» kontzeptura jo, eta, unitate horren arabera, gertaera literarioak sailkatu dituzten historiak. Ez dago zertan esan: mendea bezalako zenbaki-kontzeptu bat erabiltzeak ez du inolako balio kritikorik. Izan ere, literaturgintzan eman daitezkeen aldaketek ez daukate mende-aldaketekin batera etorri beharrik. Berez, mendeka edo hamarkadaka edo urteka... literaturaren historia bat egituratzeak periodizatzeari uko egitea dakar, nahiz eta abantailarik izan dezakeen literaturaz kanpoko irizpide bat hautatzeak. Bistakoa da, mendeka, hamarkadaka edo urteka taxututako literaturaren historia batean, komenigarri den etiketa bat baino ez dela aldia, literaturaren historia ataletan banatzeko premiak sorrarazitako etiketa, hain zuzen ere. Materiala ordenatzeko modu bat da, zalantzarik gabe, baina, hortik zatiketa-modu horrek propioki historia literarioa denarekin zerikusia duela uste izatera alde handia dago.

Literaturatik landa gelditzen den periodizatzea da, halaber, irizpide politikoetan oinarritzen dena. Historian gertatutako jazoerarik garrantzizkoenak zatiketa-ardatz eraikiz, jazoera horien arabera sailkatzen du. Mendeka edo hamarkadaka moldatutako banaketa bezala, literaturaren barrutitik at du periodizatze heldulekua. Esaterako, «Erreforma» Elizaren historiatik dator; «Humanismoa», bereziki, jakinduria eruditutik... Literatura ez da gizateriaren garapen politiko, sozial edo intelektualaren isla edo kopia hutsa, horiekin eta gainerako giza jarduera guztiekin harremanetan egon arren.

Gertaerok eragin sakona dute literaturan, baita honek ere, giza jarduera horietan. Horregatik, hain justu, ganorazko gogoetarik eskatzen du, eztabai-daezinak baitira hizkuntza, literatura eta botere politikoaren arteko loturak. Jadanik adierazi denez, euskal literatura botere politikoak ofizialtasunik eman gabeko hizkuntza batean mamitutako literatura da. Besterik ere erants daiteke: inoiz ez da euskaraz mintzo zen eta den komunitate osoa barneratu duen botere politiko bakarrik eratu.

Euskaraz mintzo zen komunitate osoa hartuko zukeen botere politiko bakar baten gabeziak, irizpide politikoak jarraituz aldiak zedarritzeara eragozten du. Jazoera politikoek eragina dutela literaturan ukaezina da. Urrutiago joan gabe, ikusi besterik ez dago 1936ko gerraren ostean Hego Euskal Herrian datorren isilaldia. Hala eta guztiz, onargarri da aldi berean egoera politiko desberdinen menpe bere ibilbidea egin duen eta egiten ari den hiztun-komunitate baten literatura aldietan banatzeko? Esaterako, zenbateraino izan daitezke euskal literaturan mugarri lehen gerrate karlistaren edo bigarren gerrate karlistaren amaiera, hainbat euskaldunek gerra horiek bizi izan ez dituztenean?

Euskal literaturaren historiografian arrunt samarra da bigarren gerrate karlistaren bukaeran berpizkunde aldi baten hastapena kokatzea. Hona zergatia: gerratearen amaieran ezarritako foru-galerak euskal letren berpizkunde bat ekarriko zukeen berekin.

Zinez, eremu labainkorra da kausena, gertaerak egiazta eta neur daitezkeen ziurtasunarekin ezin ziurta daitezkeelako gertaera horiek eragin dituzten kausak. Arestian aipatutako adibidearekin jarraituz, 1876az gero, euskal gertaera literarioa indartu zela baieztatu daiteke: bertsoa ugaltzen da, antzerki berria deituaren hasiera urtealdi horietan lekutzen da, kontakizuna, XVI. mendean dokumentatu den artzain-eleberriaren osteko isilaldia etenaz berriro abian ipintzen dute... Kausa, ordea, bigarren gerrate karlistaren amaierak foruak indargabetu izanak bultzatutako sentimenduetara mugatzen ote da? Berpizkunde horrek ez ote du beste eragilerik? Dela denborak aurrera egin ahala gero eta haur gehiagorengana heltzea eskolatzeko modua izatea, dela Erromantizismoak hizkuntza gutxietsiak balioztatzea eta hizkuntza gutxietsien alde egindako aldarrikapena, dela giro horretan XIX. mendean

zehir euskararengatik interesa erakusten duten hainbat euskalariren lanarekin batera hizkuntza prestigioa berreskuratzen joatea... Aipatutako alderdiek, nola aipa gabe gera zite(z)keen bat(zu) ere, ez ote zuten lagundu berpizkunde hori ahalbidetzen? Gerra karlista horiek beroriek ez ote zuten zerikusirik izan XVIII. mendearen bigarren erdiaz gero iragartzen doan izpiritu erromantikoarekin? Eta zergatik jarriko litzateke mugarrria 1876an, eta ez, adibidez, Antoine d'Abbadiek Lore-Jokoei sorrera eman zienean?

Euskaldun batzuk gerra batzuk bizi izan dituzte eta, besteak, beste batzuk. Euskaldunak zirkunstantzia historiko eta politiko desberdinetan bizi izan dira. Beraz, zirkunstantzia historiko eta politikoek berebiziko esku hartzea dutela literaturan berretsi arren, nekez aurkituko dira lurralde desberdinetako euskaldunentzat balio duten mugarri historiko eta politikoak. Faktore soziopolitikoek badute eraginik gertaera literarioan, gizartealdaketek badute eraginik literatur egituren aldaketan, baina euskal literaturari dagokionez, zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, oinarri horren arabera eratzea literaturaren historia, osotasunari begiratu nahi bazaio behintzat.

Aldiak zehazteko irizpideen artean generoarena ere ezaguna da. Aldiok finkatzeko euskarria obraren izaerari lotzen zaionez, irizpide ontologikotzat har daiteke. Ez da aukerakoena. O. Tacca-k dioten bezala, «Tal división por géneros ofrece el inconveniente de que si se los considera inmutables, no responden a la cambiante realidad literaria, y si se los considera variables el principio ordenador carece de fundamento» (1968: 91). Beste oztoporik ere gehi dakioke: idazle jakinaren obra zatikatzen du. Genero desberdinen bidez osatutako idazlearen sorlana sakabanatzen du. Sortzailearen sorkuntza han-hemenka barreiatzen da, uste izatekoa denean generoak bereizten dituen testuen artean harremanen bat egongo dela. Horrezaz gain, ezin al-bora daiteke, badirela idazleak literatur genero tradizionalen arteko mugak hautsiz, generoak nahasiz eraiki dituztenak beren idazlanak. Euskal literaturaren XX. mendearen bigarren erdiko zenbait idazlanek hala erakusten dute.

Ez dira hemen agortzen literaturaren historiak aldiak zedarritzeko bilatutako sostenguak. Bada besterik ere, hala nola belaunaldietara jotzen duena.

Alabaina, egokiago dirudi, Wellek-en irizpidea aintzakotzat hartzea. Hone-la mugatzen du aldia: «tramo temporal dominado por un sistema de normas literarias, cuya introducción, despliegue, diversificación, integración y desaparición pueden trazarse» (1983: 47). Alderdi honetatik begiratuta, bistakoa da, adibidez, Oihenartek darabilen arau literarioen sistema ez dela Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiaen* (1545) erabilitakoa. Oihenarten idazlan poetikoa *-Oten gaztaroa neurtitzetan* (1657)- bakarrik gorde izan balitz, eta Oihenartek Etxepareren obrari eginiko kritikak ezagutzeko zoria jadetsi ez bagenu ere, bataren eta bestearen testuen erkaketa hutsa aski zatekeen bi idazlanok arau-sistema desberdinek gobernatzen dituztela on-dorioztatzeko. Poetika desberdinak dituzte euskarri. Poetika desberdin horiek lizentzia metrikoen erabileran edo baliatutako erriman hasi, eta oraindik askoz harantzago doaz: figura erretorikoak eratzeo hautatutako langaien artean dauden aldeak direla, giza tipoa oinarri izatetik gizabanakoa oinarri izatera igarotzea dela...

Iragan denboretako literaturgintzaren urritasunak bere baldintzak ezarriko ditu. Mende batzuetan behintzat, ez da horren zaila izango, delako «sistema de normas literarias»en sarrera zedarritzea. Arau horien hedapena, dibertsifikatzea, askotarikotzea arakatzeak, berriz, ez du joko gehiegirik eragingo idazlan profanoek osatzen duten corpus laburrarengatik; izan ere, dagoeneko adierazi den moduan, sortutako euskal produkzio literarioa bizi-rik iraun duena baino zabalagoa izanagatik, eskura geratu den dokumentazioa bakarrik da erreala, eta horren argitan, Lazarragak edo Etxeparek indarrean jarritako arau-sistemek ez zuten ez hedapen, ez dibertsifikatze handirik izan. Ezta Oihenartenak ere.

2. Bilakaera

Wellek-en definizioan bi ardatz gurutzatzen dira. Bata, nolakotasunaz ari da; bestea, denboraz. Hau da, denbora-epe jakin batean jarraitzen den arau literarioen sistemaz dihardu. Arau literarioen sistema denboraren ardatzean kokatu beharrak arazo bat baino gehiago planteatzen du. Hona, arazo horietako bat, adibide baten bidez azalduta. Demagun, alegia. Aldi neoklasi-

koaren adierazpen da alegia eta aldi erromantikoak agerrera egin ostean hasten da jorratzen euskal letretan. Nahiz autua, nahiz alegia, Erromantizismo bete-betean garatzen dira euskal literaturan. Bestela esanda, Neoklasizismoari egotzitako denbora-tartea igaroa denean lantzen dira bultzada klasiko batetik erretzen diren autua eta alegia generoak. Txosten honen lehen lerroetan beraietan aipatu da euskal literaturaren berankortasuna: mugimendu literarioak inguruko literaturetara baino beranduago heldu izana. Halakorik badela onartuz, ñabarduraren bat ere gehitu da: zenbait letradunek euskal letrak eguneratzeko egindako ahalegina, hain justu. Dena den, ahalegin horretan ez dirudi historian zehar beti berdin-berdina izan denik abiadura: noizbait motel samarra, hurrena, oso motela izatera ere iritsi da. Motela edo oso motela izan denean, nola jokatu? Esaterako, non egin beharko litzaike leku XIX. mendeko alegiei, Neoklasizismoari eratxikitako denbora-tartea amaitutzat emanik Erromantizismoarenean dabiltzanean inguruko literaturak eta euskal literaturan bertan ere izpiritu erromantikoak agerrera egina duenean?

Egia da aldi batetik bestera ez dela igarotzen bat-batean eta aurreko aldiko ikuskeratik mamitutako obrak berrietatik mamitutakoein batera sortzen direla. Errenazimentua behatu besterik ez dago, eta ez bakarrik XIV. mendearen hasieratik bertatik aldi hori Italian jaioa delako, Europako mendebaldeko beste leku batzuetan XV. mendearen bigarren erdira arte, nahiz XVI. mendearen lehen erdira arte, eta baita mende horren bigarren erdira arte ere, itxaron behar denean, baizik eta XVI. mendearen lehen hamarkadatan beraietan ez delako aurkitzen Europa osoan leku bat zeinetan agerri oro Errenazimentua den berrikuntza horren adierazpen den². Errenazimentua loretan egon arren, testu oro ez da Errenazimentuaren adierazpen: mundu-ikuskera berriaren eredu diren testuen ondoan Erdi Aroko ikuspegitik taxututakoak diraute.

² «Hemos de dar por descontado que ni aun dentro de esos límites [que para nosotros sitúan la fase más caracterizada del período entre 1450 y 1550], ni siquiera en las primeras décadas del siglo XVI, en ningún lugar de Europa encontraremos que todo lo que vemos es Renacimiento y nada más que novedad renacentista.» Maravall, J. A., «La época del Renacimiento», in Rico, F.; López Estrada, F., 1980, *Historia y crítica de la literatura española. Siglos de Oro: Renacimiento*, Barcelona: Editorial Crítica, 46.

Garai batean, garai asko bizi dira: sentsibiltate eta adierazpen-forma anitzak. Aro historiko batean mundu-ikuskera desberdinak azaleratzen dira aldi berean. Nonahi eta noiznahi gertatzen da. XX. mendeko euskal literaturatik ateratako adibide franko aipa daiteke. Esaterako, bada alderik berrogeita hamarreko urteen bukaera aldera eta hirurogeiko hasieran Txillardegi eta Eusebio Erkiagak idazten dituzten eleberriei darien mundu-ikuskeretan. Dena den, ez dago XX. mendera jo beharrik, ez bigarren erdiaren hasierara, ez geroagoko garaietara ere, mundu-ikuskeren aldiberekotasuna ikusteko; XIX. mendean bertan ere, oinak Erromantizismoan zituzten idazlanekin batera, izpiritu neoklasiko batean zituztenak -alegiak, kasu- erne zirelako.

Gauzak horrela, nola jokatu bi ardatzekin, testuaren nolakotasunari eta denbora-tarteari erreferentzia egiten dietenekin?

Aukera bat honakoa izan daiteke: aldi berri baten sorrera zehazteko unean-unean abangoardia eratzen duen testua hautatu eta horren inguruan harilkatu aldiak izan duen bilakaera, testu hori abiapuntu eta erreferentzia gisa hartuz. Ordu arte ezezaguna zen berrikuntza dakarten testuen argitalpen-urteak jarri mugarri eta mugarrion artean ekoiztutakoari leku egin: 1545, 1657 urteak mugarri ukaezinak dira, eta aurrerago, irizpide berbera jarraituz, Neoklasizismorako edo Erromantizismorako jauzia islatzen duten lehen idazlanen argitalpen-urteek ezarriko lituzkete mugarriak. Bestela esanda, *berritasuna* litzateke bilakaeran indarrean legokeen irizpidea. Kate-begi berria historia osatuz doan katean. Irizpide horrek ez du inongo zerikusirik balioarekin, noski. Ebaluazioa berritasunaren mailakoa litzateke, eta esan beharrik ere ez dago: berria izateak ez ditu bere baitan barneratzen baliotsua edo ona ezaugarriak. Bistakoa da, berritasuna irizpideak beste irizpide batzuk baztertzen dituela, dela kalitatearena, dela irakurleak egindako harrerarena... Hartzaile zabalaren arreta erdietsi izanak edo testuaren bikaintasunak gabe, berritasunak bihurtuko luke idazlana mugarri.

Berritasuna irizpide legez hautatzen bada, Neoklasizismoak kutsu erromantikodun lehen idazlanak agerrera egin arteko iraupena du. Aldi honen bilakaeraren berri eman ostean, garaikide izan d(it)uen beste arau-sistema batetik (edo batzuetatik) moldatutako idazlanentzako tarte irekiko litza-

teke. Jardunbide horri eutsiz, ikuskera desberdinak euskarri dituzten idazlanak aldi berean bizi direla, elkarrekin bizi direla agerraraziko da: aroak baten duena, ikuskerak bereizten du. Denbora partekatzen dute, ez horrela, arau literarioen sistema.

Garai batean ez ezik, testu berean bertan ere, atzeman daitezke izpiritu desberdinetatik jaiotako zatiak. Beren artean alderik izan baduten Etxepareren *Linguae Vasconum Primitia*era, Oihenarten *Oten gaztaroa neurtitzetarena* eta Juan Antonio Mogelen *Peru Abarkara* (1881) joko da baieztapena azaltzeko. Ez dituzte osatzen adibide berdin-berdinak, Etxepareren eta Oihenarten testuek ez dutelako Mogelenari darion batasun-mailarik. Hala ere, badute kidetasunik: jasotzen dituzten langai eta langaion antolaketa lokarri handiagoz ala txikiagoz kateatu, emaitza liburu edo liburuxka bakarrera bildu zuten, arestian izendatutako izenburupean argitaratutakora, hain justu.

«...eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaiteko materia»³ izan dezaten idazten omen du Etxeparek. Paratestuan agindutakoa testuratu zuen: euskaldunen hizkuntza «eskribuz» jarri eta argitaratu izana ez ezik, doktrina eta plazeraren alderdiak aintzakotzat hartu zituen.

*Linguae Vasconum Primitia*en erabilitako grafiaz René Lafon-ek burututako azterketan, bi ondu aldi izan zituela ondorioztatu zuen: lehen hamahiru koplak ondu aldi batekoak zirela, eta, hitzaurre, hamalau-hamabostak, al-diz, bigarren ondu aldi batekoak.⁴ Batzuk idaztetik besteak idaztera denbora-tarte bat egon zenaren salaketa bezala zekusan behatutako grafia-aldaketa. Haatik, bada beste alderik ere, grafiak bereizten dituen bi zati hauen artean: Erdi Aroko airea arnastetik Errenazimentukoa arnastera igarotzen da. Honela bada, bilakaera batez hitz egin daiteke Etxepareren idazlanean.

Oihenartek *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies basques du même auteur* (1657) liburuxka argitaratu zuen. Atsotitzak

³ Etxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1995, 23.

⁴ Lafon, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BRSVAP*, VII, 312.

eta poesiak liburuxka bakarrean: guztiak euskaraz emanak egotea lotzen zuen «basques» horrek, hain zuzen ere. Batuketa moduan -«plus»- aurkeztu eta, atsotitzen saila bukatu ostean, izenburu batez hornitu zituen poesiak: *Oten gaztaroa neurtitzetan*.

Atsotitzak alboratu eta poesiaren barrutia behatuz, aipatu berri den liburuxkan barneratu zituen neurtitzak, *Oten gaztaroa neurtitzetan* izenburua daraman atala alegia, oso nabaria da maitasunaz dihardutenetan Errenazimentua ezaugarritzen duen indibidualismoa, «ni»a guztiaren neurri izatea. Inoren ordezkari ez den «ni» bat da bere kexuak kanporatzen dituen edo maitea laudatzen duena: bete-betea erantzuten dio «ni» liriko bati. Ez da horrelakorik ageri deboziozko poesietan. Deboziozko poesietan kristau-doktrinak irakasten duena azaltzen du: ez dago «ni»rik bere neurrira bizitako erlijiotasunik adierazten duenik, galderak dituenik, zalantzek harrapatuta daukatenik... «Ni»a desagertu egiten da deboziozko poesietatik, doktrina ikasgai bihurtzeko. Maitasunezko neurtitzak paratzen dituen Oihenart da Oihenart errenazentista, eta ez deboziozkoen paratzailea, guztiak liburuxka berean argitaratu izanagatik.

Liburuxka berean argitaratu zituen, bai, ez edonola, horregatik, lehenbizikoetatik bigarrengoetarako iraganbidean barne-koherentzia gordetzea bilatu zuelako. Batzuen eta besteen artean ez dago jauzi bat, iraganbide bat baino: XVII. poema. 1653ko gertaera batek bultzatutakoa da berau: emazte zuen Joanaren heriotzak, hain justu. Maitasunezkoetatik deboziozkoetara igarotzeko darabilen poema horretan dioenez, aurretik euskaraz ia ezezagunak ziren musak luzaroan zerbitzatu eta ezagutzera eman ditu. Horra hor, zorretan zirela uste izateko eta beraiegana laguntza eske zuzentzeko arrazoia, emazte Joana gaitzak jo zuenean. Joana hiltzean heriotzaren erantzule egiten ditu: ez dutela babestu ondorioztatzen du. Horren kariaz, aurrerantzean inoiz ez dutela izango agindupeko hitzematen du.⁵ Eten du musekin harremana. Orduan, *Oten gaztaroa neurtitzetan* argitaratu eta handik hiru

⁵ «beraz nizaz hain axol guti / duzuen gero, zuen zerbitzuti / naiz oraidanik ment'orotan / jalkiten ez itzultzekotan». Altuna, P.; Mujika, J. A. (Ed.), 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Bilbo: Euskaltzaindia, (117-120 bertso-lerroak), 438.

hamarkadetara Bernard Gasteluzarrek bere *Eguia Catolicac* (1686) idazlaren bigarren partean adierazi zuen nahiarekin⁶ inplizituki bat egiten du Oihenartek: musa profanoek eragindako etorria baztertu, Jainkoarengandik letorkeen etorriagatik ordezkatzeko. Gisa horretan zuritzen du maitasunezko neurtitzetatik deboziozkoetara igarotzea: etorriaren eragilean aldaketa.

Maitasunezko eta deboziozko neurtitzak ondu eta azaldu den moduan uztartu bazituen ere, bere burua maitasunezkoen egileztat nabarmentzeko eta deboziozkoekiko atxikimendutik askatzeko joera sumatzen zaio. Guztiak maisu legez argitaratzen dituela iragartzen du, hots, euskaraz neurtitz zuzenak paratzea ez dela zaila erakusteko, baina deboziozkoei harako «J'ai fait ajouter à la fin quelques rimes pies, pour exciter ceux qui ont plus d'affection et d'aptitude que moi à la Poésie à en faire de meilleurs et en plus grand nombre» eransten die (Altuna; Mujika 2003: 301). Ez da deboziozkoetatik aldentzeko uzten duen marka bakarra, frantses hutsean idatzitako hitzaurre horretan bertan; izan ere, neurtitzak bi ekinaldiren fruitu direla aitortzen du, maitasunezkoak gazte denborakoak eta gainerakoak argitalpenaren lehenaldi hurbilekoak, baina izenburua jartzerakoan gazte denborakoak soil-soilik ditu gogoan: *Oten gaztaroa neurtitzetan*. Hitzaurrean esaten duenez, XVII.a eta jarraian zetozen deboziozkoak ez ziren gaztetakoak, hirurogei urteak atzean utzita zituen gizon batenak baino.⁷ Nahiz eta hirurogei urteak bete ondoren argitaratu zuen bere euskal idazlana, hitzaurrean jakinarazitakoaren arabera, XVII. poema honen aurretik zetozen hamaseiak gaztetan moldatutakoak ziren. Hortaz, gaztetakoez eta zahartzarokoez osaturik egonagatik, hartzaileak eskuratzen duen lehen informazioan, izenburuan, aipurik ere ez «zahartzarokoei». Dirudienez, maitasunezkoak deboziozkoak baino «bereagotzat» zituen edo mezu hori helarazi nahi izan zuen behintzat. Hau da, «ni» errenazentista oinarri zutenekin, eta ez doktrina irakastera bideratutako deboziozkoekin, identifikatzen da.

⁶ «Urrun adi, Parnaseko / Musa zahar profanoa, / Eta zato, zeruko / Musa berri dibinoa». Akesolo, L. (Ed.), 1983, *Bernard Gasteluçar. Eguia Catolicac salvamendu etemalaren eguiteco necesario direnac*, Bilbo: Euskaltzaindia, 63.

⁷ Seguru asko hirurogei urteak beteak zituen gizonak ondu zituen poesia guztiak, nola maitasunezkoak, hala deboziozkoak; izan ere, 1657 arte ez du argitaratzen euskal lanik, baina, berak gazte denboran paratutakotzat aurkeztu zituen batzuk, eta argitalpen-urtetik hurbileko moduan, besteak.

Beste era bateko adibidea antzeman daiteke Mogelen *Peru Abarkan*. *Peru Abarkak* indar neoklasiko bati erantzuten dio. Gertatzen dena zera da, aire erromantikoko osagai batzuk ere bereganatzen dituela: Peru, «Basarteko» katedraduna, baserritar «bakartia» da, komunitate berezitu baten ordezkari moduan eratutako pertsonaia... «Basarte»k eta «bakarti»k intelektualismo ilustratutik urrutiratuz, Naturara itzultzeko gonbita luzatzeaz gain, gauza jakina da Erromantizismoa, nola gizabanako mailan, hala giza komunitate mailan, singularizaturik, bereziturik dagoenaz arduratzen dela.

Idazlan berean aldi desberdinetako arrastoak sumatzeaz landa, gerta daiteke, baita ere, aldi horietako baten pentsamendutik jalgitako testu-zatia aldi horrek landutako estetika-moduarekin bat ez etortzea. Berriro Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*n erreparatuz, nabaria da hitzaurrea eta azken bi koplak ikuskera errenazentista batetik ernetakoak direla; corpus hori, ordea, ez dago eraikita Errenazimentuak oso bereak zituen zenbait ezaugarritatik. Banakoturik dagoen gizatalde zehatz baten hizkuntza laudatzen, edo oso errenazentista den idazlanaren egile izatearen harrotasuna erakusten badu ere, -lehen egilea izateak areagotzen duen harrotasuna, gainera- Errenazimentuak oso berea izan zuen forma lantzea ez zuen gune bihurtu: fintasun formal eztitsuenekin jolasteak ez zuen erakarri. Corpus errenazentista hori ez da edertasuna kategoria esentziazat daukan norbaitengandik jaiotako fruitua.

Erdi Arotik, Errenazimentutik... bildutako uztza urria izan arren, utzi zuten lekukotasunik euskal literaturan. Aurrerago, XVIII. mendean, ez da faltako izpiritu neoklasikotik sortutako idazlanik. Jakina denez, helburu didaktikoak gobernatzen duen aroa da. Ez gurean, ezta inguruetan ere, ez zen izan poesiak emaitzarik gorenena lortu zituen garaia. Euskal letren mundua historikoki erabilgarritasunarekin ondo uztartu denez, oso eroso zetorkion. Horren eroso, non, ekoizpenak bistaratutakoaren arabera, testu erabilgarria XVIII. mendearen mugak zeharkatuz, kementsu sartuko den XIX. mendean barrena, elkarriketaren eta batik bat alegiaren ugaritasunak salatzen duenez.

Edozein kasutan, bada Erromantizismoaren erroetan elikatutako idazlanik XIX. mendean, indarrean dirauen aurreko aldiko ikuskera oinarri duten

idazlanekin batera. Alegiaren kasua da nabarmenena: XIX. mendean jorrazten diren genero epikoen eta dramatikoek gainetik dago kopuruz.

3. Zer ulertzen da idazlanaz?

Erromantizismoaren erroetan elikatutako idazlanik badela XIX. mendean esaten zen arestian, baina poesiaren barrutian, zer ulertzen da idazlanaz?

XIX. mendean, bereziki Erromantizismo berantiar baten garaian, ordu arte ezezaguna zen neurrian hasten dira idazketaz baliatzen literatur genero tradizionalak testuak garatzeko. Eskolatzea gehiagorengana heltzen da. Mendean zehar aurrera egin ahala, gero eta gizarte-geruza zabalagoetara hedatuko da irakurtzen eta idazten ikasteko ahalbidea, nahiz eta horietako asko eskola handiegiaren jabe izatera ez iritsi. Ondorioz, ordu arte beste irtenbiderik gabe beren behar literarioak ahotso bitarteko baino ase ezin zitzaketen gizarte-maileri irakurketa-idazketak ezagutzeko aukera irekitzen zaie. Jakina, beren kultur erreferentziek ahozkoatasunean egoten jarraitzen dute; orain, ordea, erreferentzia horiek mundu idatzira eramateko gauza dira. Bertsopaperak deituak horren erakuskari garbia dira. Badira, baita ere, kopiatzaile bat eskura daukaten agrafoak, beren ahozko sorkariari letrak dakarkion iraunkortasun zehatzago eta sendoagoa bermatuko dietenak.

XIX. mendeko euskal letretan argi gelditzen da, erdaraz bada ere, irakurtze-idazketen ikasketa jendarteratzen doala, «gehiengoetako» batzuei behintzat, lehenbiziko aldiz kulturaren parte hartzeko gonbita luzatzen zaiela. Halaber, agerikoak dira gonbit horren mugak: letrak bereiztea jadetsi. Trebetasun hau lortzeak ez dakar berarekin goi-mailako kultura bat norbereganatzea, noski. Zer esanik ez, ezta kultura poetiko landu bat ere.

XIX. mendeko poesiak ez zuen gainditu bertsopaperaren barrutia, honako zentzu honetan bederen: salbuespen bakanen bat izan ezik⁸ ez dago poesi liburu bakar bat ere; hots, ez dago batasun baten azpian eratutako poesia-

⁸ Jean Martin Hiribarrenek (1810-1866) 1853an eman zuen argitara 5428 bertso-lerroz osatutako *Eskaldunac: Iberia, Cantabria, Eskal Herriac, Eskal-Herri bakhotchka eta hari darraicon*. Urte berean *Montebideoco berriac* (1853) ere plazaratu zuen.

multzorik. Baieztapenak berdin balio du, Bilintx edo Etxahunentzat, Iztueta edo Elizanbururentzat, Arrese Beitia edo zehatz-mehatz bertsopaper izenaz izendatu diren bertsoen egileentzat. Hauek izan ziren arrakastarik handiena erdietsi zutenak, enkarguz eta kobratuz ere egin baitzituzten: euskal XIX. mendean ez dago bertso egilerik enkarguz eta kobratuz jardun zuenik bertsopaper egile hauetatik kanpo. Arrunki bertsopaper egileentzat jotzen direnak eskola gutxikoak dira. Baita eremu horretan lekutu ohi izan ez diren Bilintx edo Etxahun ere. Kultura poetikoaren mailan bada alderik XIX. mendeko bertsogileen artean, ez horrela, hauen idazlanen formatuan: luzera handiagoko edo txikiagoko bertsopapera. Ez da gaintitzen bertso soltearen maila: Lore-Jokoetako sariketen oinarriek bertso soltea eskatu izanak, hauen ugalketa eragin zuen. Alabaina, sariketon eskakizunetatik at ere bertso soltea paratu zuten, bertso-liburuak zekarren erronkari aurre egin gabe.

Bertso solteoz atondu da bildumarik. Hala, goian aipatutako idazleen nahiz aipurik gabe geratu direnen bertso solteak liburu batera bildu dira, ez egilearen eskutik gehienetan⁹, baizik eta edizio-prestatzaile batenetik¹⁰. Horiek horrela, gutxienez, bi arazo planteatzen dira. Lehenik eta behin, XIX. mendeko poesia mintzagai, zer ulertzen da idazlanaz? Bigarrenik, nola kokatzen da egile berak bultzada literario desberdinetatik mamitutako obra? Lehen galderari dagokionez, badirudi idazlan izendapenarekin edo beste izendapenen batekin bertso solteari egin beharko litzaiokeela erreferentzia, horretara laburtzen baita egileak batasunen batera menderatuz aurkeztuta-

⁹ Bada egileak berak kaleratutako ediziorik. Esaterako, F. Arrese Beitiak prestatutako *Euskeriaren liburu kantaria* (Bilbo: Jose Ayastuy, 1900) eta *Asti-orduetako bertsozko lanak* (Bilbo: Jose Ayastuy, 1902). *Euskeriaren liburu kantarian* «Euskaldun neure adiskide onai» izenburupean eginiko hitzaurrean zioenez, «zuei eskeinten deusuedaz hemeretzi urte onetan argitaratu dodazan kantu errikoiak, eta gañera beste neuk ipiniriko kantu pillotik aterata ezarri deusuedazanak bere bai», 3. Askoz laburragoak dira F. Lopez Alenek edo Serafin Barojak prestatu zituzten edizioak. Lopez Alenek *Josetxoko* (Donostia, 1896) «Irakurtzalle adiskidia»ri zuzendutako lehen hitzetan aitortzen zuenez, «Lan txiki ontan bildu ditut bertso banako batzuek», 4. Serafin Barojak *Gazi-gezak. Poésias prosáicas en Vascuence y Castellano* (San Sebastián: Imprenta de Baroja, 1875) prestatu zuen.

¹⁰ Aurreraxeago aipatuko direnei, besteak beste, *Bordel bertsularia* (J. M. Satrustegiren edizioa, Auspoa, 1965) edo *Poèmes Basques de Salvat Monho (1748-1821)*, (P. Lafitteren edizioa, Ikas, 1972) erants dakieke.

ko corpora. Eskuarki bertsopaper deitua, Lore Jokoen urtez urteko oroitzadazkiak edo aldizkariak ditu argitalpen-leku XIX. mendeko bertsoak. Ez dago bertso egilerik bertso libururako jauzia egiten duenik, elkarrekin harremanetan dagoen bertso-multzoa moldatzea xede duenik. Lotura bertso soltera murriztu eta bertso solteak pilatuz doaz.

Badira bertso solte horiek sailkaturik eman dituzten edizioak, hala nola, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahunen*¹¹ bildumak «poésies autobiographiques», «poésies satiriques» eta «poésies de circonstance» atalak bereizten ditu edo *Parnasorako bideak* (1896)¹² zortzi atal. Bada, sailkapenik gabe argitaratu den bildumarik ere: Bilintxen *Bertso ta lan guziak*¹³ edo Elizanbururen *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*.¹⁴ Dena den, sailkapenaren iragazkitik iragazitako bilduma izan ala ez, arnas desberdinetatik jaioetako bertsoz osaturik daude.

Pilatzen dituzten bertso solteak arnas beretik erretakoak ez direla erakusteko, hiruzpalau adibide baino ez. Felipe Arrese Beitiaren (1841-1906) «Euskara eta foru kantuak» deituak¹⁵ eta egile beraren alegiak¹⁶ edo Grazien Adema «Zaldubi»k (1828-1907) eskuizkribu berean idatzi zituen¹⁷ «Bildotxa eta otsoa» (1873) nahiz «Belea eta axeria» (1873) batetik, eta, demagun, «Eskualdunak» (1892) zein «Gauden gu euskaldun» (1893)¹⁸ bestetik, ez dira bultzada-modu berdinetik jalgitakoak. Zer egin behar da, Zaldubi neoklasikoa eta erromantikoa bereizi? Eta non lekutuko litzateke, Eusebio Maria Azkueren *Parnasorako bidea? Parnasorako bidea* Resurreccion Mariak, Eusebio Maria Azkueren semeak, aitak 1860-1861 urteetan idatzi zuen

¹¹ Jean Haritschelhar-ek prestaturiko edizioa, Bilbao, 1970.

¹² Resurreccion Maria Azkuek moldatutako edizioa, Bilbo: Astuitar J.-n moldagintza.

¹³ Antonio Zavalak prestaturiko edizioa, Donostia: Auspoa Liburutegia, 12, 1962.

¹⁴ Antonio Maria Labayenek atondutako edizioa, Donostia: Editorial Auñamendi, 1978.

¹⁵ Itziar Urrutia Zorrozuak eginiko sailkapenetik jaso. Ik. *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guztiak*, I, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1999, 79-222.

¹⁶ Itziar Urrutia Zorrozuak taxututako bilduma, II. liburukia, 747-787.

¹⁷ Adema, Gratien «Zaldubi», 2008, *Artzain beltzaren neurtitzak*, Bilbo: Euskaltzaindia. Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau.

¹⁸ Henri Duhauren edizioan, hurrenez hurren, 79-81; 82-83; 181-193; 194-202.

EUSKARAZKO VERSOAK, neurri askotan apainduak. Imini dituzana da Eusebio Maria Dolores Azcue-koa, 1861 garren urtian eskuizkribuaren argitalpena da. Argitalpenak «Apolo eta Musak»¹⁹ izenburupean jasotzen dituen neurtitzei, bai alegiei tarte egiteak Neoklasizismora igortzen badu, «iiiAntxiñarik ona!!!»-ri²⁰, bere aldetik, kutsu erromantikoa dario.

Eragozpen handiegirik gabe sumatuko dira ezaugarri erromantikoak Etxahunen poesia autobiografikoetan, baina gainerakoetan?

Mitxelenak Bilintx «la voz más auténticamente romántica de la literatura vasca»tzat jo zuen (1960: 132). Zinez, ukaezina da Bilintxen lotura Erromantizismoarekin. Hori bai, paratu zituen bertso guzti-guztiak ez dira Erromantizismoaren adierazpen.

Honela bada, mende luzetan, XVII. mendetik XX. mendera arte bertso soltearen eskusibotasuna salbuespenen batek baino ez du hausten mundu profanoan. Bertso solteak ontzean, oraintxe heltzen zioten nola alegiari, hala erlijioari, nola satirari, hala gabon kantari... eta, jakina, bere identitatea galduz zihoan giza komunitate bateko partaide ere sentitzen ziren eta galerak agerian utziz identitatea finkatu eta aldarrikatzeari nahiz «ni» batek barnean ezin gorde zitzakeen sentimenduak kanporatzeari ere ekin zioten.

Bestalde, lantze-mailari dagokionez, bada alde oso nabarmenik aldizkari desberdinetan argia ikusi zuten poesietan. Ohikoena ez izanagatik, aurkitzen da forma lantzean arreta oso berezia jarritakorik ere. Esaterako, Antonio Arzak-en «Baga»²¹ poema aipa daiteke, poesia espazialean urratsa.

Nola antola daitezke mugimendu literario desberdinetan sustraiak dituzten egile beraren idatziak? Eta oraindik gauzak gehiago korapilatzeko, estilo jasoko, ez hain jasoko, herrikoiko ala oso herrikoiko bertsoek betetzen dute XIX. mendea. Herri-literaturaren eta literatura landuaren arteko bereizketaren egin beharko litzateke? Egia esan, bide ikaragarri labainkorrean sartzea

¹⁹ *Parnasorako bidea*, 293-307.

²⁰ *Parnasorako bidea*, 199-204.

²¹ Arzac, A., 1890, «Baga», *Euskal-Erria*, XXIII (1890), 202.

lekarke; izan ere, lehenik eta behin, herri-literaturaz zer ulertzen den zedarritzera eskatuko luke eta lantegi nekeza dirudi.

Herri-landu bereizketara jotzeak, bataren eta bestearen arteko mugarriak jartzeko sortzen dituen oztopoez gain, geroagoko garaietarako ere banaketa atxikitzea galdatuko luke barne-koherentziak. XX-XXI. mendeetara hedatuko genuke sailkapen hori?

XIX. mendeko bertso-gileak kultura poetikoaren mailak edo bertsoen lantze-mailak bereizi arren, bertso soltea paratu izanak uztartzen ditu. Adierazi beharko den ezaugarria da, poesia idazlanaz arrunki ulertzen dena barne-lotura gordetzen duen bertso-multzo batez osatuta dagoelako.

Bere ahulezia guztiekin ere, bertsoa da jaun eta jabe XIX. mendeko idazte-egintza profanoan. Prosa narratiboa hiru mende luzetako antzutasunaren ostean, lehen urratsak ematen hasten da. Baita antzertia ere, Hegoaldean behintzat. XVIII. mendeko lehen testuaren ondotik datorren mende bateko isilaldia eta gero, XIX.aren azken laurdenean berragertzen da. XX. mendearen hastapenetan gisa honetan epaitu zuen Etxegaraik antzerti jaio berria:

De profundos análisis psicológicos, de ese andar por los laberintos y sinuosidades del alma y mostrar al exterior los más complicados estados de conciencia, no se hable, pues sería realmente demasiada exigencia pedir tales maravillas á un teatro que todavía está, y debe estar, en su infancia, porque no es posible que formas de arte como ésta nazcan adultas, ni que en veinte años recorran el espacio que otras más adelantadas han recorrido en siglos (1901: 50).

4. Ondorioak

- a) Ezer baino lehen, paradoxa moduko bati aipamena. Goitik behera politika orokorrak eta egitura horren barnean hizkuntza-politikak baldintzatu duenean euskal literaturaren garapena, justu, euskal literaturaren historia periodizatzeko irizpide soziopolitikoak alde batera uztea gomendatu da. Arrazoia, berriz, euskal komunitatea inoiz ez gobernatu izana botere politiko bakar batek eta, ondorioz, gertaera soziohisto-

riko berdinak ez bizi izana. Botere politiko bakar baten azpian behin ere ez egonagatik, gertaera soziohistoriko erabakigarri bat partekatu du euskal komunitate osoak: Euskal Herrian hitz egiten ziren beste hizkuntzei ez bezala, hizkuntza ofizialaren maila ukatu izana euskarari, estatus hori aitortzeko ahalmena zuten botere politikoek.

Zinez, gertaera erabakigarria dirudi euskal literaturaren historia azaltzeko. Izan ere, Errenazimentuan, estatu modernoek sorrerarekin, estatu desberdinek herri-hizkuntza bati hizkuntza ofizialaren maila emanaz, hizkuntza landu bihurtzeko ahaleginari lotzen zaizkionean, inongo estaturen babesik gabe, euskaldunak ere heltzen dio egitekoari, lehenbiziko betebeharretik bertatik hasita: idatziz jarri. Etxepare ez zuten bakarrik laga zeregin horretan: poesia eta prosa narratiboa jorratzen dira, errefracuak biltzen dira... Lehen urrats hauek sendotuz joan ordez, ahulduz doaz. Euskal Herrian hitz egiten ziren hizkuntza ofizialak indartu ahala, indargabetuz doa euskara, XIX. mendean gizarte-baldintzetan datozen aldaketek (haurren eskolatzeari hedatu, hizkuntza prestigioa irabazten joan...) berriro normalizaziorantzko biderantz zuzentzen duten arte. Jarrera horri eutsiz eta areagotuz, behingo batean, kantitatez ez bada ere, -eremu urriko hizkuntza baita euskara- asmoz eta kalitatez inguratzen duten literaturen parean kokatzea lortu arte XX. mendetik aurrera.

- b) Euskal literaturaren historia aldietan banatzeko aukera bat irizpide kronologikoa jarraitzea da, baina, onartuz mendea bezalako zenbaki-kontzeptu bat etiketa bat baino ez dela. Gertaera soziopolitikoak euskarri eraikitzea baztergarri litzateke, euskal komunitate osoarentzat baliagarriak liratekeen mugarrak ezartzeko gaitasunik ez izateagatik.
- c) Irizpide literarioetara jotzea dirudi egokiena, modu hertsian hartu barik horratik. Testu profanoen esparrua gaingiduz, beste hizkuntza batzuetan ere ondu izan dituzten eta literaturaren historietan tokia izan ohi duten testu-tipo erlijioso erabakigarrienak alde batera utzi gabe: dela biblia-itzulpena, direla aszetikak edo mistikak eskainitako fruiturik funtsezkoenak... Beraz, hiru literatur genero tradizionalen eremua, laugarren bati zabalduko litzaioke: literatura aplikatua edo didakti-

koa... deitu izan denari. Unean-unean abangoardia markatuko lukeen idazlana abiaburu, abian jarri duen aldiaren jardunbidea azalduko litzateke, jarraian, garaikide izan arren, beste mundu-ikuskera bat darien idazlanei leku egiteko. Bestela esanda, aldiari denboraren ardatzean egotzitako iraupena lehenetsiko litzateke, tarte horretan oinarrizko uniformetasun estetiko bat erakusten duten idazlanak jasoz. Aldiak biltzen duenaren azterketa amaitu ondoren, denbora-tarte horretan beste ikuspuntu batetik taxututako idazlanen txanda letorke. Jakina, ez da biribil-biribila aurkeztutako aukera; esaterako, arestian aipatutako XIX. mendeko zenbait bertso-gileren lana zatikatzea eta barreiatzea ekarriko luke.

- d) Herri / landu bereizketak berez konplexua dena are konplexuago bihurtzen du. Ez bakarrik bien artean mugarri finkoak ezartzearen ezintasunarengatik, baita modu nabarmenean herri-adierazpen izan denak ere, bertsopaper gisa ezagutuak, kasu, beste sistema batean funtzionatu duelako. Gainera, XX-XXI. mendeetara hedatu beharko litzateke banaketa.
- e) Eragozpen frankori aurre eginaz XXI. mendera iritsi den hizkuntza batean garatutako literatura da euskarazkoa. Europa bertako zenbait hizkuntzekin alderatuta oso goiz letraz baliatu dena idazlan profanoak moldatzeko. Ez, noski, inguratzen zuten gaztelera edo frantsesarekiko. Horiekiko harremanean ez da izan, ez goiztiarra, ez, inondik inora, aberatsa. Baina, hizkuntza horietan -eta beste hizkuntza ofizial batzuetan: ingelesa, alemana...- landutako literaturetan ala eremu urriko hizkuntzetan jorratutakoetan erreferentzia bilatzea da aukera. Badirudi, lehen aukera egokiagoa dela; azken batez, ukaezinezkoa baita, gutxienez globalizazioa heldu arte behintzat, euskal komunitatearen kultur harremanik sakonenak horiekin izan direla: euskal letratan izan duten eragina oso nabarmena da. Badu desegokitasunik euskara inguratzen duten hizkuntza handietan burututako literaturen historien jarraipena eginaz, euskal literaturena eraikitzeak: euskararen parean egon ez diren hizkuntzetako literatura hautatzen da eredu jartzeko. Bistakoa denez, erreferentziaren aurrean beti azalduko da euskal literatura txiki, ahul, baita noizbait ezgauza ere, ez direlako

maila berean egon hizkuntzak. Maila berean egon ez diren eta ez dau-
den hizkuntzetan mamitutako literatura erreferentzia moduan har-
tzea da, azken finean, euskal literaturari egotzi izan zaizkion hainbat
ezaugarriren eragilea: berankorra, idazlan profanoetan urria, eta oro
har, aurreko lerroetan mintzagai izan diren «berezitasunen» jabea.

Aipatutako bibliografia

AKESOLO, L., (Ed.), 1983, *Bernard Gasteluçar. Eguiac Catholicac salbamendu eter-
nalaren eguiteco necesario direnac*, Bilbo: Euskaltzaindia.

ALTUNA, P.; MUJICA, J. A. (Ed.), 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta
neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Bilbo: Euskaltzain-
dia.

ARRESE BEITIA, F., 1900, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo: Jose Astuy.

———, 1902, *Asti orduetako bertsozko lanak*, Bilbo: Jose Astuy.

ARZAC, A., 1890, «Baga», *Euskal-Erria*, XXIII (1890) 202.

AZKUE, R. M. (Ed.), 1896, *Eusebio Maria Azkue. Parnasorako bidea*, Bilbo: Astui-
tar J.-n moldagintza.

BAROJA, S., 1875, *Gazi-gezak. Poesías prosáicas en Vascuence y Castellano*, San
Sebastián: Imprenta de Baroja.

DUHAU, H. (Ed.), 2008, *Gratien Adema» Zaldubi. Artzain beltxaren neurtitzak*,
Bilbo: Euskaltzaindia.

ECHEGARAY, C. de, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de
Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*, VI, Tolosa: Imprenta, Librería y Encuaderna-
ción de E. López.

ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1995.

HARITSCHELHAR, J. (Ed.), 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahun*, Bil-
bao: Gráficas Ellacuría.

HERNADI, P., 1978, *Teoría de los géneros literarios*, Barcelona: Antoni Bosch editor.

HIRIBARREN, J. M., 1853, *Eskaldunac: Iberia, Cantabria, Eskal Herriac, Eskal-Herri bakhotcheta eta hari darraiconac*, Bayonne: Imprimerie Foré et Lasserre.

———, *Montebideoco berriac*, Bayonne: Imprimerie Foré et Lasserre.

LABAYEN, A. M. (Ed.), 1978, *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak*, Donostia: Editorial Auñamendi.

LAFITTE, P. (Ed.), 1972, *Poèmes Basques de Salvat Monho (1748-1821)*, Bayonne: Ikas.

LAFON, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BRSVAP*, VII, 309-338.

LOPEZ ALEN, F., 1896, *Josetxo*, San Sebastián: Establecimiento Tipográfico de La Voz de Guipúzcoa.

MARAVALL, J. A., 1980, «La época del Renacimiento», in Rico, F.; López Estrada, F.: *Historia y crítica de la literatura española. Siglos de Oro: Renacimiento*, Barcelona: Editorial Crítica, 44-53.

MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Minotauro.

MOGEL, J. A. de, 1881, *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la universidad de Basarte ó Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Bilbao: Asociación Gerediaga, 1981. Edizio faksimilea.

SATRUSTEGI, J. M. (Ed.), 1965, *Bordel bertsularia*, Tolosa: Auspoa 45-46.

TACCA, O., 1968, *La historia literaria*, Madrid: Gredos.

URRUTIA, I. (Ed.), 1999, *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guztiak*, I eta II, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

WELLEK, R., 1983, *Historia literaria. Problemas y conceptos*, Barcelona: Laia.

ZAVALA, A. (Ed.), 1962, *Bilintx, Bertso ta lan guztiak*, Donostia: Auspoa, 12.

Gudaosteko euskal poesiaren antologiak. Poetikak eta irakurketa soziokulturalak

Antologías poéticas vascas de postguerra. Poesía e
interpretaciones socioculturales

Anthologies poétiques basques d'après-guerre. Poésie
et interprétations socio-culturelles

Post Spanish civil war Basque poetry anthologies:
poetics and sociocultural readings

OTAEGI IMAZ, Lourdes
Euskal Herriko Unibetsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-05-16
Noiz onartua: 2014-07-08

Euskera. 2013, 58, 2. 515-556. Bilbo
ISSN 0210-1564

Poesia antologiek euskal literaturaren historian eta kanonean jokatu duten funtzioa hartu da aztergaitzat artikulu honetan, bereziki antologiaren hezkuntza funtzioaz eta literaturaren balioak irakurleengana helburu didaktikoez helarazteko zeregin bitartekariaz. XX. mendeko poesia antologia garrantzitsuenen inguruko hausnarketak agirian ezarriko du literatur testuen balioaren epaiketari hezkuntza ereduari loturiko irizpideak izan duen garrantzi handia, poesia modernoaren kanonizazioan indar gehienek jokatu duen bektorea bilakatzeraino. Bestalde, euskal literaturaren sisteman jokatzeko duten balio irizpideetan, hezkuntzaren egoera soziolinguistikoak duen indar grabitazionalaren inguruan hausnartzen da, bai gizarte mailan bizi duen egoera diglosikoari buruz, bai estandarizazio prozesu berankorren ondorioei buruz.

Hitz gakoak: antologia, kanona, poesia modernoa, diglosia, euskara batua.

Este artículo analiza la función que han desempeñado las antologías poéticas en la historia y el canon de la literatura vasca. Más en concreto, la función educativa de las antologías, y su función mediadora, en tanto que transmite los valores literarios a los lectores. El estudio de las principales antologías poéticas del siglo XX, deja bien a las claras la centralidad de los criterios sujetos al modelo lingüístico, a la hora de enjuiciar el valor de los textos literarios. Podemos considerarlo como el vector más potente en la canonización de la poesía moderna.

Por otra parte, se reflexiona sobre la fuerza gravitatoria que tiene la situación sociolingüística, dentro de los criterios de valor que juega esta en el sistema de la literatura vasca. Tanto por la situación de diglosia en la que vivimos, como por las consecuencias de la estandarización tardía.

Palabras clave: Antología, canon, poesía moderna, diglosis, euskara unificado.

Cette article analyse la fonction occupée par les anthologies poétiques dans l'histoire et le canon de la littérature basque. Plus concrètement, la fonction éducative des anthologies et leur fonction médiatrice, puisqu'elle transmet les valeurs littéraires aux lecteurs. L'étude des principales anthologies poétiques du XX^e siècle montre bien le caractère central des critères sujets au modèle linguistique, lorsque l'on étudie la valeur des textes littéraires. Nous pouvons le considérer comme le vecteur le plus puissant en matière de canonisation de la poésie moderne.

Par ailleurs, on réfléchit à la force gravitationnelle que représente la situation sociolinguistique parmi les critères de valeur qu'elle utilise dans le système de la littérature basque. autant par la situation de diglossie dans laquelle nous vivons que par les conséquences de la standardisation tardive.

Mots-clés: Anthologie, canon, poésie moderne, diglossie, basque unifié.

The part played by poetry anthologies in the history and canon of Basque literature is examined, in particular the educational function of anthologies and their role in mediating in the transmission of literary values to readers. Reflection on the major 20th century poetry anthologies brings out the importance of criteria based on models of language in judgments on the value of literary texts, to the point where they constitute the prime vector in forming the canon of modern poetry.

In addition, the force of attraction caused by the sociolinguistic situation in the matter of evaluative criteria within the system of Basque literature is also a focus of reflection, both with regard to the diglossic situation at present experienced and to the consequences of a belated standardisation.

Keywords: Anthology, canon, modern poetry, diglossia, unified Basque.

1. Hurbilpena

Gudaosteko euskal poesiaren antologiak aztertzea helburutzat duen artikulu honetan, lehenik, hausnarketak izango dituen abiapuntu teoriko erreferentzialak zehaztea komeni da. Alde batetik, oroitarazi behar da antologiak literaturaren historiarekin eta kanonarekin duten lotura estua, eta bestetik, azpimarra daiteke antologiak gehienetan izaten duten zeregin hezitzailea, literatura irakurleengana helarazteko tresna izateko funtzioa.

Abiapuntu horietan gehiago sakonduz, gogora genezake antologiak edozein literatura nazionaletako historien osagarri direla, eta elkarren menpekotasun bat agertzen dutela biek: literaturaren historia bat osatzeko historiagileak idazle eta idazlan hautapen bat eginga du eta haien arteko harremanak deskribatzen ditu bere historian, hari kronologiko batean ezarriko gertakari literarioen arteko koherentzia eraikiz. Beste alde batetik, egia da antologia bat egin ahal izateko historia literarioaren aldien eta urraspide nagusien ideia bat beharrezkoa dela. Idazleen balioaren eta errepresentatibotasunaren irizpide bat du beharrezko antologia orokorren egileak, baina baita aldi edo denbora baten irizpidea ere, antologiaren mugak finkatzeko. Aho batez onartzen da, beraz, historiek eta antologiak kanon batean kokatzen dituztela testuak eta egileak, eta haien sagaratze prozesuan urraspide nagusi bilakatzen dira (Claudio Guillen, 1985; Jose Maria Pozuelo, 1996).

Horregatik, gure artean, antologia aipatueneen hitzaurreak literaturaren historiaren atal nagusi bilakatu izan dira, eta genero bateko poetikaren bilakaeraren azalpen-saio goiztiarrak izan dira sarritan, literaturaren historia orokorragoen muin bilakatu aurretik. Hala gertatu da, esaterako, eta bi adibide soilik aipatzearren, Iñaki Aldekoaren *Una antología de la poesía vasca*ren hitzaurrea edota Maria Goyri Mintegiak (*Euskal baladak*, 1983) euskal baladei buruz burutu zuen hitzaurre eta azterketa, generoari buruzko ikaskuntzetan oinarritzko azalpen historiografiko bilakatu direla.

Euskal poesiaren antologia guztien azterketari ekitea ez daiteke izan gure gaurko asmoa, susmoa dudan arren ez litzatekeela fruitu gutxiko ikerketa, baina gure artean modu kritikoan gutxi jorratu den barrutia izanik, asmo

ausartegia litzatekeelakoan nago. Aipagarritzat daukat arlo honetan Iratxe Retolazak 2007-2008ko *Caravansari* aldizkarian argitaratu zuen artikulu interesgarri bat, eta atseginez adierazi nahi nuke gaurko artikulu honetan bidelagun eta mintzakide izango dudala azterlan hura; izan ere, ikerketan arlo honetarako lehen hurbiltze baten abantaila eskaintzen baitit euskal poesia modernoaren eta postmodernoren antologiei buruz. Horri esker, gaurko nire saio honetan esparru murriztago bati atxiki ahal izango natzaio: Zehazki aztergai izango ditut Guda Zibiletik aurrerako XX. mendeko euskal poesiaren zenbait antologia.

Iratxe Retolazak *Antologías de poesía vasca: itinerarios personales por territorios poéticos* lanean adierazi zuen moduan, «Toda antología de literatura es un viaje guiado por territorios literarios, y plantea, evidentemente, itinerarios personales» (2007: 223). Horrenbestez, erran gabe doa bat natorrela berarekin esaterakoan euskal antologien barrutia antologia-egileen planteamendu eta ikuspegiak bezain dibertsoa eta askotarikoa dela. Egileak paraje edo lurralde bat ezagutzera emateko gida moduko bat da antologian irakurleari egiten dion proposamena, baina ez da beste gabeko «erakuste» saio desinteresatua izaten, beti izaten baitu zerbait frogatzeko asmo isil-gordea. Ikuspuntu batetik harturiko panorama erakustean, testuak ezagutzera emateaz batera, literatur testuaren inguruko «tesi» bat gordetzen dute antologiek beren baitan, nolabait, produkzio multzo horren izaerari buruzko ideia bat frogatzeko asmo inplizitua. Eta gehienetan produkzio horren bilakaeraren berri ematea beste asmorik aldarrikatzen ez badute ere, norabide bateranzko bilakaera erakustea izaten dute gogoan. Ez da garrantzi gutxiagokoa, antologietan ikuspuntu horiek hobestean, euskal sistema literarioak islatu dituen kezka eta obsesioen lekuko bilakatzen direla ohartzea. Beraz, ildo horretatik zerbait sakontzeko asmoa dakarte lerro hauek.

Har dezagun lehenik ikuspegi teoriko orokor bat geure terminologiaren oinarri gisa baliatzeko. Marta Palenquek «Historia, antología, poesía: la poesía española del siglo XX en las antologías generales (1908-1941)» izeneko artikuluan proposatzen digun terminologia ildoari lotuko gataizkio (2004: 314). Antologiak sailkatzerakoan, irizpide nagusitzat hartzen du antologoak hobetsiriko ikuspuntu kronologikoa: hots, antologia orokorra egingo duen ala aldi literario baten mugetan etsiko duen. Bere azalpenen

arabera, antologia orokorragoei ekiten dienean, helburu orohartzaille bati lotzen zaio antologoa, eredu errepresentatiboak bilatzen ditu eta, nolabait, helburu hezitzaileetarako edo formakuntza orokorrerako baliagarri izango den tresna osatzea izaten du gogoan. Horregatik, antologia orokorrek funtsean bermatu egiten dute literaturaren historietan finkaturiko kanona; baina inoiz edo behin hari zuzenketak egiten edota ñabardura baloratiboak eransten ere ausartzen dira antologoak. Aldiz, aro mugatu bateko edota talde jakin bati dagozkion antologietan, -bereziki garaikide eta moderno edo postmodernoetan- helburua hipotesi berriak probatzea izan ohi da, kanon berri bat sortzea eta aurreko epean izandako poetika gauditua dela frogatzea, testu corpus baten bidez argudiatuz aurrekoa «zahartua» geratu dela.

Euskal antologia orokorren arloari soilik begiratuko bagenio, hots euskal literaturaren esparru zabalak aurkeztea helburutzat duten *lorategiak* soilik aintzat hartuko bagenitu, ikusiko genuke badirela zenbait mota ezberdin: batetik, badira genero ezberdinak biltzen dituztenak, hala nola, Koldo Izagirre eta Xabier Mendigurenen *Euskal literaturaren antologia* (1998. 232-233). Antologia honek asmo pedagogiko garbia du, azalean berean adierazia baita Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleei zuzendua dela, eta, horregatik, egile bakoitzari eta hautaturiko testu bakoitzari buruzko azalpenez eta hiztegiak lagundurik aurkezten dira testu guztiak. Alabaina, arestian aipatu dugun moduan, antologian ñabardurak edo xehetasunak erantsiz corpusa pertsonalizatzeko joera nabari da, esaterako, euskal literaturaren historietan ordura arte inork aipatu gabeko egilea «plazaratu» zuelako antologia hark: Juan Bautista Bilbao «Batxi» bidaien kronikari bizkorra. Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek aurkitu eta aldarrikaturiko idazle bati sarbidea eman zitzaion antologia orokor horretan, urtebete lehenago argitaraturiko Batxiren *Hau mundu arrano hau* artikulua bilduma argitaratu berria zutelarik iturri gisa (1997).

Bestetik, Jon Kortazarrek eta Miren Bilelabeitiak Alfaguararentzat eginitako haur eta gazteentzako euskal poesiaren antologiek ere (2004, 2005), aurretik aipaturikoak bezala, helburu didaktikoari erantzuten diote, eta ildo beretik doa Juan Kruz Igerabidek Anayarentzat (1997) eginikoa ere. Asmo funtzional bera dute testuen edizio elebidun diren beste zenbait antologiak, hala nola, Patri Urkizuk UNEDentzat eginikoa (2009), edota Garcia Truji-

llo eta Gonzalez Langarikak lau hizkuntzatan argitaraturiko poesia hautapena (2010).

Aipaturiko antologia orokor edo orohartzaile horien aurka-aurkako ezau-garriak dituzte Maria do Cebreiro Rabade irakasle galiziarrek antologia «sortzaile» gisa bataiatutikoeak. «Las antologías de mujeres en la poesía catalana (1975-2001)» artikuluan (2011: 325-336) dioskunez, antologia sortzaileek ez dute kanonean ezarritako balioak berresteko asmoa, baizik eta hura kordokarazi eta errealitate berri bat gorpuztu eta sortzeko xedea. Horretarako, «irudimen antologikoa» izendaturiko kontzeptu berri batetik abiatzen da:

El término imaginación antológica tiene su origen en el título genérico del monográfico en dos volúmenes de la revista *Proof texts*, coordinado por David Stern (1996). También el trabajo de Alberto Manguel (1988) sobre la antología como acto de creación resulta indicativo de este cambio de percepción del fenómeno antológico, hasta hace poco tiempo objeto de tratamientos casi «punitivos» por parte de la bibliografía especializada. En cambio, en los últimos años a las antologías se les viene reconociendo una potencia creativa y transformadora, y no meramente reproductiva de los valores existentes (2011: 326).

Izan ere, literatura katalaneko emakumeek idatziriko poesiaz diharduten antologiak dira Maria do Cebreiroren ikergaia artikuluko horretan, eta haie-tan generoa irizpide nagusitzat hartu denez testuen hautapena egiterakoan, argi dago antologiaren egileek emakumeek idatziriko literatura ikusgarri egiteko asmoa izan dutela, eta gizonezkoen literaturaren saldoan sarturik izaten ez duten fokuen argia haienganatzea. Borondate sendo horren ondorioz, emakume idazleen ikusgarritasuna areagotzen dute Rabaderen iritziz, «y pueden llegar a generar una arquitectura específica y modalidades alternativas de entendimiento de las labores de selección y organización del material poético» (2011: 326).

Mario do Cebreiro Rabaderen artikulua arabera, emakumeen antologia horiek formalki kontserbadoreago izaten diren antologia kanonikoak ez bezalakoak izatera ausartzen dira, eta «imaginación antológica», sormen berritzaile hori, irudimen askeagoaren eragile bilakatzen da.

Irakasle galiziarren ondorioak gure esparrura ekarriz, nabarmenduko dugu badirela gurean ere euskal antologia orokorretan ikusgarri edo nabarmenegi agertzen ez diren gai jakin batzuen inguruko testuez osaturiko antologia «sortzaileak» eta berritzaileak, gizartean suertaturiko aldakuntzen haritik. Hala gertatu da, esaterako, maitasuna gaitzat duten antologiaren artean. Antzinakoenetako bat aipatzearren, Santi Onaindiaren *Euskarazko 100 maitasun olerkirik hoberenak / Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca* (1975) izeneko lana har genezake abiapuntutzat. Maitasunezko euskal kantuen irudi jakin bat hobesten eta erakusten du Onaindiak, antologiako hitzaurrean argitasunez adierazia dena. Iratxe Retolazaren hitzetan egoki laburtua aurki genezake:

Mediante esta nueva antología, todavía defendía esa visión tradicional y esencialista de la expresión poética, y no solamente eso, sino que pretendía mostrar «que la lírica vasca ha producido, a través de los siglos, bastante buena poesía amorosa» (Onaindia 1975: 15), y añade «una nota característica: la poesía euskara jamás ha sido enturbiada hasta la fecha por la truculenta pasión erótica». De esta manera, de nuevo, la poesía quiere ser reflejo del alma vasca, que, como se ve, considera Onaindia que no debe de ser «enturbiada» (Retolaza, 2007-2008: 27).

Santi Onaindiaren antologiak gudaosteko euskal antologiaren artean eraginkorrenak izan ziren, eta hain zuzen ere, garrantzia horren lekuko, sustatu zituen «erantzun»en artean aipatu ahal genuke maitasun olerki horietakoak ez bezalakoak diren maitasunak biltzen dituzten antologiak. Patri Urkizuk osatu zuen maitasun ez hain xaloen adierazpide ziren testuez osaturiko beste antologia bat, *Eros, eros...* (1985), euskal tradizio herrikoian nahiz landuan edanez. Aipagarri da, gisa berean, egile talde batek osaturiko *Desira plazer* (2009), 1968 eta 2008 bitarteko euskal poesia erotikorentzat antologia ere, Urkizurenaren ildo heterodoxotik, bestelako maitasunen, gay, lesbiana, queer-en testu hautaketaraino bidea egin zuena, edota Anjel Errok *Desira desordenatuak* (2010) lan bilduman argitaratu zuen poesia gay-aren sorta guztiz pertsonala. Antologia sortzaileak deskribatzerakoan Maria do Cebreiro Rabadek iradoki zuen ausardia eta esperimentalismo generikoan, aurrerapausoak atzeman ditzakegu aipatu berri ditugun horietan.

Antologia sortzaile eta berritzaile horien irudimen antologikoaren azterketa hurrengo ikergai baterako utziz, azterlan honetan antologia orokorrak eta aldi-sortzaileak izango ditugu ikusmiran; zehazki, poesiaren generoaren baitan ibilbide kronologikoaren epeak eta kanona eraikitzen erabakigarriak izandako antologiak. Horretarako, helburu didaktiko nabariaz osatutako Mendiguren-Izagirre, Kortazar, Billelabeitia, Igerabide edota ia eskola liburuaren esparruan diharduten argitaletxeek prestatuturikoak alde batera utziko dira, eta XX. mendeko euskal poesia modernoaren ildo nagusiak zehazten parte hartu duten antologiei jarriko zaie arreta: batetik, aldi literario modernoaren lehen corpusak bihurtu diren Joan San Martin, Ibon Sarasola, Joan Amenabar, Jon Kortazar, Iñaki Aldekoa, eta Mari Jose Olaziregiren antologiak, eta, bestetik, antologia orokor gisa, Santi Onaindiaren antologia eta Koldo Izagirreren «Poesia kaierak» hartuko dira aztergaitzat.

2. Modernitateko antologia aldi-sortzaileak

Santi Onaindiak argitaraturiko *Mila euskal olerki eder* (1954) liburua antologia orokor gisa aurrerago aztertuko den arren, ezinbestekoa da aipatzea euskal literaturaren ikuspuntu erromantikoaren arabera kanonaren eraikuntzan lehen urrats garrantzitsu gisa. Ondoren heldu zirenek, ordea, aldi literario berri baten eraikuntzan parte hartu zuten, poesia modernoaren aldi literarioaren iragarle moduan. Hala, gudaosteko urte ilunen ondoren, 1960tik aurrera ahots berri baten beharra sumatzen zela iradoki zuen San Martinek *Uhin berria* antologiaren bidez, 1969an, baina giroa benetan ez zen aldatu 1972-1973ra arte. Euskal idazleek bilerak burutu zituzten estandar literario modernoaren bila: lehenik Baionan 1964an eta gero Ermuan 1968an. Ondoren, 1968ko urrian ekin zitzaion batasunaren aldarria zabaltzeari Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarraz baliatuz.

Ezagun den moduan, asmo berri horiek egoera soziopolitikoaren aldakuntzen pausoan gertatu ziren. Frankismoaren diktaduraren urte gogorrenek egindako garbikuntza epearen ondoren (1939-1964), aldi bakegile bati ekin zion. Horretarako, 1964an «25 años de paz» izeneko kanpainaren barruan, erakusketa eta argitalpenen bidez gudaren eta gudaostearen memoria

kapitalizatzeko helburuz, Fraga Iribarne Informazio eta Turismoko ministroak bakea eta aurrerakuntza sozioekonomikoak Francoren agintaldiaren fruitutzat aurkeztu nahi izan zituen. Ondorioz, Fraga ministroaren prentsa legeak zirrikitua ireki zion euskarazko produkzio idatziari 1966tik aurrera, erregimen frankistaren politika kulturalaren aldakuntza kanpainaren ildotik, baina zentsura sareari erabat utzi gabe. Horren ondorioz, euskarazko testuen gainean ezarritako zentsurak eragindako geldotasuna gainditzen hasi zen eta euskal literaturaren hazkunde tasak gorantz egin zuen: hogeita bost liburu eman ziren argitara 1963an, hogeita hamahiru 1965ean, berrogeita hamarrekogal gara iritsi zen 1969an, eta 1975ean hirurogei. Hortaz, zenbait aldizkari eta argitaletxe zabaltzeko baimenak heldu ziren: Lur, Etor, Jakin, Auspoa, Gero, Kriselu... Testuinguru horretan sortu zuen Juan San Martin eibartar idazleak *Uhin berri* izenez bataiatu zuen lan bilduma, aldizkarietako idazle berrien lanak liburu batean bilduz 1969an.

Juan San Martinen antologiari arretaz erreparatzea komeni da, zeren, garai jakin eta labur bateko produkzioaren antologiek ohi duten moduan, San Martinen *Uhin berriak* hogeita bost poeta bildu zituen, 1930az geroztik sortuak eta 1963 eta 1969 artean plazaratuak. Aldi jakin bateko euskal olerkigintzaren poetika berri bat eman nahi zuen ezagutzera antologia horrek. Liburu batean eta sorta berean bildurik, testuok joera berri baten lekuko bilakatzen ziren eta joera berri horren existentzia materializatu egin zuten. Martin Ugaldek *Zeruko Argia* aldizkariko bere iruzkinean adierazi zuen moduan, «era berrikoa» izatea hartu zuen irizpidetzat San Martinek, «bai egin-bidean eta baita protesta-giroari dagokionean ere» (1970: 6).

Ibon Sarasolaren *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964* antologia osatzera eta bermatzera zetorren Juan San Martinek eginiko iragarpen lana: poesia modernoaren etorreraren urratsak ilustratu zituen, izan ere, bere antologiaren amaiera datatzat hautatu baitzuen San Martinen antologiaren hasiera data: 1964. Izenburuak berak iragartzen duen moduan, epe jakin bateko poesia, «gudaosteko poesia» du objektu gisa. Gisa horretan, guda aurretik abiatutako bilakaeraren urratsak markatu gura zituen, aldi literario berri baten etorrera iradokiz. Zein dira, bada, azpimarratu zituen urratsak?

Lehen mugarria, poesia jasoa herri poesiatik banantzea izan zela iradoki zuen Iratxe Retolazak. Are gehiago, Sarasolaren antologiaren lehentasun-tzat azpimarratu zuen irizpide hori:

Aunque en un primer acercamiento parezca que esta estructura cronológica busca narrar la evolución estética de la poesía vasca, no parece ser esa su intención. Cara a esa visión moderna de la poesía que se estaba imponiendo en la década de los 60, Sarasola pretende acotar el terreno de la poesía culta, uno de los importantes criterios de selección de la visión moderna de la literatura, dibujando ya unos límites claros entre poesía popular y culta (2007: 23-24).

Asmo «moderno» horren ildo berean jarraitu zuen, Retolazaren iritziz, Joan Amenabarrek ere *Euskal poesia kultoaren bilduma* (1880-1963) liburuan (1983). Amenabarren antologia Lore Jokoetan Emeterio Arresek aurkezturiko testuetatik abiatzen zen eta Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* arteko aldiko testuak hautatu zituen, aldi horretako testuen ezaugarrien kidetasun gisa «kultua» izatea azpimarratuz, eta Gabriel Arestik zekarren berrikuntza linguistikoa, metrikoa eta tematikoen ondorioz aurreko aldi hura amaitutzat joz (Retolaza, 2007: 24).

Gudaosteko euskal poesiaren antologietan egin den testu eta egile hautaketak gudaosteko poesiagintza kultua bermatu du, eta tematikoki nahiz linguistikoki modernotzat jotzen denari eman dio lehentasuna. Horren lekuko dira, bai San Martin (*Uhin berria*, 1969), bai Ibon Sarasola (*Gerraondoko euskal poesiaren antologia* (1945-1964) (1973). Ondotik etorri ziren antologia itzuliek ere poesia modernoa hartzen dute objektutzat, Jon Kortazarrek katalanez argitaraturiko *Reduccions*, (nº 22, 1984) eta gero gaztelaniara eginiko antologietan (1995, 2000, 2002). Geroztik, Iñaki Aldekoak gaztelaniara (*Antologia de la Poesía Vasca. Euskal poesiaren antologia*, 1991), nahiz Fabio Aris-timunhok portuguesera (Sao Paulo, 2008), Salome Gabuniak georgierara (Tbilisi, 1991), Ciril Bergles-ek eslovenierara (2008), M.J. Olaziregik ingelesera (2007) eta, azkena, Manuela Palacios-ek ere ingelesera (2012) eginikoak.

Juan San Martinen edota Ibon Sarasolaren antologiek bezala, «era berriko poesia» edo «poesia modernoa» aurkeztera eta bermatzera jo zuten trantsizio-ko antologoez ere, eta euren testu antologietan 1950-60ko hamarkadan har-

tu zuten oinarri, Federiko Krutwig, Jon Mirande eta Gabriel Arestiren lanak bilduz, baina jadanik aldi haren kanonaren epaia osatutzat ematen zutelarik.

Poesia modernoaren definizioa osa lezaketen ezaugarriez hausnarketa eginez gero, lehenik, arestian Martin Ugaldek aurreraturiko bi irizpideak oroitu behar ditugu: «egin-bidea» eta «protesta-giroa». Bestela esanik, Ugaldek poema modernoan ezaugarritzat seinalatu zuen berezitasun formal gisa hizkuntzaren estandar hiritarra, eta bestetik, enuntziazioaren taxu kritikoa azpimarratzen zuen, inkonformismoa. Funtsean, jadanik Ugaldek azpimarratu du uhin berriaren «berritasuna» zertan aldendu den gudaosteko ordura arteko idazleetatik, kultura hiritar garaikidearen ezaugarriekin bat egiteko ahalegina deskribatuz. Juan San Martinen edota Martin Ugaldere iritzi horiek oso zabal hedaturik aurki genitzake belaunaldi hartako partaideen artean. Aski da, esaterako, Hasier Etxeberriak Anjel Lertxundiri eginitako elkarrizketa irakurtzea, haren gaztaroko euskal giroan euskara batua-ren inguruan batu zirenen identitatea, gudaostean euskararen mundua patrimonializatua zuen abertzaletasun tradizionalaren eta Elizaren aurkako-tasunean eraiki zela. 1969an Batasunaren Kutxa izeneko manifestuaren sinatzaileek hizkuntza berri baten beharra aldarrikatzen zuten, jarrera monopolizatzaile eta euskararen unibertso murriztailearen aurkako jarrera hartuz (Etxeberria, 2002: 186-187).

Antologia modernoan irizpide izan ziren argumentuetara joz, interesgarri da Iñaki Aldekoak Visor-entzat eginiko antologiaren hitzaurrean dioena gogoratzea, fokua eskaini baitzien, bere ustez, «a aquellos poetas que han influido con una voz convincente en la trayectoria moderna de la poesía vasca» (1986: 11). Izan ere, Aldekoaren iritziz, XX. mendeko lehen erdiko euskal poesia «estuvo muy alejada de los centros de irradiación de la tradición moderna» eta «placida marginalidad» batean bizi zen. Hitzaurre horretan bertan aditzera ematen duenez, ordea, Xabier Lizardi edota Lauaxetaren lanak salbuespentzat hartu behar dira, berauek izan baitziren «los creadores de los dos mejores poemarios de la preguerra *Biotz begietan* (1932) y *Arrats beran* (1935)».

Horrenbestez, Aldekoaren hitzaurreak dioena bat dator gerora euskal literaturaren historian gudaurreko olerkarien kalitatearen aitormenarekin,

baina argiro esan duen moduan, Ibon Sarasola edo Jon Kortazarren ildo beretik, lehentasuna eman nahi dio euskal poesian modernitate europarren sarreraren iragarle den poesiari, horri aitortzen baitio zinetako interesa.

Modernitatearen kalitate balio hori bereziki atxikitzen zaio bizitza hiritarraren, kezka existentzialen eta ni indibidualen adierazpenari. Azalpen-irizpide horren arabera, modernitatea ni indibidual batek esaten duen mundu ikuskera bat da: inguruko errealitateaz inkesta subjektibo eta kritikoa egiten duen nor poetiko baten agerpena da, eta hori gure olerkigintzan Jon Miranderen obraren eskutik heldu zen 1950-1953 artean, bera izan baitzen Aldekoaren hitzetan esateko «el autor que aportó un impulso decisivo en la renovación de nuestra poesía» (1993: 12).

Sarasola, Kortazar edota Aldekoaren hautuek gudaosteko poesia modernoaren kanona eraiki dute norbere sasoian, lehenik antologiaren bidez, eta ondoren historiak idatziz. Esan beharrik ere ez dago, liburuaren argitaratze data hurbiltzen direla hautaturiko azken testuak hiru kasuetan, eta euren artean ia hamar urteko tarte zegoela, antologiaren eguneratze funtzioa azpimarragarri eginik. Hiru antologiaren sarreraren arteko alderaketa eginez gero, berriz, zenbait ondorio atera genitzake. Hala, Ibon Sarasolarenak ezagun du gudaosteko garai zailekiko hurbiltasuna, izan ere, antologia egin izateko arrazoitzat argiro azaltzen baitu euskal sistema literarioaren prekaritatea. Bere hitzen arabera, 1945-1964 arteko zentsura frankistak atzerrian edo atzeratuta atera behar izan duen poesia berreskuratu du bere antologian, aldizkari suntsituetatik eta bazterrekoetatik batera bilduz. Giroak hoberantz egin du Jon Kortazar eta Iñaki Aldekoaren hitzaurreek adierazten dutenez, euskal poesia modernoaren bilakaeraren urratsak deskribatu gura zituzten biek eta egoera normalizatu batean, euskal literaturaren modernotasun homologagarriaren lekukotza eskaini nahi izan zuten.

Aldekoarenaz geroztik egin diren antologiek bide ezberdinak jarraitu dituzte: poesia Modernoaren antologia egintzat ematen dute eta Postmodernitateko aldiaren testu antologiari ekin diote. Datu interesgarria izan daiteke gogoratzea Jon Kortazarrek *A ponte das palabras. Poesia vasca 1990-2000* (2000) hogeitazazpi idazleren lanak aurkeztu bazituen ere, geroago *Montañas en la niebla. Poesia Vasca de los años 90* (DVD poesia, 2006) epe bereko sei idaz-

leren azterketa sakonagoa eskaini zuela, postmodernitatearen poetiken esparruan kokatuz. María Jose Olaziregik *Six Basque Poets* (Arc, 2007) olerki hautatuen eta itzulien argitalpenetan sei egiletara murriztu zuen bere aukera. 1975az geroztiko olerkarien testuak soilik hautatu zituzten biek, baina ez datoz erabat ados euren kanona eraikitzean: Kortazarrek Rikardo Arregi, Karlos Linazasoro, Juanjo Olasagarren, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe hautatu zituen. Olaziregik, aldiz, trantsizio garaiko hiru eta 1990az geroztiko beste hirurekin elkartzuz aurkeztu zuen poesia garaikidearen kanona: Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Felipe Juaristi, Rikardo Arregi, Kirmen Uribe eta Miren Agur Meabe. Badira adostasun zenbait, baina hartzen duten epearen hasiera-data ezberdinak –Olaziregik 1975 eta Kortazarrek 1990- ongi justifika dezake aldea.

Antologia aldi-sortzaileon atalari buruz argitasunez ikus genezake 1950etik aurrerako euskal poesian modernitate eta postmodernitate aldi literarioak finkatu direla, eta aldi horietako bakoitzean kanonean kokatu diren egileen izenetan aldeak egonik ere, antologiek finkaturikoaren ildotik osatu dela euskal literaturaren historia garaikidea. Azken batean, modernitateko eta postmodernitateko antologia egile garrantzitsuenen eta historia literarioaren egileen nomina kointzidentea izan baita, eta antologiak historiak baieztatuko duenaren aitzindari gisa heldu baitzaizkigu.

Jarraian, ordea, kanon hori eratu aurreko epe batera egingo dugu itzulia, Luis Mitxelena eta Luis Villasanteren euskal literaturaren historiek (1960, 1961) abiaraziko zuten euskal literaturaren ikuspegia baino lehenagokora, lehen euskal antologia orokorra egin zen garaira, eta, gaurko perspektibaz baliatuz, agerraraziko dugu faktore soziolinguistikoek literaturaren kalitate balioespenetan gure artean izan dituzten garrantzi handiaren ondorio historiografikoak.

3. Euskal antologia orokorrak

Euskal poesiaren antologia orokorrak ez dira ugariak, eta hezkuntzaren testuingurutik at, pare bat soilik. Euskal sistema literarioaren egoeraren zehaztasunei dagokienez, Santi Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* (1954) instituzio akademikoetan euskal literaturaren ikasketak ezarri aurreko egoe-

rari dagokion egitasmo editoriala izan zen, eta helburu jakin bat betetzeko proiektu nazionalari erantzuten zion. Onaindiaren antologiak euskal literaturaren corpusa batera aurkeztu, eta, haren balioa eta kalitatea erakutsiz, euskarari berari prestigioa ematea bilatzen zuen. Hizkera sistemikoa erabiliz, kapital sinboliko hura erakutsiz, euskal kulturaren izaera bera aldarrikatzea zen Onaindiaren asmoa, lehen frankismoaren urte ilunetan. Horrexegatik, formatu dotorean argitararazi ziren mila eta hamaika gehiago «olerki eder», historia batean bezala kronologikoki antolaturik, eta karmeldarraren bera- ren sarrera pasarte goraiatzaileez.

Santiago Onaindiak *Milla Euskal Olerki Eder* (1954) euskal poesiaren antologia zabala argitaratu aurretik, bizpahiru azterlan historiografiko orokor ezagutzen ziren XX. mendean: Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* (1922-1927) eta Piarres Lafitteren bi azterlan: lehena, 1930eko *Euskaldunaren loretegia* XVI. mendetik hunateko liburuetarik bildua eta bigarren lana, 1942ko Iparraldeko euskal literatura- ri buruzko hitzaldi baten inprimaketa izan zen: *Les basques et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1942).

Jakina denez, Lafitteren antologia egitasmoa erdibidean geratu zen, lehen atala, 1800 artekoa soilik argitaratu ahal izan baitzuen, arazo ekonomikoak medio; Santi Onaindiak antologia egiteko asmoa hartu zuenean, bai Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren eta bai Piarres Lafitteren aholkua eta laguntza jaso zituen bere mila olerki eder horien edizioa egiteko, baina ez da liburuaren kredituetan inolako aipamenik jasotzen. Arrazoi nagusitzat aipa genezake bai Lafitteren eta bai Orixeren poesiak zabalki ordezkatura zeudela antologian, eta ez zela egoki hautatzaile eta hautatu izatea aldi berean. Arrazoia hori izan zela baieztatzeko lekukotza idatzirik ez dugu ezagutzen, baina hala izan zela ondoriozta genezake zenbait gertakariren ondorioz. Batetik, erreparatu behar diogu Orixek idatzi zuela liburuaren ohorezko hitzaurrea, eta euskal poesiaren autoritate gisa eginiko aitormen hutsa baino esker emate inplizitu bat izan daiteke. Orixek Onaindiari 1953ko azaroaren 10ean, abenduaren 10ean eta 12an, eta 1954ko urtarrilaren 26an eginiko gutunetan ikus daitezke zenbait testu finkatzeko eginiko ahaleginak, hautatzerakoan erabili zituzten irizpideak eta izandako zalantzak (Paulo Iztueta- ren edizioa, 2006: 309).

Ikus daiteke, gisa berean, Orixeren aholkularitzaren lan baldintzak zernolakoak izan ziren. San Salvadorreko Zaragozatik erantzuten zituen Onaindiaren gutunak, eta kontsultak egiteko liburutegiaren falta deitoratzen du etengabe: «Bi bider irakurri dot aurkibidea eta ageri danez, diranak eta ez diranak batu dozuz liburugei ortan. Ni, beti lez, liburu barik eta nire oroimenaren mende, ez nadike baitaratu zenbat uts dauden olerki ixilduenak.» (Iztueta, 2006: 318).

Gisa berean, irakur genezake gutun horietan Orixeren iritzi zorrotz zenbait Onaindiak eginiko hautuaz eta, banaka harturik, bertsioren alderaketa eta iruzkinez Onaindiari emandako aholkularitzaren berri. Hona esaterako, balorazio orokorra egin ezanikoa:

Osterantzean, ez neuke esango gure Bilbilitarragaz «sunt mala», baina bai nere gardiz, «sunt mediocria multa». «Sunt bona» ere bai, eta asko. «Aliter non fit. Avite, liber». Baiñan erdi erdiko orreik baiño kaxkarragoak ageri dira este errietako lorategietan (Anthologietan). Orreik bere, euren mendeko barri emoten deuskue (Iztueta, 2006: 103)¹.

Piarres Lafitteren laguntzari dagokionez, aldiz, Xipri Arbelbidek (1999) haren biografian dioenez, XVI. mendetik bere sasoiara arteko testurik aipagarrienaren urrezko orrien bilduma prestatua zuen gudaurrean, baina osorik argitaratu beharrean, Baionako Lasserren inprimarazi zuen lehen atal bat, 1800 arteko sorta, baina lehena batere saldu ez izanak bigarrena argitaratzeko asmotik gibelarazi zuen. Horretaz gain, 1944an agertu zuen «Kantuz» izeneko testu bilduma, haren segidan «Errepikan» izeneko bilduma etorri zen eta azkenik, ospetsuena, 1967ko «Kantu, kanta, kanthore» 370 kantu bilduz. Horregatik, Aita Onaindiak laguntza eskatu zionean bere mila olerkiak hautatzeko, osoki bere gain hartu omen zuen Iparraldeko testuen bilduma osatzeko ardura (Arbelbide, 1999: 24). Hortaz, beharbada ez da apal-

¹ Pasarte honetan Orixek Bilbilis hirian sorturiko Marcial idazle latindarraren 57. epigramaren zehar aipamen ironiatsua egiten ari da: «Sunt bona, sunt quodam mediocria, sunt mala multa. Quo legis, hic: aliter non fit, Aviter, liber». Itzulpena: Irakurtzen ari zaren liburuaz ezer gutxi diotsut, badu onik, badu zerbait erdipurdikorik, eta eskasetik asko. Avito, zati horiez osatzen da haxe ere, zeren liburuak ez dira bestela egiten, horrelaxe baizik».

tasun falta Lafitte beraren zortzi poema aurkitzea mila olerki horien artean. Susmoa izatekoa da Santi Onaindiak bere aholkulariei kredituetan egin ezin izan zien aitortza, haien poemak antologian sartuz egina izatea: Jean Barbier, Jules Moulier «Oxobi» edota Xabier Dihartze «Iratzeder»en parean kokatu zuen Lafitte, haiei adina poema esleituz.

Baina, zer dela eta hartu zuen Onaindiak antologia handiaren asmo hori? Santi Onaindiaren izena gudaosteko olerkiaren munduarekin loturik ze-
goen alde askotatik: bera olerkaria zen, baina ospetsuago zen olerkarien bultzatzaile eta olerki-aldizkari baten sortzaile gisa. Euskal gizartearentzat esanguratsu izango ziren beste zenbait elizgizonekin batean, Aingeru Sukia edo Jose Maria Arizmendiarieta bezala, euskal literaturaren une esanguratsuan hasi zen idazten Onaindia, eta Euskal Pizkundearen garaiko «olerkari-
ek» bere lanik ederrenak ezagutzera eman zituzten sasoian plazaratu zituen bere poemak: *Euskal Esnalea*, *Karmen'go Argia*, *Pyrenaica*, *Ekin*, *Yakintza*, *Eguna* eta *Euzkadi* aldizkarietan eman ziren ezagutzera. Gerra hasi zenean, berriz, gudarien apaiz kapilau izan zen Euskal Herriko kanpainan barrena. Guda ondoren, kartzelan egon zen hiru urtez, eta gero deserriatua eduki zuten. 1951n itzuli zenean Euskal Herrira, *Karmen'go Amaren Egutegia* izenez birsortu zuen karmeldarren euskal aldizkari zaharra, 1957tik aurrera *Karmel* aldizkaria izendatzen dena. Beraz, pertsona ezaguna zen euskal poesiaren esparruan. Antologia burutu eta gero ere, euskal poesia garaikidearen sustapenerako argitaratu zuen *Oleriti* aldizkaria (1959), bereziki aipagarria hartu zuen hedaduragatik eta eskaini zuen plataforma zabalagatik; izan ere, bere bi aldietan, 1959 eta 1995 artean, batez beste, 1.950 olerki eta bertso-
lan inguru eta 350en bat olerkariaren lanak eman zituen ezagutzera. Gehie-
gikeriarik gabe esan daiteke Onaindiak olerki-mugimendu bat sortu zuela *Oleriti* aldizkariaren bidez, gazte asko olerkigintzara bultzatuz.

4. *Mila euskal olerki eder* (1954)

Onaindiaren antologia zabala 1.200 orrialdeko alean inprimatu zen Zarauzko Itxaropena argitaletxean, eta proiektu editorial oso sendoa izan zen. Halere, lehenik bere zabaltasuna aipatu badugu ere, bere funtzioagatik dugu

batez ere interesgarria; izan ere, euskal liburuen gabezia gorrian gudaosteko belaunaldientzat testu iturri garrantzitsu bilakatu baitzen. Horregatik, zailantza handirik gabe, euskararen historian arrakastarik handiena jaso izan duen liburutzat izendatzea ez da berez ausarkeria izango, testu falta nabaria bizi zen sasoian batera bilduta eskaini zituelako euskal poesiagintzaren emaitza gailenenak.

Ez da hain kontu ezaguna Onaindiak arazo ugari izan zituela zentsurarekin antologia nahiz *Oleriti* aldizkaria zirela eta. Xeheki azalduta dago Ibiñagabeitia proiektuaren web orrian², *Oleriti* aldizkariaren aurkezpen lerroetan poliziak 1955eko martxoan dendarik denda jardun zuela *Milla euskal olerki eder* liburuaren edizioa bahitzeko aleak konfiskatzen. Onaindiak lortu zuen, halere, argitalpenaren zati bat salbatzea eta zabaltzea. Garaiko zentsura legearen arabera, derrigorrezkoa zen argitaratzeko baimena eskatzea, baina Onaindiak intsumisioaren bidea hartu zuen eta ez zuen tramitea bete, ez antologiaren kasuan eta ez *Oleriti* aldizkariaren kasuan ere. Baimenik gabe argitaratzen zituen, bere adierazpenen arabera, ba omen zekielako alde zuretik baimenik ez ziola Gobernuak emango, eta horregatik «Suplemento Poético de Karmel» jarri omen zion bigarrenari estalgarri gisa eta baimenik eskatu gabe atera. Sei-zazpi bider izan zituen poliziak horrexegatik bisitan, Manuel Fraga Iribarne ministroaren debeku behin betikoa jaso zuen arte, *Oleriti* gehiago ateratzea debekatuz.

Liburuaren lehen irakurleek ere halaxe hartu zuten. Besteak beste, Andima Ibiñagabeitiak egin zion iruzkin kritikoan liburuaren balio aldarrikatzaille hori ikusi zuen, eta bere ustez, liburuaren alderdi kaskarrak zirenak aipatu ondoren, honela amaitu zuen:

Dana dala lan izugarria ta bear bearrezkoa Aita Onaindiak egin diguna, atsandiko lana gaiñera. Nola gure elertia beztu ta murriztu ibili zaizkigu erdal idazleak eta aien besotik euskal idazle ez gutxi (erderaz idazten duten aietakoak esan nai dut). Unamunok esan zula, urliak idatzi zula, eta guzien gaiñetik, Menendez Pelayok ialki zula... (...) Euskeraren oraingo etsaiak ederregi aurkitu dute nunbait

² <http://andima.armiarma.com/oler/index.htm> [2014-08-06].

liburu au, eta saltzea galazo dute. Ez dute nai euskera aberatsegi,
beren izkuntzak bezin oparo agertu dedin (Ibiñagabeitia, 1955).

Onaindiak hitzaurrean zioen moduan, euskal olerkia bazegoela frogatzea zuen asmorik nagusiena, eta horretan apologisten tradizio zaharra jarraitu baizik ez zuen egin. XVIII. mendean geroztik euskal testuen aurkezle guztiek borrokatzen duten mamuaren aurkako legitimazio argumentu sendoa aurkeztu nahi zuen Onaindiak. Ildo berean eta mende bat aitzinago, Larramendiren etsai berarekin borrokan egin behar izan zuen Jose Manterolak ere 1888ko bere *Euskal Kantutegiaren* hirugarren alearen hitzaurrean, euskal poesiaren existentzia bera zalantzan jartzen zuten Padre Marianaren jarraitzaileen aurka ziharduela azalduz: «Háse dicho hasta la saciedad que los bascongados no tienen literatura propia especial, no ha faltado quien ha negado a nuestro hermoso idioma (...) condiciones para la poesía...» (1880: VI).

Santi Onaindiak XVIII. mendean geroztik zetorren euskal literaturaren pobretasunaren eta euskal hizkuntzaren poesiarako ezgaitasunaren argudioez gain, guda aurretik, Miguel Unamunok gehituriko iritzi ezkorrak zituen akuitlatzaile. Jose Manterolarena bezala, apologisten tradizio larramenditarrari lotzen zaio Onaindia, ezinbestez, eraso sinbolikoak hor ziraueko, hots, bai euskara eta bai euskal literatura kuestionatuta zeudelako eta gaur egun ere kuestionatuta jarraitzen dutelako, neurri handi batean. Horrela betetzen da Ikasketa Kulturalen ildoan jakina den irizpide nagusi bat, hots, boterean dagoenak beti egiten diola azpizana kategoria subalternoan daukan komunitatearen errepresentazioari (Van Dijk, 1999), hain zuzen ere boterean dagoenaren diskurtsoak badituelako baliabideak subalternoaren praktika diskurtsiboak neutralizatzeke eta ahultzeke. Alabaina, Ikasketa Subalternoak gai izan dira erresistentzia egiten duten diskurtsoek garaturiko dinamika askatzaileak agertzeke ere, zeren, Gayatri Spivak-ek «Can the subaltern Speak?» ospetsuan esan zuen moduan (1994: 66-111), inongo kulturak ez du ezberdin eta menpeko iraun nahi; aitzitik, «ezberdin» izateari uzteko ahaleaginean dihardu etengabe, eta mendealdeko kultura determinazio geopolitikorik gabeko jakintza edo arte eredutzat naturalizatzen denarekiko lehia beti desorekatuan segitzen du.

Egiaz menpeko ez izateko diskurtso legitimatzaileak ibilbide luzea du gure artean. Besteak beste, eta aipaturikoez gain, apologista izendapenetik kanpo

ikusi ohi ditugun idazleek ere horren arrasto nabariak erakusten dituzte. Hala, Pizkunde garaian Jose Ariztimuño «Aitzol»ek *La muerte del euskera*³ izeneko saiakera argitaratu zuenean Migel Unamunoren nahiz Pio Barojaren erasoei erantzunez, aipatu zituen argudioen antz-antzekoak etorri zitzaizkion gogora Santi Onaindiari ere bere hitzaurrean. Euskal literaturaren prestigio falta, tradizio bat eratzeko produkzio jarraitua osatu ezina eta babesle edo mezenasgorik eza aipatu zituen, hurrenez hurren. Horiexen hutsunea bete nahi izan zuen Antologia handiak, euskal tradizio literario osoak eman zezakeena bilduz: hala ahozkoa nola idatzia, hala herrikoia nola kultura.

Bereziki interesgarri dira hizkuntza eta literaturaren egoera soziolinguistikoaren dependentziaz eta prestigioa nahiz legitimazioa eskuratzeari buruz, ondoko bi artikuluetan Josu Bijuesca irakasleak emaniko azalpenak: «Literatura eta mezenasgoa XVI. eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren «Vuestra Merced»-en aitzakiaz» (2010a) eta «Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain*» (2010b), zeinetan euskal literaturaren sistemaren eraketaren sorrera zailtasunak aztertu dituen, dokumentazioaren azterketa xeheaz. Alde horretatik, beraz, Aitzolen, Onaindiaren edota Atxagaren adierazpenek etenik izan ez duen deslegitimazio sinboliko baten aurkako lehia zaharraren lekukotza ematen dutela baieztatu genezake.

Onaindiaren kasuan, euskal literaturak hizkuntza zentsuraren muga ere bazuen aurrean tinko. Espainiar nazioaren batasunari «traizioa» egiteagatik zigortutako hizkuntza-komunitate baten literatura produkzioa baitzen. Ez da dudarik, guda aurretik garaturiko euskal sistema literarioaren osagai guztiak suntsituak ikusteak berebiziko inpaktua eragin zuela gudaosteko kultur eragileen animoan. Haien jarrera erresistenteen ereduak eta iturriak gudaurreko Pizkundeko belaunaldiak garaturiko poetikan eta diskurtso kulturaletan babesten ziren, haietan hartzen zuten arnasa, baita hogeitaz joanda gero ere.

Horregatik, Orixeren bi orrialdeko ohorezko sarreraren ondotik, Onaindiak «Ataria» izeneko hitzaurrean literatura-gertakariei buruzko hausnar-

³ *El Dia*, 1931, azaroak 31, 5 or.

keta teoriko pertsonala agertzerakoan, gudaurreko Pizkundean indarrean egondako irizpide soziopolitiko berberetara jo zuen. Zehatzago esateko, Aitzolen hitzak aipatu zituen xeheki 1930eko *Eusko olerkiak* liburutik hartuta, poetaren funtzio nazionala azpimarratuz, eta gisa berean, 1959ko *Oleri* aldikariaren lehen alean, Lizardiren hitzak ekarri zituen lehen planora zehar-aipamenez, bereziki olerkariak nazio pizkundeetan duten betebeharrak garrantzitsuak ari den atalean: «Aberri aldeko gogo-gudari-sailletan olerkaria beti da leen-oiñean» (1988: 309-311).

Onaindiaren iritzi literarioak Pizkundeko poetikaren ildo nagusietan oinarritzen dira, eta ondorioz, funtzio nazionalaz gain, funtzio soziolinguistikoa aitortzen zioten literaturari olerkariak. Lizardiren hitz berberak aipatu zituen diskurtso hori formulatzean ere: idazleen lanak eragin handia izan zezakeen hizkuntzaren berreskuratzeko eta prestigioa lortzeko lanetan. Hortaz, Onaindiaren antologia handiaren azken helburua erresistitzea eta subalternizazioari eustea ziren. Larramendik indarrez adierazitako huraxe bera: ezina ekinaz gitea.

Apur batez hitzez beste eginez, uste dut argigarri gerta daitekeen azalpenak lagundu diezagukeela erlazionatzen Onaindiak ikusten zuen paisaia eta gaur egungo idazleek trantsizio garaiaz adierazten dutena. Izan ere, euskal literaturaren instituzionalizazio prozesuak eta sistema literarioaren sendotzeak ekarritako abantailak gorabehera, 2009an Bernardo Atxagak Neuchâtel-eko Grand Seminaire-en adierazitakoak oroitarazten digu, borroka berean jardun behar izaten duela subalternitate atera nahi duenak:

De la imposibilidad de las literaturas que tienen como primera base una lengua minoritaria, poco cabe explicar. Es evidente que una institución literaria necesita de un número mínimo de lectores, y que lo único que puede existir por debajo de ese umbral es un ente más bien fantasmagórico, con libros de existencia más aparente que real, y con un desarrollo sin élan, sin impulso propio, subordinado a tal o cual política. (2011: 14).

Larramendiren «ezina» pertsonifikazio baten bidez gauzatu zuen Atxagak hitzaldi hartan, «hircocervo» animalia mitikoarekin irudikatuz. Hala, noiznahiko hizkuntza minorizatuetakoa idazleak mendez mendez piztia mitiko

harekin lehia gogorrean margotu zituen. «Hircocervo»a, akerra eta oreinaren arteko animalia kimerikoa, euskara bezalako hizkuntzan idazten duten idazleek duten etsaia da, eta biziki aldakorra den piztia multiformearekin egin behar duten borrokara deituak daude:

Cambia de tamaño, de fiereza, de cuernos, dependiendo de las circunstancias de cada época. Sería temible en el siglo XVII, y el mismo Axular –padre de las letras vascas- se queja de ello en el prólogo a su libro *Gero*, es temible también hoy, porque la misma literatura (...) tiene problemas a la hora de introducirse en la sociedad, pero en la época en la que yo empecé a publicar, comienzos de los setenta, el hircocervo atacaba con especial furia, no daba tregua. Era como se sabe, la época de la dictadura del general Franco, y el uso público de la lengua vasca era problemático. La posibilidad de publicar un libro era mínima. (2011: 14).

Zorionez, berrogei urte joan dira Atxagak lehen urratsak eman zituenetik eta gurean urtero 2.000 liburu argitaratzen dira, horietatik 300 inguru literatura arlokoak. Atxagak modu adierazgarrian esan zuen moduan, «el imposible, el hircocervo, esta siendo vencido, o al menos toreado» (2011: 14).

Hirurogeita hamarreko hamarkadako zailtasunei buruzko Atxagaren hitzetan, badago gazte eta gudaren esperientziarik ez zuen belaunaldiaren aisetasuna. Aldakuntzen haizea usaintzeko gai sentitzen ziren, nahiz eta Euskal Herriko eta orokorrean estatu osoko kultur esparru meharak urtetako atzerapena jasaten ari den. Atxagak aipaturiko Allan Ginsberg-en «Howl» poema, esaterako, Santi Onaindiaren antologiaren garaikidea zen. Baina ez zen gaztelaniara itzulia izan eta Estatuan ez zen ezagutu 1970 arte. Horrek erakusten du penintsulako kultur isolamendua norainokoa zen Barnatanek *Antologia de la beat generation* (1970) argitaratu zuenean.

Aldiz, irakurketa kultural batetik ikusita, Santi Onaindiaren antologia irakurri eta gudaoste ilunaren zentzuaz inprimatua nabari dezakegu. Bereiziki Onaindiaren eta Orixeren lerro arteetan, hogeitaz lehenago hautsia zen dinamika kulturalaren oihartzun urrun eta akituak sumatzen ditugu, eta haien diskurtsoek ere eusteko indarra egin duten giharren trenkadura adierazten dute, paralisia.

Izenburuaren gaiari helduta, ezinbestekoa da gogoan hartzea Onaindiaren antologiaren funtzio larramenditarra. Esate baterako, zer dela eta mila hautatu, eta ez ehun edo berrogeita hamar? Zein irizpide zuen gogoan? Atarian emaniko azalpenen arabera, irizpide nagusi gisa «ederzaletasuna» aitortzen zuen Onaindiak, «barne-ikaraz eta adimen suz eder» diren testuak hautatu zituela (Onaindia 1954: 29). Baina beste batzuetan, testuen antzinatasunari zor zaion errespetuagatik hautatu zituela aitortu zuen. Azkenik, beste batzuen kasuan, eder izatera iritsi ez arren eta antzinakoak ez izan arren, «estilo edo idaztankera aipagarria» zutelako aukeratu zituen (Onaindia 1954: 29).

Arrazoibide horiek irakurrita, erraz ondoriozta genezake Onaindia bere antologiak izan zezakeen funtzio kanonizatzaileaz jabetua zela. Euskal poesiaren historia bat «idazten» ari zela «de facto»: «Ez naiz, gaiñera eder billa bakarrik ibili; nire lenbiziko saioa ori zan arren, iñoren esanari ekin diot gerora, ta euskal elertiarren edesti antzera egiteko esan didate, gure olerkari, edo behintzat geienen bertsoak aldiz-urren aukera ta sarturik: horrela egiten ahalegindu naiz» (Onaindia, 1954: 29).

Gogoan izan behar da euskal literaturaren historia idazteko zegoela, artean. Bi maisu aholkularien saio laburrak hartu zituen abiapuntutzat, Nikolas Ormaetxea «Orix»-ren *Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra* (1922) eta Piarres Lafitte'-ren *Euskaldunen Loretegia. 1500-1800* (1930) eta, guda ondoren, lapurtarrak argitaraturiko kantu bilduma eta Iparraldeko literaturari buruzko saioa.

Abiapuntu hori ezagututa, Euskal Pizkundearen testuinguruan idatziriko bi historia horiek eta hogeitaz urte ondorengo *impassearen* ondoren heldu zen Onaindiaren antologia lanak harremanduta ikusten ditugu. Hala, Onaindiaren antologiaren «Atari»-koan, euskal olerkigintzaren bilakaeraren historia bat finkatzen da, gutxiago edo gehiago, eta liburuak betebeharreko funtzio hezitzailea eta dibulgatzailea betetzen du. Halere, aitortu behar da bere maisuena baino lausoagoa dela bere planteamendua, izan ere, XIX. mende erditik aurrerakoan aldiak edota ezaugarriak banatzeko irizpide garbirik ez du zehazten. Izen andana eman arren, izenik aipagarrienak bereizteko argitasunik ez daiteke aurkitu atal horretan. Nabaria da testu ugaritasun handiagoaren lekukotza ematea hobetsi duela, testu aipagarrienak azpimarratu

ordez. Kopuruaren pisua darabil argudio gisa, baina kalitateari buruzko irizpidearen lausotasunak aldarazi dion epitetoaren ñabardurak atal honetan dira esanguratsuen; izan ere, Onaindiaren eta Orixeren arteko gutunetan suma daitekeenez, «hoberenak» delakotik «ederrenak» esatera eta, azkenik, «eder» soilean uztea erabaki zuen, zuhurki.

Bestalde, ortografiaren arloan hartu zituen erabakiek ere dibulgazioko testu bat irudikatzen dute. Testu zahar eta berriei, Iparraldeko nahiz Hegoaldekoiei batasun ortografiko bat ezarri zien. Argi eta garbi, testuen edizio dibulgatzailea eta didaktikoa bideratu nahi zuen Onaindiak, asmo filologiko edo akademikorik gogoan hartu gabe, gerora, hezkuntzarako asmoz egin diren beste antologien ildo berean.

5. Euskal parnasoa?

Genero poetikoaren kanonari dagokionez, Onaindiaren antologiaren zabalatasunak zenbait poetaren Parnasoa osatu eta kontsakratzeko bidea ireki zuen, baina beste askori aipamen hutsa besterik ez zien eman. Nola da hori posible, egile ezezagunen testuez gain, 300 idazleren testuak bildu zituela jakinik? Erantzuna da proportzionaltasunaren erabilera esanguratsua hautatu zuela, idazle garrantzitsuagoen testu gehiago jasoz eta garrantzi gutxiagokoen presentzia testimoniala bakarrik eginez. Hona hemen banaketari buruzko zenbait azalpen: lehen-lehenik, 140 herri-olerki anonimo jaso zituen. Horiei antologian eta literatura klasikoa deritzogun XVI-XIX. mende artekoa erantsirik, nekez iristen dira, biak batera ere, antologiaren %20 izatera. Beraz, kenketa sinple bat eginez nabaria da euskal olerkigintzaren hiru laurden, XIX. eta XX. mendeetako testuez osatu zuela. Are zehatzago esanik, XIX. mendeko ugaritasunaren (ia 300 poema) eta aurreko hiru mendeetako 200 artekoaren arteko aldeak euskal produkzioaren alderdi ezagun baten berri ematen du: XIX. mendeaz aitzineko euskal literatura idatziaren emaria urria zela. Euskal literaturaren historia sozialak azpimarratu duen moduan, 1876tik aurrera nabarmentzen da testu idatzien ugaltze azkarra (Torrealдай, 1997: 56).

Onaindiak zailtasun nabarmenak izan zituen testu erromantikoen artean hautu zorrotza egiteko, eta horren arrazoia erromantizismoak bere zaletasun

poetikoarekin zuen harreman estua izan daiteke. Onaindiaren hautamen kritikoan nabaritzen dugun muga-lausotasun bera pairatu dute haren ondoren testu antologiak burutu dituzten gehienek ere: antologoak bere poetika propioaren eragina eta perspektibaren kutsadura ezin ditu gainditu. Horren ondorioz, antologiaren bigarren erdia XX. mendeko testuez osatu zuen: 500 baino gehiago dira 1900-1954 arteko testuak Onaindiaren antologian. Horietatik, erdiak baino gehiago gipuzkoarrak dira, idazleen ia mostra soziologiko proportzionala, Juan Mari Torrealdairen datuen arabera (1977: 407-414).

Interesgarria da, era berean, emakume idazleen errepresentazioa nolakoa den Onaindiaren antologian: gaur egun ezagutzen ditugun emakume poeten errepresentazio ia osoa ematen du: Bizenta Mogel, Rosario Artola, Sorne Unzueta «Utarsus», Errose Bustintza «Mañariko», Tene Muxika, Pantzeska Astibia, eta Pantzeska Pagadizabal «Onintza». Guztiak izendatzen ditu eta haien bizpahiruna testu eskaintzen.

Irizpide linguistikoei dagokienez, Onaindiaren antologiak hizkeraz garbi eta aberatseko idazleak kontsaktatzen ditu: Lore Jokoetan estilo herrikoi eta zaindua erakutsi zuten idazleak dira eredugarriak eta, haiekin batean, olerkarien poetikaren sortzaileak nahiz jarraitzaileak. Hala, Euskal Pizkundearen testuak bilakatu ziren Onaindiaren antologiaren muina. Aldiz, hain hizkuntz estilistikak izan ez ziren XIX. mendeko zenbait poeta ez ditu zabalegi errepresentatzen, hala nola, Jose Mari Iparragirre edo Indalezio Bizkarondo «Bilintx». Berez, haien lekuan gaur egun aherentziak ditugun hizkuntza estilistikak ageri dira aitzindurik. Beste horrenbeste esan daiteke, zenbait poeta garaikide eta sinbolistari uzten dien tarte urria kontuan hartuz gero, hala nola, F. Krutwig edo J. Mirande. Bazterketa horren salaketa egiten zuen A. Ibiñagabeitiak *Euzko Gogoako* bere erreseinan, eta arrazoien bilaketak antologian ezarritako zentsura moralaren inguruko ikerketara eramango gintuzke, zalantzarik gabe.

6. Lorategiaren planoa

Onaindiaren antologiaren egitura aztertuz geroz, jakina da, egileak azpiztituluan adierazi moduan, antolamendu kronologikoari eman ziola lehenta-

sunak. Halere, ahozko testuak datatzeko zailtasuna zela eta, lehen mailan kokatu zituen guztiak errenkan urterik zehaztu gabe, «Erri olerkiak» izenburua emanaz; amaieran, aldiz, bertsolari sonatuenak ere sartu zituen, testu bana edo birekin. Ondoren, literatura idatziaren antolamendu kronologikoari ekin zion eta XX. mendeko testu ugaritasunaren antolatzaile gisa, hizkeraren irizpidea hautatu zuen: bizkaiera, gipuzkera eta Iparraldeko sailak bereiziz.

Onaindiaren kanonean, XIX. mendearen bigarren erdiko eta XX. mendeko testuek liburuaren hiru laurdenak hartzen dituzte. Pizkunde deituraz baitaiatua den aroa dugu hori, Lore Jokoetatik, baina bereziki 1876tik 1936ra artekoa. Pizkundearen lehen aipamena Jose Manterolak bere kantutegiaren hitzaurrean iradoki zuen, «en el país bascongado se opera en los momentos actuales un verdadero renacimiento literario, que promete ser fecundo en resultados» (1880, VII). Nolanahi ere, Guda Zibila arteko epea izendatzeko erabiltzen bada ere, haren eraginpeko testuek gudaostean ere irautea zuten, esate baterako, Orixe edo Jokin Zaitegi bezalako autoreen lanetan.

Onaindiaren antologian egile bakoitzeko zenbat testu hautu zituen ikusita, erraz esan daiteke zein kanon poetiko eraiki zuen irizpide kuantitativoari erreparatuz. Kasurik nabarmenena hamabi testu baino gehiagorekin errepresentatuta dauden egileak dira: Jean Baptiste Elizanburu (23), Grazian Adema «Zaldubi» (13), Piarres Topet «Etxahun» (13), Estepan Urkiaga «Lauaxeta» (18) eta Xabier Lizardi (18). Beste idazle guztiei baino «espazio» zabalgoa eskainiz kotsakratu zituen bost egileok euskal idazle aipagarrientzat, irakurleak berehala interpretatzen baitu testu kopurua *excellencia* ikurtzat.

Bigarren maila batean, hamarna-hamaikana testu sorta duten idazleak datoz: (Iparraldekoak:) Etxepare, Oihenart, Gazteluzar, Ibarrart eta Lafitte. Horien pareko dira, poesia kopuruz, Hegoaldean, Mateo Zabala, Eusebio Azkue, Orixe, Zaitegi, Jautarkol, Eltzo-Azpiaz, Emeteri Arrese, Eusebio Erkiaga eta Nemensio Etxaniz. Gainerako berrehundik gora idazleek hamar testu baino gutxiago dituzte eta askok bizpahiru soilik.

Onaindiaren kanonak kotsakratzen dituen lehen bost egileen Parnasoak iraun egin du, funtsean, aldi horretarako, aski lausotu bada ere biga-

rrren mailan kokatu zituenen distira. Gaurko begiez ikusita, Onaindiak (eta bere aholkulariek) euskal olerkigintzaren eta haren harrera kritikoaren argazki fidela erakutsi zuten, osotara, nahiz eta argazki horrek handitua edo puztua dirudien. Izan ere, mila aurkitzearren sartu dituen zenbait egilek eta testuk ez dute gaur egunetik begira justifikaziorik. Ondorioz, emaitzak nolabaiteko distortsioa iradokitzen du: batetik, egileen hizkeraren dohainei, hizkeraren jatortasunari eta garbitasun eredugarriari emandako gehiegizko balorazioa agerian geratzen da; eta bestetik, poetika konpartituaren eraginarenean indarra sumatzen da behin eta berriro.

Onaindiaren antologiaren harrerari dagokionez, Orixeren *Euskaldunak* (1950) poemaren kasuan bezala, irakurle garaikideen iritziak banatu egin ziren haren aurrean; «1956ko belaunaldi berria» (Torrealdai, 1998: 127-137) edo Juan San Martinek «Uhin berria» bataiatu zuenaren etorrerak poetika modernoaren sartze indartsua hobesten zuen jadanik. Espero izatekoa zen moduan, Antonio Labaienek (*Egan*, 1954, 2-4, 43 or.) edo Andima Ibiñagabeitiak (*Euzko Gogo*, 1955-1-2 zb) Onaindiaren liburuaren baloreen aldeko iritzia agertu zuten; izan ere, Labaien bera izan zen gudaosteko asmo editorial haren bultzatzaileetako bat, Orixeren *Euskaldunak* (1950) poemaren edizioaren bultzatzaile izan zen gisa berean. 1950etako bi lan handinahiek dakarte gudaurreko asmoen izpiritua, Jokin Zaitetik *Euzko Gogo*ako iruzkinean islaturikoa eta Onaindiak berak *Oleri* aldizkarian berretsiko zuena. Poetika horren arabera, Onaindiaren antologiak asmo hirukoitza zuen: lehenik, literaturaren bidez hizkuntza prestigioatzea zuen helburu; bigarrenik, eredu literario bat finkatzea eta hedaraztea; eta hirugarrenik, hizkuntzaren duintasuna frogatu eta haren bitartez naziotasuna legitimatzea.

Alabaina, esan bezala, aitortu behar da Onaindiaren antologiak harrera hotza izan zuela. Harrera kritiko ukakor hura, Onaindiaren iritziz, bereziki Luis Villasanteren eta Koldo Mitxelenaren harrerak izan ziren esanguratsuenak:

Etsaien artean, berriz, A. Villasante ezik, euskal literaturak idatzi dituzten guztiak zenbatu ditzakegu. L. Mitxelena'k ez zuen aipatu ere egiten, naiz eta nere izena bai oar baten maxiokari gisa; eta zaila da itxura danek eder jakintsuak eta erriak ain ondo artu zuten euskal literaturari buruzko, Orixe'ren «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra»

(1927) eta P. Lafitte'ren «Euskaldunen Loretegia» (1931) kanpo, bildumarik zaarrena; ondorengo guztiak ortaz baliatu izan dira. (S. Onaindia, *Euskal literatura* VI, 197).

Antologiako 500 testutik gorako egileen hizkuntz eredu garbizaleak ez bide zuen egokitasunik literatura-hizkera eredugarri gisa, euskara batuaren ereduaren aurkako norabidean zihoan argiro eta hamarkada hartako tentsio gunearen erdi-erdian kokatzen zen, euskararen patrimonializazioaren tira-biran. Hizkuntz eredu funtzionalagoa zuen gogoan Mitxelenak, esate baterako, urte gutxi barru Txillardegiren lehen nobelan edota Arestiren poemetan mamitu zena (1957 eta 1963). Aldiz, Onaindiaren antologiak gerraurreko kanona berresten zuen eta aurrekoen ondarea gaurkotzeko ahalegina egin zuen. Halere, gudak zapuzturiko belaunaldi haren fruituen uzta maskaldua zegoen. Hogei urteko izozteak alferrik galdu zuen hazia eta behar berriek hizkera berria eskatzen zuten.

Gaur egunetik begiratuta esango genuke Santi Onaindiak, Marcelino Menéndez Pelayok bezala, ehun olerki bakarrik hautatu izan balitu, *Las cien mejores poesías (líricas) de la lengua castellana* (1908) hura eredutzat hartuz, askoz egile gutxiago aipatuko zituzkeela, eta ziurrenik Parnasoan aipatu ditudan hamabost bat izen horietatik soilik hartuko zituzkeela. Beharbada, beste 900 horietan nabarmentzen den mediokritatea eragotziko zukeen, eta egilearen poetika pertsonalaren eragina ez zen horren nabari agertuko. Modu kritikoagoan hobetsiko zituen «benetan antologikoak» ziren testuak (horrelakorik epaitzeko gai den inor balego). Baina, ondorioz, ziurrenik, are eredu kontserbadoreagoa erakutsiko zukeen, ez zatekeen Peillen, Krutwig edo Miranderen testu arrastorik ikusiko, ez «Paris-Beuret» poemaren gisakorik. Era berean, emakumeen izenik edo testurik, esate baterako, ez zukeen aipatuko, ezta bakar bat ere, ziurrenik, Ibon Sarasolaren (1973), edota geroagoko Jon Kortazarren (1984) edota Iñaki Aldekoaren (1993) antologietan ez dauden bezalaxe. Onaindiaren antologiaren *blow up* horrek agerrarazi egin zituen argazkian.

Aski ezaguna da Menéndez Pelayoren antologia izan dela Iberiar penintsulan XX. mendean eginiko poesia antologia orokorren eredu nagusia: batetik, kopuru finko bat ezarri izenburuan, haien kalitatea azpimarratu «mejores» superlatiboaz, eta bestetik, hizkuntzaren historian benetan

adierazgarriak diren testuak hautatuz osatu. Horrekin batean, idazle hilen testuak soilik onartu behar ziren, modu horretan kanon kontserbatzailea finkatuz. Menéndez Pelayoren egitura eta planteamenduak imitatu zituzten gerora beste hainbatek, eta haietako bat, zehazki Jose Berguak moldaturikoa da Onaindiarenaren eredutik hurbilen dagoena: *Las mil mejores poesías de la lengua castellana. 1135-1935* (1935). Jose Bergua editore eta antologo madrildar progresista izan zen, gaur egungo «Ediciones Ibéricas» argitaletxearen aurrekaria. Bere antologiaren hitzaurrean aitortu bezala, ez ziren benetan mila berak hautaturikoak, eta ez ziren hoberenak ere. Asmo komertziala aitortzen zuen argiro, irakurleak erakartzeko eginiko aldarrikapena zela adieraziz. Garaian garaiko egilerik errepresentatiboenen bilduma egin nahi zuela argitu zuen Berguak azkenik.

Onaindiak, bere aldetik, antzerako izenburu erakargarria moldatu nahi izan zuen, baina bestelako helburuak izanik ere, irakurleen artean arrakasta ere lortu nahi zuelako. Funtsean, milako kopurua mantendu zuen, «mila» esatea «asko» esatea delako. Zenbaki ia menderaezin horren bidez gure literaturaren aberastasunaren aldarrikapena egin nahi zuen, eta legitimazioa eskuratu euskal literaturarentzat eta hizkuntzarentzat. Aldiz, ekidin egin zuen «hoberenak» superlatibo harroa, eta kalitate berme gisa, «eder» doto-rea erabili zuen, Orixeren aholku zuhurrari men eginez.

7. Beste antologia orokor bat: *poesia kaierak* (2000)

Onaindiarenarena bezala, antologia orokorren artean aipatu beharko genukeen pareko beste proiektu zabal bakarra Koldo Izagirreraren *Poesia kaierak* da (Susa, 2000). Onaindiak milako kopurua hautatu bazuen, Koldo Izagirrek berrogeikoa hartu du irizpidetzat; baina zenbakiek esangurarik badute, garbi ikusiko dugu erreferentzia, hots, idazle bakoitzeko hautatu duen hogeita bosnako kopuruak argiro seinalatzen duena jomuga bera da: berrogei bider hogeita bost, mila poema antologiko eskaintzen dizkigu Izagirrek ere.

Ez du Koldo Izagirrek antologiaren irizpideen azalpen zuzenik egiten, egile bakoitzari buruzko sarrera kritiko interesgarriez hornitu badu ere kaiera bakoitza. Aldiz, Susa argitaletxearen editoreak kaiera bildumari eginiko

sarrera orokorrean, argi ikus dezakegu euskal poesiaren testu antologia orokor honen helburu nagusiak honakoak direla:

- a) Hogeigarren mendeko poesiaren antologia (posible bat) da.
- b) Gerraurreko klasikoak bezala mende amaierako joera eta estilo aniztasuna jasotzen ditu bilduman.
- c) Olerkigintzaren zentraltasuna aldarrikatu nahi du euskal literatura sisteman, honako baieztapenez: «gure literaturaren aurrerapauso guztiak poesiak markatu ditu XX. mendean. Orixe, Lizardi, Mirande, Aresti gabe, esaterako, ezin liteke konprenitu gure historia».
- d) Poeten gorazarre izan nahi du.
- e) Irakurlearen zerbitzurako egina da, izan ere, antologiak irakurle arruntaren eskura jarri ditu poeten testuak.

Izagirreraren antologiaren orokortasuna bermatzen dute sarrerako adierazpen hauek, aro jakin bateko joera, norabide edota bilakaera zehatz bat frogatzeko helbururik ez baitu. Onaindiak euskal poesiaren esentzia eta presentzia aldarrikatu nahi zuen bezala, agian Izagirreraren antologia honek ere XX. mendeko poesiaren «balioa» eta kapital sinbolikoa erakutsi nahi izan du euskal irakurleen aurrean, eta historiografiaren aurrean, berriz, generoaren zentraltasuna aldarrikatu, euskal literaturan jokatzen duen abangoardiako funtzioa seinalatuz.

Hortaz, Izagirreraren antologiak poesia generoaren aldarrikapena eta gorazarrea egiten duen aldi berean ikus genezake antologoaren barne poetika baten arabera eginiko hautua egiten duela. Arestian, Onaindiaren antologiarenean Pizkundeko idazleen aldeko irizmena nabarmendu genuen gisa berean, eta hizkuntzaren kalitatearen eta espresio moldearen erromantikotasuna nagusitzen ziren bezalaxe, Izagirreraren *XX. mendeko poesiak kaierak* antologian ere bada antologoaren poetikaren arrastorik. Bereziki agerian uzten dute poetika hori estatistikek: berrogei idazleetatik, erdiak 1980tik hona idazten hasitako poetak dira.

Heziketa helbururik ez duten antologo guztien antologiek hurbileko testuak hobesten dituzte, antologoarentzat bezala irakurleentzat garaikide di-

ren egileetara jotzen dute. Hartara, partekatzen diren gaiak, ikuspuntuak eta gustu estetikoak erraztuko baitute liburuaren harrera abegikorra. Izan ere, antologietan arestian aipaturiko funtzio aldarrikatzaileak, legitimatzaileak eta homologatzaileak aitortu arren, antologia egileak ez baititu alde batera uzten bere garaikide diren egileen eta irakurleen onespenaren beharra. Antologia ez da, hortaz, genero didaktiko edo propedeutiko huts gisa hartu behar, gure ustez. Aitzitik, gehienetan garaikideentzat eginiko testu hautapen literarioa izaten da, antologoaren eta irakurleen balioak eta gustu estetikoa ordezkatzeko dituen.

8. XX. Mendeko euskal poesiaren historiaren giltzadurak antologietan

Antologia literarioei buruzko hausnarketa saio honek bistaratu dituen bizpahiru giltzadura historiografikoren inguruko hausnarketaz amaituko dut nire azterketa, haien inguruko arazoak birformulatzeko proposamenak eginenez. Batetik, XX. mendeko lehen hereneko Pizkundeko poesiak euskal antologia modernoetan errepresentatua izateko ezagutu dituen zailtasunak, eta bestetik, Trantsizioaren aldakuntza sakonek nola eragin zioten euskal poesiaren bilakaerari eta euskal sistema literarioan zeukan egoitzari. Funtsen bi gaiak baitute poesia modernoaren mugen inguruko gaiarekin zerkusia.

Garaiko euskal literaturaren sisteman olerkigintzari zegokion zentraltasuna aho batez aitortu da euskal literaturaren historiografian 1980ko hamarkadara arte. Euskal narratibaren kanonizazio prozesua aro demokratikoarekin batera abiatu da eta aldaketa handia ekarri zuen euskal literaturaren paradigmatan. Hausturarik eragin ez bazuen ere, sistema literarioaren finkatzeko baldintzak sortu zituen, bereziki, euskararen koofizialitate legearen bidez, zeina 1979ko Autonomia Estatutuaren eta 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko Legearen ondorioz heldu zen. Bereziki, hezkuntzaren alorrean eredu elebidunak ezarri izanaren ondorioztat jo daiteke irakurlegoaren premien aldakuntza eta erakundeen politika kulturalak argitalpengintzari laguntzeko partidak ezarri izanaren fruitu argialetxeen

sorrera. Ondorioz, Olaziregiren iritziz, ez dago inolako zalantzarik genero narratiboak lortu dituela abantaila gehien egoera berri horretan, eta gure sistema literarioan kanonikoa izatera iritsi dela:

No cabe duda de que ha sido el genero narrativo el que más se ha beneficiado de esta nueva coyuntura, y ha conseguido convertirse en canónico y central dentro de nuestro sistema literario (M. J. Olaziregi, 2011).

Hala baieztatzen zuen Maria do Cebreiro Rabadek ere antologia iberiarren testuinguruan ezarririk:

En comunidades culturales como el País Vasco, considerado como marco geopoético, lo mismo que en Cataluña, la poesía funciona desde el siglo XIX como género depositario de los elementos de caracterización de la identidad nacional (2004: 326).

XX. mendeko euskal literaturaren bilakaera deskribatu duten historialari guztiek adierazi dute euskal literaturaren kanonean genero poetikoak zentraltasuna galdu duela, eta datari dagokionez ere bat datoz laurogeiko hamarkadaren hasieran kokatzean. Aipua gehiegi ez luzatzearen, aski izango genuke Iñaki Aldekoaren *Euskal Literaturaren Historia* irakurtzea, gertakariaren inguruko hausnarketa nondik norakoa den sumatzeko:

Hirurogeiko edo hirurogeta hamarreko hamarreko urteetako genero literarioak ospetsuena izatetik, poesiaren garrantzi soziala gainbeheran hasi zen laurogeiko hamarkadaren erdialdera. Laurogeita hamarreko hamarraldian, poesia-liburu on batek narratibako beste liburu kaskar batek baino oihartzun gutxiago du, guk hori gustuko izan ala ez. Hamarraldi horren hasieran inork ez zuen zalantzan jartzen poesiaren gailentasuna literaturaren Parnasoan, eta gure arteko irakaspen literarioak eraginkorra Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandia bezalako poetena zen. Harrezkero, ordea, gauzak asko aldatu dira (2008: 335).

Aldekoak dioskunez, aldatu diren gauzen artean irakurleen atxikimendua beste generoetara aldatu izana da garrantzitsua, zeren, berez, idazlan kopurua ez da nabarmenki gutxitua. Bestalde, poesiaren transmisio modua zuzeneko saioetara aldatu denez, poeta eta musikagileen arteko kolaborazio

eta emanaldiek garrantzia hartu dute, eta CD-dun liburuen formatuak arrakasta bilatzen du berrikuntza teknikoan bidez.

Nolanahi ere, komeni da azpimarratzea generoen kanonikotasunaren aldakuntza hori ez dela bat batean gertatua, eta trantsizio aldi bat ere bizitu duen belaunaldi oso baten «sakrifizioa» eskatu duela zenbait kritikoren iritziz. Mende bukaerako euskal literaturaren historiari buruzko liburuen egileek zailtasunak izan dituzte 1985-2000 arteko idazleak sailkatu edo talde gisa multzokatzeko, hain zuzen neoabangoardiaren (1976-1986) aldia igaro zenetik eta «idazle berriak» (Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe) arteko aldia deskribatzeko (Otaegi, L, 2012: 235-240).

Zehazki, Xabier Mendigurenek «63ko belaunaldia» izendatu zuen belau-naldiaz ari gara, partaide ziren idazle batzuek (F. Juaristi, K. Linazasoro) «belaunaldi galdua» deitu zutena; urrats bat harantzago joanez, I. Zaldua kritikoak «porrotaren belaunaldia» eta «belaunaldi ikusezina» izena eman zion, edota «tropela» ere bai (Zaldua, 2005a). Era batera edo bestera, literatura produkzio-multzo baten zailtasunak deskribatzen dituzte izen horiek. Aldekoak arestian iradoki bezala, garai horretako eleberrigile eta poetek, kalitatezko lanak idatzi arren, oso nekez lortzen dute lehen lerroan nabarmentzea. Eta horren arrazoi gisa, aipatzen da, batetik, aurreko hamarkade-tako idazleen kanonizazioaren prozesuan «beranduegi» heldu izana, eta bestetik, mendearen amaieran idazle gazte iritsi berrien arrakastak «sandwich» eran harrapatuta geratu izana (Iban Zaldua, 2005b: 91).

Ikuspuntu sistemiko batetik, Trantsizioaren ondoren sorturiko baldintza berriek eraldatu egin zuten ofizialduriko hizkuntzetako literaturen egoera. Batetik, hedatze akademikoak irakurle berriak eta gazteak ekarri zizkion, baina bestetik, hizkuntza estandarra eta literatura produkzio homologagarriaren premia jarri zuen mahai gainean. Hala, geure literaturaren ezarpena errazteko, euskal sistema literarioak ere «egonkortze» eta «finkatze» kano-nikoa eragin zuen, ordura arte garaturiko kultura literarioari balio sinboliko bat eratxikiz, gizartearen aurrean komunitatearen jabego kultural eta nazio-nal bat aldarrikatzeko. Aldakuntza bertsuak ezagutu zituzten Galizia eta Kataluniako sistema literarioek ere eta zehaztasunez aztertu dituztenen ar-tean aipa genezake Maria do Cebreiro Rabade irakaslea, *As antoloxías de*

poesía en Galicia e Cataluña liburuan (2004) haien arteko paralelotasunak aztertu dituelarik.

Trantsizioaren ondoko poesian, neoabangoardiaren eragina amaitutakoan (1975-1986), poetika ezberdinak garatuko dira aldi berean, aurreko belaunaldietan gertatu bezala poetika «apurtzaile» nagusi batek besteak ordezkatu gabe. Aldi hori deskribatzerakoan, baldintza berrietan narratibaren garapenak ezagututako abantailak jasotzen dituzte kritikoek. Besteak beste, Joseba Gabilondoren *Nazioaren hondarrak* (2006) liburua aipatu ahal izango genuke ikuspuntu honen garatzaile gisa, edota Maria Jose Olaziregi (2011), zeina honako ondorioetara heldu zen poesiak Pizkundean zehar eta Trantsiziora arte izaniko zentraltasunaren galera azaltzerakoan:

Es obvio que hemos pasado de una escritura que respondía al objetivo político de construir Nación hasta bien entrado el siglo XX, hasta casi la década de los años 1960 para ser mas precisos, a una escritura en euskara donde la elección de la lengua literaria no conlleva una opción política exclusivamente nacionalista.

Poesiaren generoareen zentraltasunaren arrazoiez hausnarketa egitean, Iratxe Retolazak aurreko adituek ez bezalako arrazoiak izan zitzakeela argudiatu zuen:

(...) conviene subrayar que la poesía ha sido en el sistema literario vasco el género con más prestigio, el género cumbre hasta finales del siglo XX. Este prestigio se lo debe a un conjunto de circunstancias y criterios, pero entre todos ellos destacan dos rasgos particulares de la tradición literaria vasca: la poesía ha sido durante siglos uno de los géneros más cultivados y más arraigados en la literatura oral y popular, y, además, las primeras tentativas de modernidad en la literatura vasca llegaron principalmente de la mano de poetas. Esta doble situación del género poético en el sistema literario vasco va a ser decisiva para entender el panorama de las antologías poéticas en nuestra literatura (2007-2008: 22).

Poesiaren zentraltasunaren arrazoiez eginiko hausnarketen ildoan, Retolazaren iradokizunek berretsi egiten dute Koldo Izagirreraren antologiaren sarreran aipaturiko argudio nagusia, hots, poesiagintza dela genero zentrala

XX. mendean, genero horretan abiatu direlako gure literaturan aurrerapauso guztiak. Euskal sistemaren kanonizazioari buruzko hausnarketan, euskal literaturaren sistemaren barne-eragileei erreparatzen diete K. Izagirrek eta I. Retolazak, autonomia bat aitortuz literaturari esparru soziopolitikoetatik. Lehenatasuna ematen die barne-eragile horiei dinamika propioa izan dezaketela iradokiz, sistema soziopolitikoaren inpronta bigarren mailan utziz.

Bi norabide historiografiko ezberdin horien aurrean, seinالاتu behar genuke, beharbada genero poetikoaren kanonikotasunaren inguruko hausnarketak azterketa astitsuagoak eskatzen dituela. Barne eta kanpo eragileak integratuko dituen azterketa-eredu baten premia erakusten du gure iritziz, euskal sistema literarioaren autonomiak esplika ditzakeen fenomenoaren azterketa xeheagoak eginez, eta arlo soziopolitikoaren eraginaren dinamika doitu.

Bestalde, narratibaren eragile gisa faktore erabakigarritzat aipatzen dira, euskal narratibaren garapena erraztu zuten euskararen ofizialtzearen ondorioz sortutako irakurle gazteak eta alfabetaturiko irakurle helduak ugaltzea. Baina, ez da horregatik aiantzi behar genero poetikoaren prestigioa eta irakurleengan itsatsi zen irudiaren balio sinbolikoa eragile horiez gaintikoa dela. Horregatik, gudaurreko olerkariaren eredu kultural berritzailea bezala, gudaosteko obra arestiararen inpaktu modernizatzailea aintzat hartu beharko lirateke. Izan ere, gudaosteko 1950-1975 urteetako poesiagintzak, bere kalitatearen ondorioz, eredu legitimatzaile gisa jokatu zuen, gerora kantagintza berriaren fenomenoarekin batean, poesia eredu herrikoi nahiz kultuak integratzea lortu zuena eta jendarteratzeko eragiketa kulturalen maila sakonagora jo zuena. Ildo honetan aipagarri izan daiteke azken urteetako literatura fenomeno adierazgarria izan den gertaera: Xabier Lete poetaren azken kantaldi eta errezitaldien harrera jendetsua, ia osoki egilearen figura publikoaren ondare sinbolikoak soilik esplika dezakeena⁴.

Mende osoko testuen antologia orokor gisa «testu errepresentatiboen hautua» egiten duela dio Izagirrek, hartara, poetika baten, joera edo bila-

⁴ Ikus, besteak beste, Argia aldizkariak poetaren azken agerraldi eta kantaldiei buruz emaniko informazio bilduma: <http://www.argia.com/xabier-lete>

kaera baten norabide jakinik frogatzeko lanik hartu gabe. Horregatik, naturaltasunez dakartza gudaurreko eta ondoko egileen testuak, garbizaleenak eta euskara funtzionalarenak, herrikoiagoak eta kultuagoak, kontserbado-reak edota progresistak, ustez eta beti literaturaren berezko balio irizpide bati leial zaiola sinetsiz. Horretaz gain, Santi Onaindia bezalaxe, irakurle euskaldunentzat ari da Izagirreraren antologia, eta horregatik ez ditu barneratzen itzulitako antologietan sumatzen diren betebeharrak homologagarriak edo mendebalde osoko poesiaren ibilbidea deskribatzeko erabiltzen diren irizpide kronologiko edo historiografikoekin bat egin beharrak. Iratxe Retolazak ere antologiei buruzko bere artikuluen amaieran dioen moduan, antologia itzuliek bestelako irizpideei lotzen zaizkie:

De todas las antologías que he mencionado, las dos que fundamentan su selección de autores y poemas, y que ofrecen un extenso prólogo con una lectura personal de la situación y evolución de la poesía vasca, son las antologías de Iñaki Aldekoa (1993) y Jon Kortazar (2006). (...), estas dos antologías son bilingües (euskara-español), y es precisamente por eso mismo por lo que se ofrecen esos extensos prólogos como apoyo y contextualización de los poemas que en ellas se presentan. Por tanto, atendiendo a este objetivo, se aprecia claramente ese deseo (o/y obsesión) de demostrar que la literatura vasca se puede homologar a las corrientes europeas con más renombre, y (de)mostrar esa supuesta evolución natural de la literatura vasca, como un sistema literario homologable y saludable (2007-2008: 24).

Hari beretik baina bestelako espresioez adierazi du berriki Joseba Gabilondok bere iritzia *Naiz* egunkarian (2014-02-22). *Before Babel: For a Cultural History of Basque Literatures* (2014) liburuaren edukiaz hitz egiteko Joxean Agirreren galderei erantzun zien euskal literaturaren normaltasuna eta modernotasunaren itxuraren atzean gordetzen diren interesak agerian jarri:

(J. Agirre) «Erakunde ofizialen inguruan garatu den kritikari erreferentzia eginez, hitz fetitxe batzuk salatzen dituzu, «normalizazioa» eta «modernitate», esate baterako. Argitu iezaguzu salaketa horren mamia zein den».

(J. Gabilondo) «Ez garela normalak. Eta kalean hau irakurtzen duen edozein euskaldunek momentuan emango dit arrazoia. Normalak eta modernoak garela, hori politikoei eta instituzio politikoetako «kudeatzaileei» interesatzen zaien narratiba da. Normalizazioarena, lehenaldia atzean utzi dezakegun, ahantz dezakegun fantasia nazionalista proespainiarra da».

Aipaturiko iritziak bilduz, ondoriozta genezake itzulitako antologiaren ordenamendu irizpideak askotarikoak izan daitezkeela eta, sarritan, deskribatzen den euskal literaturaren beraren barne dinamikari baino gehiago obeditzen dietela editorialaren eskabide zehatzei, hots, antologiaren egitasmoa abiarazten duten editorialeko hizkuntzako literaturaren paradigmei. Ildo honetatik, XX. mendeko euskal poesiaren testurik errepresentatiboenak aurkeztzen dituzten antologia itzuli gehienak gudaostetik abiatzen direla erreparatu dugu. Hots, homologagarria, modernoa edo normalizat hartzen den literaturaren abiapuntua ordutik honako balitz moduan. Aldiz, olerkarien hizkuntza eredu garbizalea eta haien pentsamendu kristau eta taxu klasiko edota sinbolista aski anormalak suertatzen dira Europako mugimendu abangoardiazaleen sasoian sortuak izateko. Horrek zaildu egiten die antologoei euskarazko aurreko poesiaren ibilbidea ezagutzen ez duenari olerkarien poesian mamitzen den proiektu handinahiaren balioa hitz gutxitan argitu ahal izatea, euskal literaturaren barne-dinamika baten fruitu den abangoardismo *sui generis* bat taxutu zutelako. Horregatik, euskal poesiaren ibilbidean funtsezko izanik ere, antologietatik at utzi izan dituen irizpidea ez da desegokia, baina bai dinamika exogeno baten arabera taxutua, Gabilondok aipatzen zuen euskal literaturaren normaltasunari eta modernitate homologagarriari kontzesioa eginez.

Izan ere, bestalde, euskararen estandar literarioaren bilaketa etengabearen oinazeaz korobilkatua dago euskal poesiaren ibilbidea. Bertsolaritzaren hizkera eta eredu estilistikoetatik abiaturik, XIX. mendearen erdialdean gero eta hizkera landuago eta forma literario elaboratuagoen gailurrerantz egin zuen, Errepublikako belaunaldiak gaina eman ziolarik. Gudaosteko ordu ilunetan eredu bertsozaleak eta olerkariak elkarren ondoan bizirik iraun zuten, hirurogeiko hamarkadara arte. Euskal literaturaren epe hori hizkuntzaren estandarizazio prozesuaren gatazkak markatu zuen eta, ondorioz, 1950-1975 arteko Juan San Martinen eta Ibon Sarasolaren antologiak

testu hautuak nabarmenki hizkuntz eredu batutik hurbil zeuden idazle ikasien aldekoak izan ziren.

Euskara batua, kultur hizkuntzaren molde bakartzat eta literatura jasoa-ren adierazpide eredugarri gisa finkatu zen aroaren antologia izan zen Ibon Sarasolak osatu zuena, eta testuen hautapenak frogatu edo erakutsi egin zuen hobespen hori⁵. Ondorioz, begi bistan geratu zen olerkarien poetikaren ondorengo testuak deserosoak zirela euskal poesia modernoaren parametro «normal»-en arabera aurkezteko, izan ere, batua ez zen hizkuntz eredu garbizalean eginiko literatura landuaren posibilitatearen froga ziren, eta ondorioz, neutralizatu beharreko lehiakide prestigiotsuak.

Ondoko pasartean Iratxe Retolazak iradokitzen duen bezala, 80ko hamarkadatik aurrera idatziriko euskal literaturaren historia guzietan, literaturaren corpusa hautatzeko irizpide nagusi bat izan da euskara batua:

Sarasolaren ustez, euskara batuaren kontrakoez ez dute nahi euskara kultur hizkuntza bilakatzerik. Baieztapen horren atzean herri-literaturaren inguruko ikuskerarik ere biltzen da. Izan ere, Sarasolak kultur maila aitortzen dio euskara batuan sorturiko diskurtso literarioari, baina, zalantzan jartzen du eredu batu horretatik kanpo sorturiko testuen kultur maila (eta bide batez literariotasuna) (2010b, 972).

Trantsizio ondoko literaturaren historiari buruz esandakoa hirurogeita hamarreko hamarkadara estrapola daiteke. Berez, literaturaren testuen balioaren epaietan hizkuntza ereduari loturiko irizpidearen garrantzia baita, zalantzarik gabe, XX. mendeko euskal poesia modernoaren kanonizazioan indar gehienez jokatu duen bektorea. Ondorioz, iradoki genezake euskal literaturaren sisteman jokatzeko duten balio-irizpideak oso loturik egon direla hizkuntzaren egoera soziolinguistikoari, bai gizarte mailan bizi duen egoera diglosikoaren inperatiboari, eta bai estandarizazio prozesu berankorren gatazkari.

Balitzeko esparru literarioaren autonomia eta barne dinamikaren higikerak soilik argitu ditzake etorkizuneko euskal historiografiaren bideak, ahozko

⁵ Euskaltzaindiaren II. Historiografia jardunaldietan Jon Kortazarrek adierazi zuenez, Juan San Martinen *Uhin berria* (1969) zenbait idazleri eskatu zitzaizkien testu multzoa izan zen.

eta idatzizko literaturaren inguruko balio-irizpideetan aurrejuzguan auzitan jarritz, eta hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak izandako eraginaren argitan berraztertuz.

Bibliografia

«AITZOL» ARIZTIMUÑO, J., 1931, «La muerte del euskera o los profetas de mal agüero» in *El día*, 7-27 azaroa, 1931. Berrargitaratua: Jose Ariztimuño «Aitzol», 1988, *Idazlan Guztiak. Obras Completas*, Donostia: Erein, 335-381.

ALDEKOA, I., 1991, *Una antología de la Poesía Vasca. Euskal poesiaren antologia*, Madrid: Visor.

AMENABAR, J., 1983, *Euskal poesia kultoaren bilduma (1880-1963)*, Donostia: Elkar.

ARANBARRI, I. / IZAGIRRE, Koldo, 1997, «Batxi, idazle ezezaguna» in *Hau mundu arrano hau*, J.B. Bilbao Batxi, Donostia: Susa.

IZAGIRRE, K.; MENDIGUREN, X., 1988, *Euskal literaturaren antologia*, Donostia: Elkar.

ARBELBIDE, X., 1999, «Piarres Lafitte», *Bidegileak bilduma*, Gasteiz: Eusko Jaur-larritza.

ARISTIMUNHO, F., 2009, *Poesia Basca- das origens à Guerra Civil*. Sao Paulo: Hedra.

ASKOREN ARTEAN, 2011, *Desira desordenatuak*, Donostia: Elkar.

———, 2009, *Desira, Plazer*, Donostia: Txalaparta.

ATXAGA, B., 2011, «El imposible vencido» in Andres-Suarez, Irene, Rivas, A., 2011, *Bernardo Atxaga*, Madrid: Arco.

BARNATAN, M. R., 1970, *Antologia de la beat generation*, Barcelona: Plaza y Janes.

BERGLES, C. , 2008, *Branil bomocetovo hiso. Antologija moderne baskovske poezije*, Liubljana: Aleph.

BIJUESCA, J., 2010a, «Literatura eta mezenasgoa XVI. eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren «Vuestra Merced»-en aitzakiaz», *Oihe-*

nart, 2010, 25, 7-40. Online bertsioa <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/25/25007040.pdf> [2014-07-24]

———, 2010b, «Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain*», *Euskera*, 2010, 55,2., 877-914. Online bertsioa <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/75387.pdf> [2014-07-24]

GABILONDO, J., 2006, «Kanonaren sorrera euskal literaturan» in *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: EHU-UPV, 63-89.

———, 2014, Elkarrizketa : «Egun euskal literatura postnazionalaren triangeluaren ertzak Maialen Lujanbio, Toti Martinez de Lezea eta Ramon Saizarbitoria dira», *Naiz* egunkarian, «Gaur8» atalean (2014-02-22), Online bertsioa: <http://www.gaur8.info/edukiak/20140222/448420/Joseba-Gabilondo-Egun-euskal-literatura-postnazionalaren-triangeluaren-ertzak-Maialen-Lujanbio-Toti-Martinez-Lezea-eta-Ramon-Saizarbitoria-dira> [2014-07-24]

GABUNIA, S., STURUA, N., 1991, *Euskal poesiaren antologia. Baskuri poeziis antologia*, Tblisi: Metsniereba.

GONZÁLEZ DE LANGARICA, P., GARTZIA TRUJILLO, S., 2010, *Ahotsa, hitzak, hizkuntzak. Voz, palabras, lenguas. Voix, mots, langues. Voice, words, languages*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GUILLEN, C., 1985, *Entre lo uno y lo diverso. Introducción a la literatura comparada*. Barcelona: Editorial Crítica.

IBIÑAGABEITIA, A., 1955, «Milla euskal olerki eder», in *Euzko Gogoa*, 1955, II-beltza-Otsaila, 1-2., 31. On-line, www.ibiñagabeitia/

IZAGIRRE, K., MENDIGUREN, X., 1998, *Euskal literaturaren antologia*, Donostia: Elkar.

KORTAZAR, J., 1984, *Reduccions*. Revista de poesia, nº 22, Barcelona.

———, 2000, *A ponte das palabras. Poesia vasca 1990-2000*, Pontevedra: Letras de Cal.

———, 2006, *Montañas en la niebla. Poesia Vasca de los años 90*, Barcelona: DVD poesia.

LAFITTE, J., 1942, *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Bayonne: Librairie «Le Livre», Aintzina bilduma.

LAKARRA, J., URGELL, B. eta BIGURI, K, 1983, *Euskal baladak azterketa eta antologia*, Donostia: Hordago.

LEKUONA, J. M., 1989, «Aita Santi Onaindiaren olerkigintza» in Onaindia, S., *Olerki guztien bilduma*. Larrea: Karmel. XI-XXVI.

LIZARDI, J., «Olermen-irakite» (*Euzkadi*, 1930-07-1) in Otaegi, M. L., *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*, Donostia: Erein, 309-311 or.

MANGUEL, A., 1988, *Una historia de la lectura*, Barcelona: Lumen.

MANTEROLA, J., 1880, *Cancionero Basco*, Donostia: Baroja imp. (Edizio faksimilea, 2011).

OLAZIREGI, M. J., 2011, «Narrativa» in *Euskal Literaturaren Historia. XX mendea*. <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hogeimende/narratiba> [Azken ikustaldia, 2014-VII-24]

———, 2007, *Six Basque Poets*, London: Arc.

ONAINDIA, S., 1954, *Milla euskal olerki eder*, Itxaropena, Zarautz.

———, 1975, *Euskarazko 100 maitasun olerkirik hoberenak/ Las cien mejores poesías de Amor de la Lengua Vasca*, Bilbo: Editorial La gran enciclopedia vasca.

———, 1990, *Euskal literatura*, VI alea. Online kontsultatua. <http://zubitegia.armiarma.com/?p=ona-310> [2014—08-06]

OTAEGI, L., 2012, «Modern basque Poetry» (2012:235-240) in Olaziregi, Maria Jose, *Basque Literary History*, Nevada, USA: Center for basque Studies, Univ, Reno, 235-240.

PALACIOS, M. (ed.), 2012, *Forked Tongues: Galician, Basque and Catalan Women's Poetry in Translations by Irish Writers*, Dublin: Shearsman Books.

PALENQUE, M., 2004, «Historia, antología, poesía: la poesía española del siglo XX en las antologías generales (1908-1941) in Leonardo Romero Tobar *Historia literaria/Historia de la literatura*, Prensas Universitarias de Zaragoza, 312-347.

POZUELO YVANCOS, José María; VICENTE, Francisco (eds.), 1996, *Mundos de ficción*. Actas del VI Congreso Internacional de la A.E.S. Murcia, Universidad.

RABADE, M. C, 2004, *As antoloxías de poesía en Galicia e Cataluña*, Universidade de Santiago de Compostela, 2004.

———, 2004, «Las antologías de mujeres en la poesía catalana (1975-2001)», in *Lectora. Revista de Dones i Textualitat*: 10, 325-336.

RETOLAZA, I., 2010a, «Canones y contra canones». *El discurso no lírico en la poesía contemporánea: espacios, sujetos, hibridación enunciativa, medianidad*, Madrid: Ministerio de Ciencia e Innovación, 225-248.

———, 2010b, «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikotasun kontzeptuez zenbait gogoeta» in Toledo, Ana (ed.), *I Historiografia Jardunaldiak. Euskera*. 2010, 55, 2. 953-976. Bilbo, 953-976.

SAN MARTIN, J., 1969, *Uhin berri*, Bilbo: SGEP.

SARASOLA, I., 1973, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964*, Donostia: Lur.

SODUPE, P., 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

SPIVAK, G., 1994, «Can the Subaltern Speak?» in Patrick Williams/Laura Chrisman (ed.), *Colonial Discourse and Post-Colonial Theory: A Reader*, New York: Harvester/Wheatsheaf, 66-111.

TORREALDAI, J. M., 1977, *Euskal idazleak gaur*, Donostia: Jakin.

———, 1997, *Euskal kultura gaur*, Donostia: Jakin.

UGALDE, M. 1970, «Uhin berri», Juan San Martin Martin», *Zeruko Argia*, 1970-01-25.

URKIZU, Patri, 1985, *Eros, eros...*, Donostia: Baroja.

———, 2013, *Poesia Vasca. Antologia bilingue*, Madrid: UNED.

VAN DIJK, T., 1999, *Ideologia, Una aproximación multidisciplinaria*, Barcelona: Gedisa.

ZALDUA, I. (ed.), 2005a, *Poetikak & Poemak*, Donostia: Erein.

———, 2005b, «Sandwich-aren sindromea edo Tropela delakoa azaltzeko aha-lerin bat» in Apalategi, U., *Belaunaldi literarioak auxitan*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 91-118.

Euskal literaturaren periodizazioa. Gune itsuak eta eskasak

Periodización de la literatura vasca. Aspectos oscuros y
carencias

Périodisation de la littérature basque. Des aspects
obscurs et des manques

Basque Literature Periodization. Obscure Aspects and
Lacks

CASENAVE, Jon
Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona

Noiz jaso: 2014-03-31
Noiz onartua: 2014-07-08

Euskera. 2013, 58, 2. 557-575. Bilbo
ISSN 0210-1564

XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik hona, eredu historiografiko amankomun bat eraikia izan da euskal literaturari buruz. Laburki erranez, Europan XIX. mendeko erditik hara zabaldu den «eredu nazionala» erakarria izan da euskal eremu kulturalera. Gure kasuan, Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca*-tik (1960) abiatzen da.

Geroztik, 40 urtez, aditu gehienak eredu horren osatzen ari izan dira, kanpoan agertu metodologia berriak erakarriz, euskal literaturaren gorakada gaitza kontuan hartuz, publiko eta eskaera berriei kasu emanez. Halere, azken hamarkada honetan, eredu horren inguruan piztu dira lehen eztabaidak premiazko galdera hauen inguruan :

- Zein dira periodizazio eredu iraunkor baten finkatzeko egin behar diren indarrak eta urratsak?
- Eredu «nazional» adostasunezkoa osatu eta hobetu behar ote da, trantsiziozko eredu batua proposatuz eta Iparraldeko eta Hegoaldeko arteka emeki-emeki mendretuz?
- Eredu nazionalaren gaineko mailatik abiatu behar ote da?

Hitz gakoak: Euskal literaturaren historia, Historiografia, Periodizazioa, Adostasunezko eredu.

Desde la década de los sesenta del pasado siglo, se ha construido un modelo historiográfico común sobre la literatura vasca. Dicho en pocas palabras, se ha importado el «modelo nacional» que se instauró en Europa a mediados del siglo XIX. En nuestro caso, comienza con la obra de Koldo Mitxelena *Historia de la literatura vasca* (1960). Posteriormente, la mayoría de los expertos han complementado ese modelo, aportando nuevas metodologías que han surgido en el exterior, y teniendo en cuenta el auge de la literatura vasca y la llegada de nuevo público y nuevas demandas. Aún así, estas últimas décadas han surgido las primeras controversias sobre este modelo, siempre en torno a estas preguntas:

- ¿Cual es la fuerza y los pasos a seguir para establecer un modelo permanente de periodización?
- ¿Hay que complementar y mejorar este modelo «nacional», proponiendo un modelo unificado de transición que vaya, poco a poco, abarcando de manera conjunta la realidad de Iparralde y Hegoalde?
- ¿Hay que partir desde el nivel del modelo nacional?

Palabras clave: Historia de la literatura vasca, Historiografía, Periodización, Modelo de consenso.

Depuis les années soixante-dix, un modèle historiographique propre à la littérature basque a été progressivement élaboré. Il a été établi à partir du “modèle national” instauré en Europe au milieu du XIXe siècle. Koldo Mitxelena en a jeté les bases dans son *Historia de la literatura vasca* (1960). Au cours des décennies suivantes, dans leur grande majorité, les historiens de la littérature basque ont adopté puis complété ce modèle en y ajoutant l'apport des nouvelles méthodes critiques et en prenant en tenant compte de l'essor de la littérature basque contemporaine.

Au cours des dernières années, les premières controverses à propos de ce modèle sont apparues ; elles tournent autour des questions suivantes :

- Quelle voie faut-il suivre pour établir un modèle durable en matière de périodisation ?
- Faut-il compléter et améliorer le modèle “national” actuel, en proposant un modèle de transition qui engloberait progressivement les approches historiographiques (souvent divergentes) d'Iparralde et d'Hegoalde ?
- Doit-on prendre comme point de départ un niveau au-dessus du modèle national ?

Mots-clés: Histoire de la littérature basque, Historiographie, Périodisation, Modèle de consensus.

Since the decade of the 1960's up until the present, a single historiographical model about Basque literature has been constructed: to put it briefly, the “national model” which spread through Europe from the mid-nineteenth century onwards has been transferred to the Basque cultural sphere. In our case, it starts with Koldo Mitxelena's 1960 *Historia de la literatura vasca*.

Since then, for 40 years, most specialists have worked to complete that model, introducing new methodologies from outside, taking into account the difficult development of Basque literature, paying attention to new audiences and demands. Even so, in the last decade the first critical discussions of that model have arisen around the following urgent questions:

- What efforts and steps need to be taken to establish a stable model of periodisation?
- Should an agreed “national” model be created and improved, by proposing a common interim model and gradually reducing the gap between the northern and southern parts of the Basque Country?
- Should one begin from a level above that of the national model?

Keywords: History of Basque literature, Historiography, Periodisation, agreed model.

Sartzea

XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik hona, eredu historiografiko amankomun bat eraikia izan da euskal literaturari buruz. Laburki erranez, Europan XIX. mendeko erditik hara zabaldu den «eredu nazionala» erakarrria izan da euskal eremu kulturalera. Gure kasuan, Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca*¹-tik abiatzen da.

Eredu horren arabera, beste eremuetan egin zen bezala, K. Mitxelenak hiru oinarri sendo finkatu zituen:

- Oinarri linguistikoa aukeratu zuen funtsezko zutabetzat: bakarrik euskaraz idatzitako obrak hartu zituen.
- Oinarri geografikoa: bere aurrekari gehienek ez bezala, euskara erabilia eta idatzia izan zen eremu osoa hartu zuen kontuan, Hegoaldean eta Iparraldean.
- Oinarri estetikoa: helburu literario batekin eginak izan ziren obrak sarrarazi zituen landu zuen corpusean.

Geroztik, 40 urtez, aditu gehienak eredu horren osatzen ari izan dira, kanpoan agertu metodologia berriak erakarriz, euskal literaturaren gorakada gaitza kontuan hartuz, publiko eta eskaera berriei kasu emanez. Azken hamarkada honetan, eredu horren inguruan piztu dira lehen eztabaidak. Baina, mementoan, lizeoetan eta unibertsitatean, eredu historiografiko hori da erakatsia dena.

Halarik ere, adostasunezko eredu kontzeptual horretan, puntu batzuk beti zalantzan gelditu dira. Horietarik bat, nagusietarik bat, **periodizazioa** izan da. Bigarren mailako ikastetxeetan eta unibertsitatean euskal literaturaren historia egiterakoan erabilia den ereduan, ez da adostasunik periodizazioaz. Ez Hegoaldeko eta Iparraldeko historiagileen artean, ez eta ere eskualde berekoen artean iraupen luzeko ikuspegia hartuz. Lan honetan, periodizazioari buruzko bi puntu nagusi aipatuko dira:

¹ Koldo Mitxelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Minotauro.

– Alde batetik, euskal literaturaren historialarien artean periodizazioaz aurkitzen diren desadostasunak. Desadostasun horien iturriak eta kausak agerian ematen dira.

– Bestaldetik, periodizazioaz gaurko historialariek egiten duten aukera: obra eta autore garaikidezaleei ematen zaien garrantzia. Hautu horren ondorioak azalduko dira.

Lehen partea: Periodizazioaren arteko ezberdintasun eta kontrajartzeak

1 Periodizazioaz oinarri batzuk

Gogoetaren eremua molde argi batez finkatzeko gisa, periodizazioaren inguruko bizpahiru ohar egin daitezke. Jean Rohou² frantses literaturaren historiografian adituak eman oinarrien gainean bermatuz, hiru ideia nagusi azaltzen ahal dira:

– **Periodizazioa, garaiez garai literaturari ematen zaion definizioaren baitan oinarritzen da.** Haren parametroak edo objektuak mugatuak dira kopuruari begira: literaturaren funtzioa, haren baldintza sozialak eta estetikoak, haren baitan komunzki egiten diren banaketak, generoak, etab.

– **Literaturaren historia,** parte batean autonomoa izanik ere –historialari gehienek hala nahi lukete segurik– **historia orokorraren baitan sartzen da,** hots haren **periodizazio orokorrean.**

² Jean Rohou, «La périodisation: une reconstruction révélatrice et explicatrice», in *Revue historique de littérature française*, 2002. «Période: laps de temps variable pendant lequel les principaux caractères de la littérature (...) n'ont guère changé, non plus que sa raison d'être, sa fonction, ni les conditions de son exercice. (...). Une telle période se construit. Les objets de la périodisation (littérature, genres, etc.) sont des abstractions. Ils se conceptualisent par rapport à ce qu'ils sont à des moments historiques donnés. Une périodisation complète enrichit la réflexion parce qu'elle établit des rapports entre toutes les activités d'un espace historique sans oublier les antécédents, sans se laisser arrêter par les frontières nationales ou disciplinaires. (...)»

– **Periodizazioa eraikuntza kontzeptuala da**, nahiz denbora joan arau garai batean, begien bistakoa eta egia borobila bilakatzen den garai bereko haren erabiltzaile gehienentzat. *A posteriori* eraikitzen dugun muntaketa da, parametroak molde anitzez erabiliz eta etengabe berriz definituz.

Oinarri horiek oro finkaturik ere, literaturaren periodizazioaz moldatzen diren eskemak guziz erlatiboak dira eta erabat eztabaidatzekoak.

2 Desadostasunak periodizazioaz euskal literaturaren historian

1 *Bi desadostasun mota*

Autore batetik bestera euskal literaturaren periodizazioa ez da lineala ez eta ere homogenea, ez molde diakronikoan ez eta ere molde sinkronikoan.

– **Diakroniaren arabera** hautatuak dira azpiko hiru adibideak. Begien bistakoa da garai historikoen banaketa asko aldatu dela euskal literaturaren historian mende erdi batez. Lehenik, ikus daiteke ez dela «mendea» erabiltzen neurgailu gisa³. Bigarrenik, hiru autorek bilatu dutela euskal literaturaren baitan eta euskal kulturaren baitan «periodizazio» berezi eta egoki baten oinarriak, nork berak bere mugak eta garaia aurkeztuz.

K. Mitxelena (1960)	I. Sarasola (1970)	I. Aldekoa (2008)
1. Ahozko literatura.	1. 1545 – 1901.	1. XVI. mendea aitzin
2. Hastapenak. XVI. mendea.	2. 1901 – 1964.	2. XVI – XVII
3. XVII. mendea.	3. 1964 – 1971.	3. 1700 – 1833
4. 1700 – 1850.		4. 1834 – 1936
5. 1850 – 1960.		5. 1937 – 1950
		6. 1950 – 1975

Periodizazio ezberdin horiek ez dira molde orokor batez aztertzen ahal artikuluan baten neurrian. Aldiz, garai berezi bat aztertuz, XIX. mendea kasu

³ Mendearen eredia aukeratu duen historialarietarik bat, Patri Urkizu izan da: *Historia de la literatura vasca*, Madrid : Uned, 2000.

honetan, ikus daiteke zein diren historialari bakoitzak aukeratzen dituen mugak eta zeren gainean oinarritzen den banaketaren aurkezteko.

– **Koldo Mitxelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*.**

Mitxelenak XIX. mendearen erdian ezartzen du muga: 1700-1850 / 1850-1960. Nahiz ez duen zehazki justifikatzen, badirudi harentzat 1850. urtea muga kulturala dela eta euskal kulturaren baitakoa. Eus-
kalgintzan gertatu aldaketa bat hartzen du mugarritzat: euskara eta euskal kultura «objektu zientifiko, estetiko eta literario» bilakatzen den garaia egiten du muga, haren ustez. Adierazgarria da Bonaparte (1813-1891) printzearen ekarpenarekin abiatzen duela bere kapitulua. Euskarari guztiz interesatua zelako, frantses hizkuntzalari horrek hainbat ikerketa, itzulpen eta idazlan eraman eta diruz ordaindu zituen. Mitxelenak, Bonaparteren ekarpenarekin batera, Antoine d'Abbadierena (1810-1897) aipatzen du, batez ere *Euskal Pesten* bitartez Abbadie lortu zuen euskal kulturaren gizarteratze prozesuarengatik.

– **Ibon Sarasola, 1971, *Euskal literaturaren historia*.**

1545-1901 / 1901-1964.

Hamar bat urte berantago, arras ezberdina da Ibon Sarasolak egin zuen hautua. Haren ustez, XIX. mendean ez da aldaketa edo muga berezirik euskal literaturari begira. Ezinbestean, aurreko garaiei lotua da XIX. mendeko sorkuntza eta ez da haren baitan hausturarik aurkitzen ahal. Aldiz, XIX. mendeko bukaera molde finko batez markatzen du: 1901. Ez du bere banaketa argitzen, baina kapituluan zehar, uler daiteke politikak edo, hobeki erranez, aldaketa ideologikoak egiten duela muga. Sarasolak erakustera ematen du bigarren karlistadarekin bukatu zen garai luze eta nahasiak garai berri bati eman ziola sortzea. Europako erresuma gehienetan egin zen bezala XIX. mendeko bigarren partean, Euskal Herrian (Hegoaldean) ere industrializazioak garrantzi handiko aldaketak eragin zituen. Haien erregulatzeke euskal nazionalismoak eraiki zituen antolaketa eta sistema ideologikoa aipatzen ditu Sarasolak bere saiakeran. Euskal literaturaren sorkuntzari nola egokitu ziren eta zer eragin ukan zuten ere aztertzen du, besteak beste Txomin Agirrerren adibidea emanez. Noski, Lucien Goldman-en soziologiaren

erabilera eta «ikusmolde klasista» heldu da irakurlearen gogora Ibon Sarasolaren analisisaz jabetzean. Bide batez, azterketa horren gainean bermatzen da haustura historikoaren markatzeko eta erakusteko zergatik euskal literatura ez zen sartzen ahal XIX. mendeko bigarren partean Europan zehar hedatzen ari zen Modernitatean.

– **Iñaki Aldekoa, *Euskal literaturaren historia*, 2008.**

XIX. mendea : 1700-1833 / 1834-1936

Iñaki Aldekoaren historian, bi muga historiko garbi agertzen dira. Lehen karlistada hastapen gisa eta, denbora berean bihurtu ginetzat, eta beste muturrean, 36ko gerla. Erresuma Zaharraren krisitik abiatzen da I. Aldekoa, baina kultura mailan finkatzen du bere aztergai nagusia: bertsoaritzak ezagutzen duen berritzea, Lore Jokoek euskarazko sorkuntzari ematen dioten ezagutza soziala, etab. Hots, euskarazko sorkuntza literarioaren gizarteratze prozesua aztertzen du xeheki 1936ko haustura arte. Oron buru, nahiz euskal kulturaren baitatik mintzatzen den, I. Aldekoak historiaren zama hartzen du kontuan garaien arteko banaketa egiterakoan, bere bi aurrekoek baino aise gehiago. Menturaz, postura historiografiko berri horrek erakusten du gaurko historialariek «euskal historiaren eskema orokorra» gogoan edukiz egiten dutela beren periodizazioa.

Laburbilduz, erran daiteke eskualde bereko eta eremu kultural bereko hiru historiagileen artean, mende erdi batez, ez dela periodizazio mailan eredu finkorik, iraunkorrik, homogeneo eta adostasunekorik definitu ahal izan. Noski, aukera metodologikoak asko aldatu dira mende erdi batez eta batasun ezak horretan du, dudarik gabe, bere iturrietatik bat. Baina, gorago erran bezala, bada hain segur beste arrazoi bat funtsezkoagoa dena: XX. mende bukaera arte ez da euskal historiari buruz eredu historiografiko orokorrik izan, hots, Euskal Herriaren historia bere osotasunean pentsatu denik. Eskasa sendi da, nola ez, periodizazioaren gaiari begira.

– **Sinkroniaren arabera:** diakroniaren ondotik, ardatz sinkronikoa aztertzen baldin bada ere desadostasunak aurki daitezke. Garai bereko historiak, bata Iparraldekoa J.B. Orpustan-en *Précis d'histoire littéraire* delakoa, eta bestea, I. Aldekoaren *Historia de la literatura vasca* hartuko ditugu.

J-B. Orpustan (1996)	I. Aldekoa (2004)
1. 1545 aitzin.	1. XVI. mendea aitzin
2. 1545 – 1670.	2. XVI – XVII
3. 1670 – 1815.	3. 1700 – 1833
4. 1816 – 1907.	4. 1834 – 1936
5. 1908 – 1950.	5. 1937 – 1950
	6. 1950 – 1975
	7. 1975 – 2000

Garai bereko bi historiagile horien garai banaketa ikusiz eta liburuen edukian sartuz geroz, erran daiteke ezberdintasun nabariak badirela Iparralde eta Hegoaldekoen artean, euskal literaturaren tratamenduari begira. Hegoaldeko historialarientzat eta, aurreko puntuan bezala, XIX. mendearrekin segitzekotan, erran daiteke Penintsulako gertakari historiko-politikoek badutela eragin handia. Jadanik aipatu bezala, I. Aldekoarentzat, lehen karlistadak ematen dio XIX. mendeari hasiera eta 1936ko gerlarekin bukatzen da.

J.B. Orpustanek aldiz, Iparraldeko ikuspegitik aurkezten du garai bereko euskal sorkuntza. Frantziako historian gertatu haustura handiak kontuan hartzen ditu: 1789ko Iraultza; Napoleon Lehenaren Inperioa –1802/1815–; 1848ko Iraultza; Napoleon Hirugarrenaren garaia edo «Bigarren Inperioa» –1852/1870–; 1870eko gerlaren galtzea eta Hirugarren Errepublika, etab. Eta, bistan da, gertakari eta garai horiek eragin zuzena dute periodizazioan, era berdinean, autore eta obren aurkezpenean.

Adibide bakar bat hautatuz, Frantziako Iraultza aipa daiteke. J.B. Orpustanen ustez, Salbat Monho eta J. B. Elizanburu XIX. mendeko bi muturretako poeten kasuan, Iraultzak garrantzi handiko eragina ukan du. Monhoen obran, Iraultzak bihurgune bat marrazten du: Garat anaien alde agertu ondoan, Iraultzaren kontra altxatu zen, kleroaren aurkako neurriak hartu zirelarik. Elizanburuk ez zuen Iraultzaren garaia ezagutu, baina Napoleon III.a erori eta, armada utzi ondoan, errepublikano gisa agertu zen eta Iraultzaren miresle bezala. «Lehen eta orain» kantuan atxikimendu handi horren lekukotasuna eman zuen.

Bi adibide horietarik ezagun da J.B. Orpustanek frantses kulturari egin diola kontu handia, Frantziak ezagutu duen periodizazio historikoaren gainean bermatzen delako euskal literaturarena egiterakoan. Baina periodizazio horrek ez du berdin balio Euskal Herriko Hegoaldean idatzi den literaturarentzat eta, era berean, bi «Karlistaden» eragina zeharkakoa izan da Iparraldeko idazleentzat, salbu Agusti Xahorentzat eta Lore Jokoen antolaketarentzat. Eta aurki daiteke horrelako anitz ezberdintasun Iparraldeko edo Hegoaldeko ikuspegiaren artean.

2 Desadostasun horien iturriak eta kausak

Desadostasunen iturriak behar dira lehenik aipatu:

– Euskal kulturan, bi tradizio kultural baditugu eremu geolinguistiko bakar batentzat. Salbat Monho edo Jean-Baptiste Elizanburu ez dira Bilintx edo Felipe Arrese-Beitiarentzat erabiltzen diren irizpideekin osoki esplikatzeko ahal. Edo, hobe erranez, mementoan ez dakigu horren egiten.

Konkretuki, zer pasatzen da? Hegoaldeko historiagileek, XVII. mendetik aurrera, gutiago aipatzen dituzte Iparraldeko idazleak Hegoaldekoak baino⁴. Eta gisa berean, bere *Précis d'histoire littéraire* delakoan, J.B. Orpustanek Iparraldeko autoreak hobesten ditu.

– Bigarren iturriak gure eremu kulturean berean du bere sorburua. Hipotesi bat baizik ez da, oraindik eztabaidatzekoa dena.

Ontsalaraz, inguruko kultura garatuetan, literaturaren historiak eraiki du bere periodizazioa historia orokorrean. Gurean, alderantziz pasatu da. K. Mitxelenaren intuizioari esker, literaturaren historia goiztiarra, aurrekaria izan da Historiaren beste sailen artean. Mitxelenak, Hegoaldea eta Iparraldea bateratu zituen 1960an bere liburuan, bi eskualdeetako autoreak nahasiz bere corpusean.

⁴ Salbuespen gisa, Patri Urkizuren lana aipa daiteke, *Historia de la literatura vasca* delakoan. Bere euskal literaturaren historian, Patri Urkizuk bi eskualdeen arteko bitartekaritza lana egiten ohi du.

Historia orokor baten antolatzeke, baldintza politiko eta batasun sozioekonomiko eta kultural minimo batzuk beharrezkoak dira. 1960ko hamarkadan, begien bistakoa da baldintza horiek ez zirela betetzen ahal, ikusiz gaur egun oraindik zailtasunak zein nabariak diren.

Literaturarentzat, K. Mitxelenak oinarri amankomun sendoa proposatu zuen oinarri linguistikoarekin: euskara erabilia izan zen (ahozkoan zein idatzian) eremu guzia hartu zuen kontuan. Oroitarazi behar da, ordu arteko historiagileek ez zutela holakorik egin, ezin egina iduritzen zitzaielako: aipa ditzagun, P. Lhanderen *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) edo P. Lafitteren, *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1941).

Baina horren lortzeko bigarren kondizio bat bete behar zuen Mitxelenak: ordu arte ezin gaindituzkoa zirudien euskalkien bereizketa behar zen gainditu. Ondorioz, euskalkiak baino harago edo haien gainetik, batasun bat aurkitu behar zen. 30eko hamarkadan, argitaratu zuen artikulua batean, Orixeek bi eskualdeetako idazleak aipatu zituen, baina hark ere, euskalkiaren arabera sailkatu zituen.

Mitxelenaren historian ez da gehiago holakorik. Hark obra nagusiak, maisu lanak zerrendatu zituen zein euskalkitan idatziak ziren aipatu gabe edo doi-doia. Mitxelenarentzat, hizkuntza mailako berezitasunez eta ezberdintasunez gain, obra nagusiek batasun bat osatzen dute, funtsean, beste kultura garatuetan egiten den bezala.

Bigarren partea: Garaien arteko desorekak eta periodizazioa

Periodizazioaz aipa daitekeen bigarren aztergai premiazkoa, gaurko eredu historiografikoaren barnetik heldu da. Garaien arteko desoreka da, hain zuzen, eta deskribapen labur baten ondotik, haren ondorioak azpimarratuko dira.

1 Desorekak nabari gaurko historietan: garaien arteko desoreka

I. Aldekoa :

Historia de la literatura vasca (2004) – *Euskal literaturaren historia* (2008)

1. XVI. mendea aitzin: 1. kap. / **11.-22. or.**
2. XVI - XVII: 2., 3. kap. / **23.-57. or.**
3. 1700 - 1833: 4., 5. kap. / **58.-74. or.**
4. 1834 - 1936: 5., 6., 7., 8. kap. / **75.-127. or.**
5. 1937 - 1950: 9. kap./ **149.-160. or.**
6. 1950 - 1975: 10., 11., 12. kap./ **161.-180. or.**
7. 1975 - 2000: 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., 20. kap. / **181.-286. or.**

M.J. Olaziregi:

Euskal eleberriaren historia (2002)

- 1870 (Dasconaguerre–Elissamburu) – 1975 (eleberri esperimentala) : 8. or. (sartzea) / **49.-92. or.**
- 1976 - 2000: 26. or. (sartzea) (idazle garaikideak: autoreka) / **93.-182. or.**

J. Kortazar:

Literatura vasca. Siglo XX (1990) – *Euskal literatura XX. mendean* (2003)

- 1900: (S. Aranaren poesiak – R.M. Azkueren eleberriak) – 1978: / 13. or. (sartzea); **20.-194. or.**
- 1979 (*Etiopia*) – 2000 : 5. or. (sartzea); **195.-300. or.**

Desoreka begien bistakoa, gaineko erreferentziak hartzen baldin badira. Aukera horien arrazoi objektiboak badira eta ikertzaile guzientzat onargarriak dira, dudarik gabe. Azken berrogei urte hauetan, dena aldatu da euskal literaturaren inguruan: literaturaren baldintza estetikoak, sinbolikoak, ekonomikoak, politikoak, demografikoak, praktikoak, etab. Argitalpena eta

liburuaren merkatua erabat aldatu dira berrogei urtez. Harreraren aldetik, moldeak eta aktoreak errotik berritu dira: eskola eta unibertsitatearen bitartez, prentsaren bitartez, publikoa bera aldatu da eta, idazleen sariztatzeko eta kontsakratzeko bideak ere bai. Hots, duela mende erdi bat, euskal literaturaren historialariek edo kritikariek denbora asko xahutu behar zuten Euskal Herriko eta kanpoko jendearen konbentzitzeko euskal literatura dei zitekeen zer bait bazela. Gaur egun, lizeoko eta unibertsitateko ikasgai bilakatua da euskal literatura, solasaldiak antolatzen haren aztertze eta idazleentzat sariak banatzen dira Euskal Herrian eta berdin kanpoan.

Horiek oro gogoan, ikus daiteke garaien artean zer banaketa eskaintzen duten gainean aipatzen diren hiru historiagileek. Hiru historia mota dira. I. Aldekoarena euskal literaturaren historia orokorra da. Hartan, XX. mendeak liburuaren erdia baino gehiago hartzen du eta, XX. mendean, 1975etik goitiko parteak 2000. urtea arte, 20 sartzeetarik 8.

XX. mendea bakarrik kontuan hartzen dute J. Kortazar (*Euskal literatura XX.mendean* – 2003) eta M. J. Olaziregiren historiek. Bigarrenak eleberriari *Euskal eleberriaren historia* – 2002) mugatzen du bere azterketa.

Bietan, trantsiziotik haragoko parteak du orrialde kopuru handiena hartzen. Gainera, gero eta xeheagoa, zehatzagoa da banaketa, eta askotan autoreka bukatzen da. Gisa horretan, parte garaikideek tratamendu joriagoa badute lehengo garaiek baino. Kontraste baten sortzeko, konparazioa egiten ahal da *Précis d'Histoire littéraire basque* liburuarekin. Azterketa XX. mende erdian (1950) gelditzen da. Dударik gabe aukera horrengatik, garbi dago gaurko aditu askorentzat «literario» ez diren sailek badutela liburu horretan toki nasaia eta ñabardura askorekin zehaztuak direla: «La poésie de circonstance, la poésie religieuse et la poésie didactique», «Aux marges du littéraire: dévots, apologistes et grammairiens», «Deux prosateurs issus du journalisme», etab.

Aldiz, autore berrien liburuetan (adibidez: Aldekoa, Kortazar, Olaziregi), lehengo garaiak gehiago «bilduak» dira. Baina bigarren gerlatik landa (Aresti/Mirande, etab.) eta, are gehiago 1975etik goiti, garaiak laburtzen dira eta badirudi gero eta lasterrago iragaten direla. Gisa berean, obra eta autoreen sailkapena gero eta finagoa bilakatzen da gure garaitik hurbiltzean,

kategoriak ugaritzen dira, ñabardurak ere bai. Kategorien izenburuak guziz zehaztuak dira:

M.J. Olaziregi: «Euskal eleberri modernoa», «Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1975-2000)».

I. Aldekoa : «Modernotasuna euskal eleberrigintzan: Txillardegi eta Ramon Saizarbitoria» ; «Trantsizioko euskal literatura (1975-2000)».

I. Aldekoa / J. Kortazar: askotan, sailkapena kronologiaren arabera egiten da. «Laurogei eta laurogeita hamarrek urteetako poesia»; «80ko hamarkadako literatura: poemagintza».

Parte garaikideari toki handiena emanez, obra eta autore kopuruarengatik bakarrik, desoreka mekanikoki sortzen da. Euskal literaturaren corpusa desorekatu agertzen da. J.B. Orpustanek bere aukera historiografikoenatik aipatu zituen genero eta aurreko obra eta autore batzuk desagertzen dira edo, bigarren eta hirugarren mailakoak bilakatzen dira, garaikideen aurrean ez dutelako pisu handirik.

2 Ikuspuntu «garaikidea»ren premia: lehengo garaien «ezabaketa» kontzeptuala

Desoreka horrek iturri jakin bat badu. Gaurko euskal literaturaren historiagileek kontuan hartzen dituzte azken urteetan literaturaren eremuan gertatu diren aldaketa nagusiak, agertu diren obra eta idazle berriak. Erran nahi baita sarrarazten dituztela beren historietan gaurko sorkuntza eta idazle garaikideak; praktikan, beren liburua bukatzen duen garaia produkziozaino doaz. Joera hori erabat zabaldua da euskal eremuan eta, iduriz, adostasunezkoa da. Gehienetan, euskal literatura garaikideak ezagutu duen bilakaera orokorra gertakari «objektibo» bat bezala aurkeztua da.

Hots, literaturaren definizio «modernista» baten hautua egiten da. Jakienez, kopuruaren aldetik sekulan baino indartsuagoa dela literatura garaikidearen ekoizpena, automatikoki desoreka diakronikoaren indartzera behartuak dira egungo historialariak. Bi aukera horiengatik, azken 30 urteren tokia handitu da, ezinbestez, argitaratu diren euskal literaturaren historietan.

Oroitu behar da aukera horiek ez direla eremu kultural guzietan egiten. Beste tradizio historiografiko gehienetan, ez da garaikideen azken punta literaturaren historia orokorrean sarrarazten. Komunzki, bestalde lantzen da, molde berezi batez⁵, nahiz joera hori aldatzen ari den astiro. Bortxaz, urte batzuen gibelatzea hartuz, idazle garaikideen multzo nasaiaren baitan bahetze edo irazte lana berenaz egiten da eta, «kontsakratu berriak» tanta-ka baizik ez dira sartzen corpusetan eta kanonean.

Egungo euskal literatura mailan, «Ikuspuntu garaikidea» hobestea denententazioa da, irakasleena, argitaratzaileena, kritika eta literaturaren historian ari diren profesionalena ere bai. Arrisku asko ekartzen du holako hau-tuak. Horietan, beharbada handiena, lehengo garaien tokia mendretzeare-kin batean, edo haren ondotik, haien ezabaketa «kontzeptuala». Azkenean, ikertzaile eta doktoregaien galdera izan daiteke: zergatik azter eta aipa his-torietan gero eta gutiago agertzen den garai bat?

3 Ondorioak periodizazio mailan: klasikotze prozesuari traba; ikuspegi teleologikoa nagusi.

Euskal literaturaren corpuseko desorekak ondorioak baditu kanonean eta haren iraunkortasunari begira. Komunzki, beste tradizioetan, kanona-ren edukia eta oreka bi molde ezberdinez aldatzen da :

Kanpotik: idazle garaikide zenbait sarrarazten dira, baina astiro, bahe metodologiko batzuen bitartez eta tradizio historiko ezberdinen eritmoaren arabera⁶.

Barnetik: ikerketaren bitartez, tesi edo saiakera baten kariatetan, autore bat, mugimendu bat edo garai bat berriz miatzen da eta, aurkikuntza berrien arabera, ordu arteko «balioak» gora edo behera mugitzen dira.

Euskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950 aurreko kanona abantzu

⁵ Ikus: Dominique Viart, Bruno Vercier, 2005, *La littérature française au présent*. Bordas.

⁶ Adibide gisa, frantses tradizio historiografikoa aipa daiteke kontserbadoreen artean.

hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu. Salbuespen guti izan da (Lazarra sartzeari; Oihenart eta Jean Etxepareren gorakada) eta, oro har, eztabaida guti izan da lehengo garaiei buruz edo kanonari buruz.

Desoreka diakronikoaren ondorio zuzena da klasikoaren baztertzeari. Denbora berean, obra garaikideak aipatzen dira, baina «klasikotze» prozesuak ez du ongi funtzionatzen. Kongsakratzeko makina ez da behar bezala martxan: sorkuntza garaikidea integratzeagatik, ez da hauturik egiten ahal. Orduan, denak ezartzen dira historiaren orrialdeetan, oker ibiltzeko orde.

Konklusioa

Euskal literatura mailan, gaur egun, «kontaketa nagusi» bat bada, historiagileek erraten duten bezala. Mitxelenak sortu eredua osatua eta berritua izana da berrogei bat urtez. Gaur egun duguna, eredu berritua eta adostasunezkoa dela erran daiteke.

Berritua da, mende erdi batez etengabe osatua izan baita. Metodologia berriak, agertu arau, integratuak eta erabiliak izan dira, hala nola R. Escarpit-en literaturaren soziologia kuantitatiboa edo, berantago, P. Bourdieuren *habitus*-a.

Bide batez, adostasunezko eredua da P. Bourdieuk «instituzioak» deitzen dituen instantziek (eskolak, akademiek, argitaletxeek, kritikak, etab.) onartu eta transmititu dutelako, eredu finko eta borobiltzat emanik.

Noski, gorago erran bezala, gabeziak badira eredu horretan, eta horietarik oinarritzkoena, periodizazioa. Orduan, zer egin?

Tabula rasaren tentazioa baztertzen bada, zein dira periodizazio eredu iraunkor baten finkatzeko egin behar diren indarrak eta urraspideak?

– Eredu «nazional» adostasunezkoa osatu eta hobetu behar ote da, transiziozko eredu batua proposatuz eta Iparraldeko eta Hegoaldeko arteka emeki-emeki mendretuz?

Ala,

– Eredunazionalaren gaineko mailatik abiatu behar ote da? Eredukontinentaletik, erran nahi baita, Europaren mailatik, Robert Cutiusek 50eko hamarkadan egin zuen bezala latinez idatzitako Erdi Aroko literatura europarrarentzat? Ala, harago joanez, P. Casanovak⁷ proposatzen duen bezala, eredu mundialean murgilduz, alde bat desagertzeko kezka haizatuz?

Gogoetak sendotuz doaz, baina eztabaida ez da oraindik trenkatzeko heinean. Bizkitartean, eztabaida beharrezkoa da eta, aurkako kontaketak edo kontrako ereduak sortuko dira, dudarik gabe, beharrezkoak direlako. Zenbait agertzen hasiak dira: besteak beste, Joseba Gabilondo⁸ berea eraikitzen ari da.

Bibliografia

Erreferentzia orokorrak

BIRON, M., DUMONT, F., NARDOUT-LAFARGE, E. 2007, *Histoire de la littérature québécoise*. Montreal: Boréal.

BONELLS, J., 1994, *Histoire de la littérature catalane*. Paris: PUF.

CASANOVA, P., 1999, *La République mondiale des lettres*. Paris: Seuil.

———, (DIR.), 2011, *Des littératures combatives*. Paris: Raisons d’agir.

CHAMBON, J-P, 2013, «Combien de littératures d’oc? Une question de fond pour les nouvelles études occitanes», in *Revue des langues romanes*, n°1.

CHAMOISEAU, P., 1997, *Ecrire en Pays dominé*. Paris: Gallimard.

———, Confiant, R., 1999, *Lettres Créoles*. Paris: Gallimard.

FIGUEROA, A., 1988, *Diglosia e Texto*. Saint-Jacques de Compostelle: Xerais.

GLISSANT (Edouard). *Le Discours antillais*, Paris: Gallimard, 1981.

⁷ Casanova, Pascale, 1999, *La République mondiale des lettres*. Paris: Seuil.

⁸ Gabilondo, Joseba, 2004, *Nazioaren Hondarrak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013, *New York–Martutene*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

LAFONT, R., 1987, «Deux littératures d'oc successives? Questions de méthodologie», in *Actes du Premier Congrès international de l'association internationale d'Etudes occitanes*. Londres.

MAGETTI, D., 1995, *L'invention de la littérature romande (1830–1910)*. Lausanne: Payot.

PARÉ, F., 2001, *Les littératures de l'exiguïté*. Ottawa: Le Nordir.

THIESSE, A-M, , 1999, *La création des identités nationales*. Paris: Seuil.

VAILLANT, A., 2010, *L'Histoire littéraire*. Paris: Armand Colin.

VERCIER, B., VIART, D., 2005, *La littérature française au présent*. Paris: Bordas.

Euskal eremuko erreferentziak

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.

———, 2008, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

APALATEGI, U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque*. Paris: L'Harmattan. ; [HTTP://WWW.BASQUELITERATURE.COM/EN/](http://www.basqueliterature.com/en/)

CASENAVE, J., 2012, *Euskal literaturaren historiaren historia. Gurea nola konda?*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

ETXANIZ, X., 1997, *Euskal haur eta gazte literatura*. Iruñea: Pamiela.

FRANCISQUE-MICHEL, F. X., 1857–1994,), *Le Pays basque*. Paris: Didot, 1857; Bayonne: Ed. Elkar, 1994.

GABILONDO, J., 2004,, *Nazioaren Hondarrak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

———, 2013, *New York–Martutene*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

HARITSCHELHAR, J., 1969, *Le poète Pierre–Topet–Etchahun. Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*. Bayonne: Ed. Musée basque.

JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*. Madrid: Taurus.

KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*. Bilbao: Mensajero.

———, 2003, *XX. Mendeko euskal literatura*. Zaragoza: Prames.

LAFITTE, P., 1941, *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Bayonne: Le Livre.

LASAGABASTER, T., 1983, *Las literaturas de los vascos*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

LEKUONA, J. M., 1982, *Ahozko literatura*. Donostia: Erein.

LHANDE, P., 1925, *Le Pays basque à vol d'oiseau*. Beauchesne.

MITXELENA, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Minotauro.

MUJICA, Luis Mari, 1979, *Historia de la literatura euskera*. Donostia: Kriseilu.

OLAZIREGI, M. J., 2002, *Euskal eleberraren historia*. Bilbo: Labayru.

———, 2012, (dr.), *Basque Literary History*. Reno: University of Nevada; *Basqueliterature.com*, *Euskal literaturaren ataria* ; <http://www.basqueliterature.com/en/>

ORMAETXEA, N. «ORIXE», 1927, *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra*. Euskal Esnalea, XVIII; 2002, *Euskal literaturaren historia laburra* (réédition de 1927). Donostia: Utriusque Vasconiae.

ORPUSTAN, J-B, 1996, *Précis de littérature basque*. Saint-Etienne de Baigorri: Izpegi.

SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.

TORREALDAI, J. M, 1977, *Euskal idazleak gaur*. Donostia: Jakin.

———, 2007, *30 urte liburugintzan*. Donostia: Jakin.

VILLASANTE, L., 1961, *Historia de la literatura vasca*. Zarautz: Sendo.

VINSON, J., 1882, *Les Basques et le Pays basque*. Paris: Cerf.



***Euskara eta vascuence* hitzen adiera
metriko-poetikoaz: katebegi ostenduak,
aroen mitoa eta periodizazio irizpideak
euskal literaturaren historian**

Sobre la acepción métrico-poética de los términos *euskara* y *vascuence*: eslabones ocultos, mito de las edades y criterios de periodización en la historia de la literatura vasca

Sur l'acception métrico-poétique des termes *euskera* et *vascuence*: chaîons cachés, mythe des âges et critères de périodisation dans l'histoire de la littérature basque

On the metrical and poetic meaning of *euskara* and *vascuence*: hidden links, the myth of the ages and periodisation criteria in the history of Basque literature

BIJUESCA, K. Josu
Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2014-07-01
Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 2. 577-608. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulua hiru partetan dago banatuta. Lehenengoak *euskara* eta *vascuence* hitzen adiera metriko-poetikoa (oraindik hiztegieta jaso gabea) aztertuz, adiera hori Larramendik Mikoletarengandik jaso zezakeelako hipotesia aurkezten du. Bigarrenak Larramendiren *euskara* poetiko bat arakatzeko du urrezko eta burdin aroen mitoek Monarkia Hispanikoaren formazio diskurtsibo inperialean zuten egitekoaren harira. Hirugarrenean euskaldunei egotzitako burdin aro hori euskal literaturaren ezagutzarako episteme gisa erabiltzeko proposamena eskaintzen da, ohiko periodizazio kategorien orde.

Hitz-gakoak: euskara, vascuence, adiera metriko-poetikoa, Mikoleta, Larramendi, episteme.

El artículo está dividido en tres partes. La primera analiza el significado métrico-poético de las palabras *euskara* y *vascuence*, aún no recogido en los diccionarios. El autor presenta la hipótesis de que Larramendi pudo tomar esa acepción de Mikoleta. La segunda parte indaga en el *euskara* poético de Larramendi, en conexión con la función que desempeñaron los mitos de la edad de oro y de hierro en la formación discursiva imperial de la Monarquía Hispánica. En la tercera parte, se propone utilizar esa edad de hierro que se ha atribuido a los vascos como episteme para el conocimiento de la literatura vasca, en sustitución de las tradicionales categorías de periodización.

Palabras clave: Euskara, vascuence, significado métrico-poético, Mikoleta, Larramendi, episteme.

Cet article se divise en trois parties. La première partie analyse le sens métrico-poétique des mots *euskara* et *vascuence*, lorsqu'il ne figure pas encore dans les dictionnaires. L'auteur présente l'hypothèse que Larramendi ait pu emprunter cette acception à Mikoleta. La seconde partie enquête sur l'*euskara* poétique de Larramendi, en lien avec la fonction qu'occupèrent les mythes de l'âge d'or et de fer dans la formation discursive impériale de la Monarchie Hispanique. La troisième partie propose d'utiliser cet âge de fer que l'on a attribué aux Basques comme épistémé pour la connaissance de la littérature basque, en remplacement des catégories traditionnelles de périodisation.

Mots-clés: Euskara, vascuence, sens métrico-poétique, Mikoleta, Larramendi, épistémé.

The article is divided into three parts. In the first part, the metrical-poetical meaning of the words *euskara* and *vascuence* is discussed, even though it has not been registered in the dictionary. The author offers the hypothesis that Larramendi could have taken the meaning from Mikoleta. In the second part Larramendi's poetical *euskara* is analysed in the context of the function of the golden and iron age myths in the development of the Spanish monarchy's imperial discursive formation. In the third part, a proposal is developed to use that iron

age attributed to Basques as an episteme for the knowledge of Basque literature instead of the usual periodization categories.

Keywords: Euskara, Basque, metrical-poetical meaning, Mikoleta, Larramendi, episteme.

Literaturaren Historiografia Lehen Jardunaldietan Iratxe Retolazak, herrikoitasun kontzeptuaz gogoetan ziharduela, kate edo hariaren irudia erabiltzen zuen literaturaren historiaren egitekoa adierazteko:

Literaturaren historiek hari narratibo edo kate narratibo batean biltzen dituzte gertakari literarioak, eta katebegiak irudikatzen dituzte. Modu horretan, literaturaren historialariek gertakari literario horiek kateatzearekin batera, hutsuneak edo isiluneak ere kate diskurtsiboan bildu behar dituzte, hari edo kate narratibo horretan zentzua emanez. Ondorioz, Literaturaren Historia egiterakoan lehen urratsa, ezinbestez, kateatu behar diren gertakari literario horien nolakotasuna mugatzean datza (Retolaza, 2010, 958).

Literaturaren Historiaren egitekoa zehaztearekin batera, Euskal Literaturaren Historiek orokorrean literatura idatziaren historia osatzen dutela ohar-tarazi zuen, «liburuen argitalpenak izan ohi direlako gertakari literario kateatu horiek» eta horren ondorioz «historiako katebegi galdu bat irudikatzeko gaitasunaz litzateke herri-literatura baloratzeko irizpide bakar» (Retolaza, 2010, 959 eta 970). Hortik Retolazaren aldarrikapena herri literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeko eta horrekin batera «herri-literatura eta literatura jasoaren artean dagoen continuum literarioaz aritzeko logika berria» sortzeko gonbidapena (Retolaza, 2010, 975).

Euskal literaturaren historia katebegi galduz beteriko eremutzat irudika liteke. Katebegi galduen azken izarra Lazarragaren eskuizkribua izan da, hori bera ere literatura jasoaren eta herri literaturaren ezaugarri hornitua (Cid, 2013). XIX. mendetik hona ugari izan dira gure literaturaren historian aurkituriko katebegiak, denak ere gogoangarriak, Lazarragarenak besteko distira erakutsi ez badute ere. Katebegi horietako batzuk ezustean azaldu dira, inork gutxik haien berri zekiela gure artean: horietakoa izan liteke Mikoletarena, laster mintzagai izango dudana, eta haren antzera beste asko eskuizkribu eta orri solteetan geldiro-geldiro agertu direnak XX. mendean zehar ikertzaileek artxiboetan egindako lanari esker. Beste batzuekin alde-rantziz gertatzen da: badakigu haien berri baina ez ditugu aurkitu.¹

¹ Ikus, esate baterako, Ricardo Gomezek FiloBlogia blogean eskainitako zerrenda eta hari eman-dako erantzunak (Gomez, 2006). Urkizuk ere zenbait berri jaso du bere euskal literaturaren his-

Katebegi galduaren irudia zenbateraino den topikoa gure literaturan Jon Alonsoren 1995eko eleberriak erakusten du. Nire asmoa ez da orain katebegi galdu horien historia egitea, nahiz eta agerikoa begitانتzen zaidan berandu baino lehen historia hori idatzi beharra, ez soilik euskal literaturaren oinarri enpirikoaren alde garrantzitsua direlako, baizik eta batez ere azalpen eske dagoelako zergatik izan dituen (eta oraindik dituen) horrenbeste katebegi galdu gurea bezalako literatura batek, zenbateraino euskal literaturaren historia izan den galtze horiek erraztuko lituzketen biolentzia sinboliko eta epistemikoen emaitza. Eta zeregin horretarako hurbilketa positibista hutsa ez da nahikoa ziur asko.

Oraingoan baina, katebegi galduak ez ezik, ostendurikorik ere ote dagoen ekarri nahi nuke eztabaidara, ikusezin gertatzen zaigun ertzik, alegia itsuturik ote gauden euskal literaturaren gertaera zenbait azaltzeko nahiz eta azalpena gure begi aurrean egon litekeen, ba ote dagoen itsutasun egoera horretara lotzen gaituen ikuspegi epistemologikorik edota, alderantziz, gure ezagutza hobe lezakeenik.

1. Euskal literaturaren historiako katebegi ostendu bat?

Iraganean ere erakutsi izan dut noiz edo noiz nire harridura Mikoletaren «Modo de la vizcaína poesía y sus versos» atalean *vascuences* deitu izanagatik bere sasoiko poesia eredu zenbait. Mikoletak berba hori aukeratu izana azaltzeko ahaleginik ere egin dut: gaztelaniazko *romance* berbak hizkuntza eta aldi berean hizkuntza horretako poesia molde berariazkoenatarikoa izendatzen dituen moduan, *vascuence* ere adiera bikoitz horren arabera erabiliko luke Mikoletak, hizkuntzaren ohiko adierari poesia moldearena gehituta.

Halaber Mikoleta *vascuence* hitzaren erabilera horren asmatzailatzat jo izan dut, eta beraren proposamena isolatu eta oihartzunik gabekotzat euskal literaturaren historian (Bijuesca, 2008, 14-15). XVII. mendeko bilbotar horren lanak non eta Britainia Handian izan zuen oihartzuna eta jaso zuen

torian (Urkizu, 2000). Herri literaturan ere ontzat jo liteke ugari dela galdutakoa.

benetako arreta (Zulaika, 2009), hango hizkuntzazale baten mandatuz idatzi zenez gero euskal poesiari buruzko atala biltzen duen *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, zeinaren eskuizkribu bakarra oraindik Londreseko British Libraryn gorde den. Euskaldunok ostera XIX. mendera arte itxaron behar izan genuen Mikoletaren lanaren berri jakiteko, itxura guztien arabera.

Euskal literaturaren historiari begiratu arretatsuagoa eginez gero, ostera, bilbotarraren lanaren isolamendua eta oihartzun gabezia auzitan jartzeko aztarnarik aurki liteke. Izan ere *vascuence* hitza bera ez baina haren euskarazko ordaina, *euskara*, adiera metriko poetikoaz darabil Larramendik *Artean*, jakina denez. Hortaz, Andoaingo jesuitak *Artearen* amaierako poesia-gintzari buruzko atalean *euskara* hitza darabil Mikoletak *vascuence* berbari atxikitako adiera metriko-poetiko bertsuarekin, alegia gaztelaniazko *romance* bertso moldearen baliokide legez: «Esta *Euscara*, que corresponde al metro que se llama *Romance*, se tradujo con la puntualidad posible así en dísticos latinos como en endechas castellanas, pero siempre quedó con más gusto y gala en el Bascuence»² (Larramendi, 1729, 385).

Vascuence eta *euskara* berbetan ez ezik, tentagarria da elizgizon bien arteko harremana euren teoria poetikoetan ere arakatzea. Izan ere, zenbat eta gehiago alderatu Larramendiren *Arteko* kapitulua Mikoletaren eskuizkribuarekin, orduan eta agerikoago begitantzen zait jesuita San Antoneko presbiteroaren zordun izan litekeela. Horrek ez du esan nahi Larramendik Mikoleta plagiatu zuenik, ezpada honek idatzitakoa ezagutzen zuela. Andoaindarra bilbotarrarengandik aldentzen denean ere, nekez uka litezke haien arteko antzekotasunak, ondorengo taulak erakusten duenez:

² Gaztelaniazko aipuetan grafia eta puntuazioa gaurkotuz aldatu dira testuak, Larramendiren *Arteko bascuence* eta *bascongado/-a* izan ezik, andoaindarrak hala idazten dituen zera gero ia beti.

Mikoleta	Larramendi
Vizcaína poesía / poesía vascongada	Poesía bascongada (373)
Ordinariamente hay en nuestra lengua dos modos de versos. Son pues, como digo, dos los géneros de nuestra poesía. Digo hablando generalmente porque abajo diré de otro género de versos que no son vulgares.	Dos modos de poesía son los que vulgarmente están en uso. (373)
Entrambos [modos de versos] se componen de asonantes como los romances de la lengua castellana. Y a este símil los llamamos nosotros vascuences.	Esta Euscara, que corresponde al metro que se llama Romance, se tradujo con la puntualidad posible así en dísticos latinos como en endechas castellanas, pero siempre quedó con más gusto y gala en el Bascuence. (385)
Abajo diré de otro género de versos que no son vulgares. También algunos modernos del Parnaso Cantábrico han escrito décimas, liras y sonetos en vascuence con los mismos acentos y consonantes que suelen tener en romance, pero es obra de poco lucimiento, por los pocos que en vascuence entienden este metro.	El Bascuence es capaz de todos los metros de que es capaz el romance, sin que haya más dificultad de componer en una que en otra lengua. (381) Todo esto hace mucha novedad a los Bascongados, como el ver estos metros [gatzelaniaz ohiko direnak] en Bascuence, y más si se practican con la licencia que hay en otras lenguas de la metáfora, analogía y demás licencias retóricas y poéticas. Pero esto nace de la falta de uso y aplicación en todos, y en los más de la falta de reflexión y del no saber los primores del Bascuence. (382-383)

Antzekotasunak antzekotasun, aldeak ere nabarmenak dira. Aldeok honela adieraz daitezke, berriro ere prezeptista bien ikuspegiak aurrez aurre jarrita:

Mikoleta	Larramendi
Dejando a las coplas de Lelori, lelori, que suelen cantar las mozas los días festivos, que no entran en la más grave poesía vascongada [...]	1. De la poesía bascongada que está en uso Dos modos de poesía son los que vulgarmente están en uso: 1.1. El primero es más arbitrario y libre, porque no tanto se atiene a los pies y sílabas del verso y metro, cuanto al aire y armonía del canto y música a que se acomodan [...] No pongo ejemplos desto por ser vulgarísimos. 1.2. El segundo modo de versos no es tan libre porque guarda sus leyes de número determinado de sílabas en cada verso. [Adibideak: Ziburuko Etxeberri] 1.2.1. <i>Noelac</i>: obseva un método como de cuartetas, en que constando cada verso de ocho sílabas, concierta en consonante el segundo con el cuarto. 1.2.2. <i>Manual devocionezcoa</i>: obseva otro metro, como de Arte mayor, en que guardan el consonante riguroso los versos inmediatos, pero no siempre el mismo número de sílabas en cada verso.
	2. De la poesía de que es capaz el Bascuenze El bascuence es capaz de todos los metros de que es capaz el romance sin que haya más dificultad de componer en una que en otra lengua. [Adibideak:]

Mikoleta	Larramendi
1. El primer modo de versificar [vascuences] es a este tono [Adibidea: Amoren contentuac]	2.1. Euskara: Aquella <i>Euscara</i> , que se hizo en Salamanca en la muerte de Luis I [...]. Esta <i>Euscara</i> , que corresponde al metro que se llama <i>Romance</i> [...].
2. El otro [modo de vascuences] es más largo, a modo de soneto. Y se canta de ordinario por el son que llaman <i>Las vacas</i> , y aunque es a modo de soneto, también se compone por asonantes [Adibidea: Denbora baten on oynerechu]	
3. [Abajo diré de otro género de versos que no son vulgares ...]. También algunos modernos del Parnaso Cantábrico han escrito décimas, liras y sonetos en vascuence [...].	2.2. Amardún [décima] 2.3. Amalaudún [soneto]

Mikoletaren eta Larramendiren arteko aldeak ugari dira, bai kontzeptualizazioaren irizpideari dagokionez, bai jarrerai dagokienez ere. Kontzeptualizazioari dagokionez, Mikoletak ohikotzat jotzen dituen moldeak, eta gaztelaniazko erromantzearekin identifikatzen dituenak, egungo bertsolaritzako handi eta txikitzat ditugunak dira. Molde horiek hain zuzen ere Larramendik ez ditu aipatu ere egin, edo zeharka baino ez: «*zortzicó*, y mucho mejor *zortzidún*[,] *amarcó*, y mucho mejor *amardún*» (1729, 382). Jesuitak ohikotzat jotzen dituenak, alde batetik modako doinuetara egokitutakoak dira eta herrikoienak (adibiderik ere merezi ez dutenak), eta besetik liburu inprimatuetara heldu diren bi molde, horrek eta errima kontsonantea izateak dakarkien kutsu jasoaz hornituak biak ala biak.

Ohiko moduz gain bada beste modu bat Mikoletak bere binakako sailkapenetik kanpo utzia eta gutxi-asko Larramendiren bigarren moduarekin bat datorrena. Modu hori ez da horren usadiokoa Mikoletaren esanetan, eta horrexegatik baztergarritzat jotzen du behar bada molde arrotzen imitazioan

datzalako («décimas, liras y sonetos [...] obra de poco lucimiento por los pocos que en vascuence entienden estos metros»). Larramendi hizkuntza-ren apologistak, oster, baztertu ez ezik aldarrikatu ere egiten ditu, euskarak molde horietara egokitze gaitasuna baduela frogatu nahirik. Molde jaso eta izen oneko horietarako euskarak duen gaitasuna erakusteko asmoz, Mikoletak bazterturiko *décima* eta sonetoen adibideak bildu ditu Larramendik (lirarenik ez ote zuen aurkitu?). Eta horiekin batera *euskara* izeneko moldeari dagokion poema bat ere ekarri du, ez soilik gaztelaniaren *romance* delakoaren euskal baliokidea, baizik eta haren ordain erabatekoa itxura guztien arabera³.

Hementxe ageri dira ziur asko elizgizon bien arteko alderik handienak. Kontzeptualizazioaren aldetik, bilbotarrak *vascuence* deitzen dituenak –*romance* haren baliokide eginik– euskarazko herri poesiako molde handi eta txikiak diren bitartean (Mitxelena ikusarazi zuenez), andoaindarrak *euskara* izeneko moldea gaztelaniazko *romance* moldearen ordain zurrun egiten du, honen ezaugarri guztiekin. Eta jarreraren aldetik, Mikoletak euskarazko herri moldeak hobetsi (lelori koplak izan ezik) eta arrotzak baztertzen dituen bitartean, Larramendi molde jasoagoen aldeko ageri da, bertakoak nahiz arrotzak izan, molde nagusi eta txikia bezalako herri ereduak aipatu ere egin gabe, behar bada eredu arrotz baina izen onekook egokiagoak direlakoan bere tesia frogatzeko, alegia euskarak duen gaitasuna arte poetikoaren arauetara makurtzeko, gramatikaren artearen alorrean egin berri duen legez. Hortik ondorio bikoitza aterako litzateke: euskara gramatikaren artearen arauetara makurtzen den hizkuntza elegante dela eta ez barbaroa (Mitxelena, 1960, 119), eta horrekin batera, arte poetikoaren arauetara ere makur daitekeen hizkuntza ere badela eta beraz inguruko hizkuntzek besteko errespetua merezi duena. Larramendiren asmoa agerikoa zen lehendik ere, Luis I.a erregearen hiletetarako *euskara* hori idaztean aditzera eman zuenez: «para que se viese que la Lengua

³ Silaba kopuruari dagokionez ez datoz bat poema hori aztertu dutenak. Bada zazpi silabadun bertso lerroak ikusi dituenik (Altuna, 2002, 26), bai eta lerro guztiak zortzi silabaduntzat jotzen dituenik ere, zazpidunak diruditeinei silaba bat gehituta oxitonoak direlakoan (Juaristi, 1990, 399-400).

santa del Vascuenze sabe avenirse con las Leyes métricas del Parnaso» (Lardizaval, 1724)⁴. Berriro ere, Larramendirenean Mikoletaren oihartzunak, azken honengandik bereizteko bada ere: presbiteroak Parnaso Cantabrico hartako modernoak erdeinuz aipatzen zituen euskal poesia beste Parnaso batetiko arau berri eta ezohikoetara makurrarazten zutelakoan; jesuitak oster horixe bilatzen du nonbait, Parnaso gaztelauko arauetara moldatzeko euskarak duen gaitasuna erakustea.

Larramendik Mikoletaren lana ezagutu izanaren beste aztarna bat Lardizavalen 1724ko edizioak eman lezake. Bertan Larramendik «mi vascuence poético» dio bere *euskara* poemaz diharduela (Lardizaval, 1724). Bestalde, hizkuntzaren izenari adiera metriko-poetikoa gehitzearen proposamenak utzi zuen beste oihartzunik *Hiztegi Hirukoitzan* ere. *Bascuence* hitzari ohiko adiera dagokio, sarrera hitz bakarrean («Bascuence, lengua de los vascongados, *euscara*, *eusquera*, *escuara*»). *Romance* hitzak sarrera bi ditu, lehenengo ohiko hizkuntz adierari eskainia eta bigarrena adiera metriko-poetikoari: «Romance, poesía, *erdara*. Lat. Dimetrum Hispanicum alternis versibus assonum.» (Larramendi, 1745), hortaz *erdara* hitzari ere adiera metriko-poetikoa erantsi dio Larramendik, *Artean euskara* berbarekin egin bezala.

Larramendiren metrika proposamena bereganatu zutenen artean Kardaberaz dugu. Honek *eusquera* izeneko poematxo bi txertatu zituen *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac* liburuaren amaieran (Kardaberaz, 1973, 1, 258-259). Bestela ere Kardaberazen terminologia poetikoari kutsu larramendiar nabarmena dario (Altuna, 2000, 23-34). *Artean* aurkezturiko ereduetatik zenbaitek bizitza luzeagoa izan zuten jesuiten poesiagintzan behintzat, baina ez *euskara* izeneko molde honek, itxura guztien arabera. Jose Ignacio Aranak osaturiko jesuiten poesia bilduman ez da *euskara* gehiago ageri Kardaberazek ondutakoen ostean (Altuna, 2000), ez eta Aranak berak osaturiko *Tratado de métrica vasca* (1872) azterlanean ere (Altuna,

⁴ *Euskara* hori idazle izenik gabe aurkeztu bazen ere *Artean*, ezaguna da lehendik ere argitaratua zela poema hori bera eta Larramendi izan daitekeela beraren egilerik ziurrena (Goikoetxea, 1967), argitalpen berean ageri den sermoiaren egilea den bezala (Larramendi, 1973, 292). Lehen edizio horretako *euskara* edo inguruko beste pasarteren bat aldatzean ez da orrialde zenbakirik zehazturiko, Lardizavalek prestatutako edizioan orrialdeak zenbakitu gabe ageri direnez gero.

1992). Arana, gainera, Mikoletaren beraren berri izatera heldu zen, Dodgsonek 1895ean berari idatzitako gutunek erakusten dutenez, baina ordurako metrika azterketa burutua zuen (Altuna, 2002, 428-429). Azkenik, Aranaren ia garaikide Jeronimo de Aguirre, Aranak berea idatzi zuenetik urte gutxira amaituriko beste metrika azterlan batean, *euskara* moldearen kontra azaldu zen zalantza izpirik gabe: «ni es propio del vascuence, ni agrada el sonante a los vascongados» (Altuna, 2002, 551). Honaino hel liteke *euskara* (eta berarekin batera *vascuence*) hitzen adiera metrikoaren historiaren behin-behineko zirriborroa.

Orain arte adierazitakoaren arabera ondorio arin bi atera daitezke. Lehenengo eta behin, hemen proposaturiko hipotesia onartuko balitz, euskal literaturaren historiari arazo txiki berri bat sortuko litzaioke: zelan azaldu Larramendik Mikoletaren lana ezagutu izana? Bilboko jesuiten ikastetxean emandako urteetan ezagutuko zuen ala beranduago? Bilbon Mikoletaren eskuizkribuaren aztarnarik ez bazegoen, norbaitek bidaliko zion Ingalaterratik kopia bat? Larramendiren liburutegi katalogoetan ez da Mikoletaren ize-nik aipatzen baina titulu eta idazle zehatz gabekoak badira: «algunos librillos en vascuences [sic]», «Siete librillos de a cuarto con cubiertas de papel y sin ellas y tres sin principio, en castellano, latín y vascuence en un atado [...]» (Altuna, 2002, 210 eta 230). Aieruak baino ezin dira egin oraingoz.

Bigarren ondorioa lexikografiari dagokio. Hiztegiek ez dute jasoa *euskara* hitzaren adiera metriko-poetikoa ez eta *vascuence* hitzarena ere. Adiera hori erabilera mugatukoa izan arren, hiztegietan batzeko modukoa ere bada, aipatutako lekukoek erakutsi dutenez.

2. Aroen mitoa euskal literaturaren irudikapenean

Euskara eta vascuence hitzen adiera metriko-poetikoak emango lukeena baino lotura estuagoa du periodizazioarekin. Izan ere, bazen aukera *romance* hitza bera hautatzeko,⁵ edo besteren bat: XVII. mendean *cantar vizcaíno*

⁵ XVII. mende hasieran poesia lehiaketa pare bat antolatu zuen Iruñako apezpikuak egin bezala (Mitxelena, 1990, 112 eta 119), Altunak eta Lakarrak ohartarazi dutenez (Larramendi, 1990, 15).

eta *canción vascongada* moduko formulazioak ere sortu ziren. Nekez ahatz daiteke, oster, izen horien zama ideologikoa: gaztelaniaz errefrau ezaguna zen aldi horretan «No lo estimo en un cantar vizcaíno» zerbait baliogabekoa zela adierazteko erabilia. *Romance* bera ere ez da hitz neutroa. XV. mendeko *Vocablos castellanos* bildumak argi erakusten du hitzak antzinako Erromaren oihartzuna ozenki zekarrela berarekin:

Romance, romances decimos por unos cantares antiguos y viejos que hablan y relatan hechos pasados. El cual nombre cuido que venga de una de dos partes: o porque los hechos de los romanos fueron más notables y magníficos de todos, que según escribe un gran historiador, quien lee las historias de Roma lee los actos de todas las gentes y naciones, porque Roma o defendiéndose o conquistando con todo el mundo ovo que ver; la segunda parte donde este nombre puede venir, porque España estuvo muy luengo tiempo so el señorío de los romanos y ovo el su vulgar y común lenguaje, por esto es llamado romance. (RAE, 2007, 8575b-8576a)

Ez da zaila definizio horietan *translatio imperii et studii* mitoaren oihartzunak antzematea. Penintsulako erreinuen zerbitzura jardundako zenbait historiagilek aldarrikatua Erdi Aroan zehar, mito hori oraindik gehiago indartu zen Errege-Erregina Katolikoen alditik aurrera, Nebrijaren Gramatikako pasarte ospetsuak («siempre la lengua fue compañera del imperio») erakusten duenez. Horren aurrean adiera metriko-poetiko hornituriko *vascuence* eta *euskara* hitzak *romance* horrekiko harreman dialektiko-dialogikoan irudika ditzakegu, eta zentzu horretan beste posizio garaikide batetik etorriko lirateke, *vascocantabrisimo* delakoaren ingurutik alegia. Kutsu ideologikoz gain, badute hitz horiek erresistentziatik zerbait erabiltzaileen jarrerari dagokionez. Joseba Gabilondok (2012) proposatu du oraintsu subjektu euskaldun eta espainolaren genealogia subjektu horietako bakoitzaren posizioa sortzen duten formazio diskurtsiboak aztertuta. Genealogia horretan oinarrituta, zilegi da *romance* aldarrikatzen duen diskurtsoari subjektu espainola atxikitzea eta aldi berean *vascuence* /*euskara* plazaratzen duen diskurtsoaren sorreran euskal diferentziaren zantzuak antzematea, euskal subjektuarenak alegia.

Eta periodizazioaz den bezainbatean ere, hitz horien testuinguruak badu zeresanik. Oraintsu aukera izan dut erregimen zaharreko euskaldun penin-

tsularren subalternitate literarioaren egoeran arakatzeko Ibai Atutxak zuzenduriko egitasmo bati esker. Hor esandakoa hola labur daiteke: European duen hegemoniaz baliatuta eta *translatio*aren mitoak emandako legitimazioarekin, erregimen zaharreko monarkia hispanikoan formazio diskurtsibo inperial arrakastatsua eraiki da zeinaren subjektu-idazle posiziorako gizon gaztelanidun noblea baino ez den onartzen, euskalduna posizio horretatik baztertzen den bitartean Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea dela esanez, alegia barbaroen herria (Bijuesca, 2013?). Ohartua nintzen orduan aroen mito klasikoak toki garrantzitsua betetzen zuela formazio diskurtsibo horren eraikuntzan: urrezko aroan bizi direla aldarrikatzen dute garaiko idazle gaztelauiek, noiz edo noiz ironikoki ere, Monarkia Hispanikoaren dekadentzia agerikoa zenez gero batez ere XVII. mendetik aurrera, urrezko aroan baino burdin aroan bizi zirela iradokitzeraino (Gil-Osle, 2013). Gerora ohartu naiz baina aroen mitoak nik orduan uste baino toki handiagoa duela euskal literaturari buruzko Monarkia Hispanikoaren formazio diskurtsibo inperial horretan.

Egia da Monarkia Hispanikoaren inguruko idazleek ez ezik, XVI. mendetik aurrerako euskal apologistek ere aldarrikatu zutela Euskal Herriko lurraldeetarako urrezko aro berritua, burdin aro gisako Erdi Aro gatazkatsua-
ren ondoren, foru sistemari esker lorturiko bakealdia irudikatzeko (Madariaga, 2008, 23-26). Baina Monarkia Hispanikoaren irudikapena ez bezala, apologistek irudikaturiko urrezko aroa ez zegoen egitasmo inperialaren zerbitzura. Apologistek eta haien ondorengoek eraikitako urrezko aroaren mitoak, foralitatearekin parekatua, Aranzadik sakon aztertu duen arren, sekulako aukera galdu du mito horrek formazio diskurtsibo inperialista espainiarrean izandako eragina arakatzeko (Aranzadi 2000), izan ere formazio diskurtsibo horretan (Europako beste inperioetan bezala) urrezko aroa etengabeko aldarrikapena baita.⁶

Urrezko aroaren eta inperioaren arteko harremana estua zen aldi klasikoan bertan: *Eneida*ko seigarren kantuak Augusto enperadorea urrezko aro

⁶ Hau ez da aroen mitoaren iturri klasikoaren berri emateko tokia. Besteak beste, Yates eta Armasen liburuetan iturri horien berri eta azalpen ugari bildu da, XVI-XVII. mendeetako monarkiek eta haien egitasmo inperialak urrezko aroaren mitoari emandako erabileraren harira (Yates, 1999; Armas, 1986).

berri baten ekarle gisa irudikatzen du. XVI. mendean hasita Europako monarkia handienetako idazleek (Espainia, Frantzia eta Ingalaterrakoek) urrezko aroaren aldi berrituan bizi direla aldarrikatuko dute zeinek bere erreinuan, Astrea justiziaren jainkosaren itzulera alegorikoak agerian utziko zuenez bakealdiak ezarriko zituzten errege-erreginen bitartez (Yates, 1999). Monarkia Hispanikoan izan zen jainkosaren etorrera Habsburgo dinastiaren heltzarekin parekatu zuenik, Austria eta Astrea hitzen antzekotasun fonikoa baliatuta (Armas, 1986, 48). Mitoaren arabera urrezko aroari zilarrezkoak jarraituko lioke, eta azken honi brontzezkoak eta burdin aroak, baten narriadura hurrengorako urratsa litzatekeela. XVI eta XVII. mendeetako elaborazio literarioetan, oster, aldi horiek, edo horien arteko batzuk, batera irudikatzen zituzten simultaneoak balira legez. Hala formazio diskurtsibo inperial espainiarraren arabera gorteak urrezko aroa gauzatzen zuen bitartean, Euskal Herria burdin aroan bizi zen. Burdin aro mitologikoan bertuteak galdu eta bizioak nagusitu zirela gogoan hartuta, aro moderno goiztiarreko idazleak laster hasi ziren burdina (*hierro*) eta okerra (*yerro*) parekatzen paronomasia edo dilogietan oinarrituriko hitz jokoen bitartez (Armas, 1986, 63). Burdingintzak bertan zuen garrantziaz jabetuta eta eskolatu gabeko euskaldunek gaztelaniaz egiten zituzten okerrekin oharturik, pausu txiki bat baino ez zegoen *hierro-yerro* bikotea Euskal Herriarekin lotzera heltzeko⁷. Monarkia hispanikoaren diskurtso inperialaren arabera burdin aroan bizi zen Euskal Herria, bertako burdinak eta aldi berean okerrekin (batez ere hizkuntzazkoek, haiek bezalako barbaroengandik espero zitekeenez) erakutsiko luketenez, kronotopo borobila osatuta: burdinaren (eta okerraren) lurraldea burdin aroan bizi zen. Itsasketak eta armagintzak are gehiago indartzen zuten pertzepzio hori, izan ere iturri klasikoen arabera eta batez ere estoikoen ustez zibilizazioak gizakia galbideratu egiten omen zuen naturarekiko armonia apurtzen zuelakoan, espata eta itsasontzia izanik erortetaren irudi (Armas, 1986, 4). Benetan adierazgarria bezain paradoxikoa da diskurtso inperialak itsasketa eta armagintza erabiltzea Euskal Herria inperioaren urrezko arotik baztertu eta burdin aroa zokoratzeko, itsasketa eta armagintza izanik hain zuzen ere inperioaren beraren baldintza ezinbeste-

⁷ Beste leku batean batu dut adibide moduko aipu adierazgarri banakaren bat (Bijuesca, 2010, 32).

koak. Jokaera horrek badu bere logika, baina: bakearen eta justiziaren aldia izanik urrezko aroa, aro horretan bizi dela sinetsita dagoen subjektu inperialari onartezina zaio nonbait itsasketa eta armagintza bezalako jarduerak adieraz lezaketen biolentzia, eta bere buruaren defentsa mekanismo gisa ukapena (*deni, disavowal*) erabiliko du inperioaren bertuteen kontrako diren bizioak burdin aroan bizi diren euskaldunei egotzita. Esandakoarekin erabateko koherentzia du Euskal Herria poetarik gabeko lurralde legez irudikatzea (hori ere burdin aroaren seinale) eta urrezko aroaren gailurrean bizi den gortea ez bezalakoa, non poesia eta arteak loraldi betean dauden.

Diskurtso inperial espainiarraren ildo horren iraunkortasuna Larramendiren *euskara* gorago aipatuak ezin hobeto erakusten du. *Artea* baino lehenagoko argitalpenean Luis I.aren ohorez Salamancako jesuiten Ikastetxe Nagusian eraikitako tumuluaren berri ematen da bertarako idatzitako poema gehienak jasoaz batera. Testu guztiak izenik gabeko narratzaile batek aurkezten baditu ere, susmoa dago Larramendi bera izan zitekeela narrazio horren asmatzailea (Goikoetxea, 1967). Latin, gaztelania, frantses eta italierazko poemen berri eman ondoren, akademia literario moduko batean («aquella especie de Academia») lehiatzen diren lau ikasleren poemak zelan sortu ziren azalduko du narratzaileak. Luzea den arren, zilegi bekit sarrera osoa hemen aipatzea:

Donde más se logró la inspiración poética del Túmulo fue en cuatro estudiantes, que casualmente se juntaron a contemplarle, y cuya ingeniosa amenidad sirvió de entretenimiento y diversión a todo el concurso en medio de circunstancias tan lúgubres. Uno era guipuzcoano, otro gallego, otro portugués, otro castellano viejo, los cuales viendo que andaba desmandada la poesía por otros gremios, trataron de llamarla hacia sí con el cebillo, siempre grato a las musas, de juveniles años cultos. Convinieron en poetizar al asunto del común dolor, cada uno en su propio idioma, glosando algunos versos de Virgilio 6. *Aeneid.* sobre la muerte de Marcelo príncipe romano, versos llamados antes áureos por el bolsillo de doblones que interesó su autor, y ahora más áureos por los dorados escolios de nuestros licenciados. El guipuzcoano, después de haber afectado una discreta bozalidad en romance diciendo *Rey Luis tener gloria, España sentir, gemir, morir*, con aplauso de los oyentes, que observaron lo oportuno

de los infinitivos porque el objeto no admite otros tiempos, tomó por tema aquel sesquiverso, *Ostendent terris hunc tantum fata, nec ultra-
Esse sinent* [Eneida 6.869-70]. Sobre esto dijo que se le figuraba la vida del rey a modo de aparición celestial, cuya propiedad es consolar mucho y durar poco, o como una preciosa reliquia o bella imagen que, guardada en un camarín, no se muestra más que por un breve rato y luego, corrida la cortina, se recoge. Mas para que se viese que la lengua santa del vascuence sabe avenirse con las leyes métricas del Parnaso, se explicó con más gala con esta / EUSCARA. (Lardizaval, 1724)

Gipuzkoar euskaldunari, beraz, *bozalidad* izeneko gabezia nabari zaio, nahiz eta argitzen zaigun horren itxurak baino ez zituela egin, berak asma-tutako *euskara* poemak laster agerian utziko lukeenez. *Bozalidad* izena ez da ohiko hitza gaztelaniaz. CORDEk bost emaitza soilik jaso ditu, denak XVII eta XVIII. mendeetako filipinarren berri ematen duten lanetatik, eta «bozalidad y barbarie», «bozalidad y falta de policía» bezalako testuinguru adierazgarrietan. Ohikoagoa da *bozal* adjektiboa, adieretatik bat 'simple, necio, idiota' duena, eta CORDEko emaitzen artean «vizcaíno bozal» edo «bozal vizcaíno» zenbait aldiz ageri da. Hortaz, eskuartean dugun lanean ere euskaldunarengandik, burdin herrian jatorria izateagatik, hizkuntza oker erabiltzea espero da. Errege hil berriaren irudikatzea aurrez aurre oposatzen zaio euskaldunaren horri. Hasteko erregea heroiei dagokien loriaz horniturik dator eta horrekin batera Martzelo erromatarrarekin identifikatuta dago, *Eneidako* seigarren kantuko pasarte bat gogora ekarrita. Jakina denez, Eneas bere aita Ankisesen bila jaitsiko da azpimundura Kumaseko sibilaren laguntzaz, bai eta aurkitu ere. Ankisesek erromatarren etorkizun loriatsua iragarriko dio Eneasi geroan izango diren erromatar ospetsuenak begi aurrean jarrita. Martzelo ere agertuko zaien heroi erromatar horietakoa da, Augustoren oinordetzarako deitua baina gazterik hil zena, narratzaileak aipaturiko bertso lerroetan kutsu patetiko nabarmenaz gogorarazten denez: «patuek erakutsi baino ez diote egingo munduei [gazte] hau, luzaroago izaten utzi gabe» (*Eneida* 6.869-70). Dena den, ez da ahaztu behar lerro gutxi gorago Augusto bera agertu zaiela Troiatik ateratako aita-semeei. Ankisesen iragarpenaren arabera Augustoren eskutik urrezko aro berri bat etorriko da, Martzelok luzatuko zukeena hain gazterik hil izan ez balitz. *Eneidako* pasar-

te hori guztia, narratzaileak laburki gogoratua, lehen Borboien Monarkia Hispanikoak bizi duen egoeraren alegoria bilakatu da Luis I.aren heriotza-zen ospakizunerako Salamancako jesuiten Ikastetxe Nagusian sorturiko poemetan. Eta horrekin batera Espainiako formazio diskurtsibo inperialaren gai nagusiak elkarri uztartuta eta laburbilduta agertu dira: Eneas troiarra-rengandik Erromako Augustorengana doan ibilbidean *translatio imperii* delakoa iradoki da, bai eta urrezko aroaren itzulera lehen enperadoreari eging-dako aipamenaren bitartez, aldi berean euskaldunaren «bozalidad» horrek, itxurazkoa baino ez bada ere, poesia bezalako hizkuntz tramankulu sofistikatuak sortzeko gaitasun gabezia gogora dakarrela, alegia arteen loratzerik ezagun ez duen burdin aroarekiko lotura.⁸

Sarreran iradokia den zama ideologiko hori guztia esplizitukiago garatuko da Larramendiren *euskara* poeman, batez ere aldien mitoari dagozkion kontzeptuak. Luisen errege izendapena zeruko aingeru baten agerpen gisa irudikatu ondoren, Gipuzkoako mendien erantzuna honakoa izango da:

5 Jaquinéz, piztutzen zála
Lengó urrezco edade-á,
Guelditúco eztá nigátic,
Cíon mendi bacoitzác.

6 Naizuén mendi edoceñéc
Potosí bézala izán,
Ez nai burdin-á Emaníc,
Báicen Ofirco urre-á.

(Larramendi, 1729, 384)

⁸ Tubalen mitoa nagusi izan bada ere, Eneasen istorioa ez zaio guztiz arrotza euskal kulturari, apologisten artekoari behintzat. Julen Arriolabengoak aztertu duenez, «Cachopínek Euskal Herriko leinu eta pertsonaia askori eman zien jatorri troyarra, Diogenis erreginaren eta bere semeen bitartez belaunaldiz belaunaldi jaso, hala nola, erromatarren aurka borrokatu ziren kapitainei (Julio eta Anquises), Bizkaiko jaunei, Gebarari, Lezcanori, Altamirako Aznarri eta Hedoni, eta abarri» (2006, 136). *Translatio* inperialaren kutsurik izan liteke genealogia honetan, Britania bitarteko dela, Diogenis erregina hori Brutoren amatzat jotzen denez, alegia britainiarren fundatzailatzat. Dena den, Larramendirentzat Eneasen istorioari eskainitako kantu epikoa inspirazio iturri baino ez da, beraren *euskara* Virgilioen poemako pasarte bat glosatzeko eredu eta aitzakia, ez harreman genealogikoak asmatzeko.

Erregearen heriotzaren ondorioz, ordea, mendiok lehengo egoerara itzuliko dira:

11 Burni edade-a berriz
Dator zorí gaistoán,
Urre-oríac quendurican
Burnidún anz illunác.
(Larramendi, 1729, 385)

Ez da edonolako laudorioa errege honi Larramendik eskaini diona, Felipe V.aren semeak Gipuzkoako mendiak burdin arotik aterarazi baititu berarekin ekarri duen urrezko aroari esker, aldaketa horrek labur iraun badu ere. Baina aldaketaren laburrak berak aditzera ematen du lurralde horren ohiko egoera burdin aroa dela, mendietako meatzeek erakusten dutenez. Soilik poema goitik behera zeharkatzen duen jarrera hiperbolikoak –lizentzia poetikoak alegia– eman du bide une batez Euskal Herria betiereko burdin arotik kanpo irudikatzeko. Hortaz, Larramendi bera ere ez da guztiz gai izan formazio poetiko inperialaren eraginpetik bere burua askatzeko. Edo behar bada zuzenagoa litzateke esatea ezina duela diskurtso inperialak ezarritako subalterno egoeratik guztiz askatzea, beste lanetan gertatu bezala: «Subordinazioa berea egin ez balu euskara-gaztelania-latina egingo zukeen hiztegia. Haiientzat eta haien kontra [Mariana, Mayans eta halakoak] egin zituen liburu guziak» (Sarrionandia, 2010, 491). Izan ere, burdina eta Euskal Herria lotzen dituzten pasarteak ugari dira gaztelaniazko literaturan, baina ez euskarazkoan. Litekeena da Larramendik lehenengo gaztelaniaz idatzi izana *euskara* eta gero itzuli izana latin eta euskarara.

Poeman ez dago hizkuntzari buruzko aipamenik, nahiz eta horixe bera izan euskaldunei buruzko diskurtso inperialaren ezaugarri garrantzitsuena. Hala ere, Larramendiren asmoan poema bera da, *Euskara* izenetik hasita, erakutsi nahi duenaren frogarik sendoena, alegia «que la lengua santa del vascuence sabe avenirse con las leyes métricas del Parnaso». Baina meritua guztia ez da soilik hizkuntzarena, baizik eta hizkuntza horren erabiltzailearena ere. Beste hiru ikasleek, portugesak, galiziarrek eta gaztelauak, zeinek bere hizkuntzan *endecha* sorta bana esan ondoren, bertan entzule zen batek («un golilleja mozalbete, que tenía trazas de oficial de pluma») aurpegira botako dio gipuzkoarrari beraren poema edozein gairi buruzkoa izan zitekeen

la, ulertzerik ez dagoenez. Kexa horrek aukera ezin hobe eskainiko dio euskaldunari bere hizkuntza gaitasunen alardea egin eta ezjakinaren tokian bestea uzteko, diskurtso inperialak ezarritako rolak iraulita karnabalizazio prozesu baten bitartez (Bakhtinek esango zukeenez). Hona hemen gipuzkoarraren erantzuna:

Yo no tengo la culpa de la ignorancia de Vm., como no la tendría Homero si al recitar su *Ilíada* en griego tuviera un oyente de ese carácter. Mas, porque no se presume que estoy tan pobre de idiomas como Vm. de urbanidad, ni que mi musa está ligada a sólo el hechizo del vascuence, diré en verso latino elegíaco los mismos pensamientos que antes dije en mi propia lengua, traduciendo fielmente las coplas del vascuence y dando a cada copla su dístico por el mismo orden [...]. Ve aquí Vm. (añadió el estudiante, vuelto al que le había provocado), ve aquí expresado todo el sentido de mi vascuence poético. Mas porque todavía no sabrá Vm. si viene al caso o no, pues para Vm. y otros de su cultura el latín será vascuence y el vacuence latín, sacaré a Vm. de cuidado con otra no menos fiel traducción en castellano siguiendo a mis compañeros en el metro de endechas, cada una de las cuales será expresión literal de su copla vascuence, también por su orden. Y no encresparé mucho el estilo porque no demos en el mismo escollo. (Lardizaval, 1724)

Hortaz, hasieran *bozal* itxurak egiten zituenak azkenean bere benetako hizkuntza gaitasun jasoak erakutsi du eta entzule guztiak desengainatu. Era horretara, bai euskarak berak eta bai erabiltzaileak gezurtatu egin du diskurtso inperial espainiarrak eurei buruz dioena eta ordura arte uste errotua dena: *imposible vencido* etorkizunekoaren hazia aurkitua zuen Larramendik *Artea* argitaratu baino lau urte lehenago behintzat. 1724ko liburutxoko euskalduna *trickster* delakoaren trikimailuaz baliatzen ikusi dugu: ezusteko poema txundigarriak egin ditu euskaraz, latinez eta gaztelaniaz «depués de haber afectado una discreta bozalidad en romance», eta ez du aukerarik galduko argi uzteko denetatik onena lehenengoa dela: «pero siempre quedó con más gusto y gala en el bascuenze» (Larramendi, 1729, 385). Ikasle euskalduna idazlearen beraren *alter ego* izan daitekeen heinean, azken honi ere badagokio haren *trickster* jaidura. Baina Andoaingo semearen lan erraldoiari bere osotasunean adituz gero, iruzurgile hutsarenaz baino hobe, sarritan

trickster horiek aldi berean izan ohi diren kultur heroien itxuraz ere irudika daiteke Larramendi, San Martin berri baten antzera, azken hau denez gero euskal tradizioan *trickster* amarruak dituen kultur heroia (Astigarraga, Kalzakorta, Pedrosa, 2008). Kultur heroi horiek egin ohi dutenez, Larramendik ere bere herriaren esku jakintzaren sekretuak jarri nahi zituen, hizkuntza jakintzarenak batez ere, gramatika-poetikari eta lexikografiari denbora eta ahalegina eskainita. Lan horietako batzuk Salamančan egin zituen, non eta inperioaren jakintzaren gunetzat jo litekeen hirian. Lan horren bitartez, aurreiritzi errotuak gezurtatuaz batera, sermoigile eta idazleentzako lanabes nahitaezkoak sortu zituen. Euskal Herri penintsularreko literaturaren historiari dagokionez, ez da gehiegikeria esatea Larramendirekin *episteme* berri bati hasiera eman zitzaiola, ustezko burdin arotik ateratzen hasteko aldia.

Larramendiren jarrera heroikoa ez zitzaion ordea dohainik atera euskal literaturari. Andoaingo jesuitaren aukerak eraginkorrak gertatu ziren epe luzera, berak ezarritako lehentasunek badirudi zeharo baldintzatu zutela ondorengo euskal literaturaren garapena. Jesuiten hezkuntza sistemak, Ratio Studiorum delakoak, Larramendiren *habitus*-a (Bourdieuaren berbaz esatearren) garatu ez ezik, bere lehentasun literarioak ere bideratu zituen. *Habitus* horren aztarnak, iritzi poetikoei dagokienez, ezaugarri bitan behintzat dira nabarmen: herri poesiaren bazterketan eta maitasun poesiaren isilaraztean. Lehenengo eta behin badirudi Larramendirekin hasitako jesuiten tradizioan poesia eredu jasoagoa hobetsi zela eredu herrikoia goen kaltetan, Juan Mari Lekuonak jesuiten neurtitz bildumari egindako sarreran dioenez: «Herri kantuen joera baino goragokoa da beren estiloa eta formazioa. Euskara ongi ikasia duten arabera, nabari zaie formazio erretorikoa, klasikoan mundua, eliz literaturaren islada. Maila jasoago batean mamitutako olerkigintza berena, poesia herrikoarekin konparatuta» (Altuna, 2000, 11). Horretan ere Larramendiren lehentasuna monarkiaren formazio diskurtsibo inperialari erantzutea litzateke, euskaraz egin zitekeena erakustea («la poesía de que es capaz» dio Artean) edota Ziburuko Etxeberri bezalako elizgizonen egindako poesia deboziozkoa aldarrikatzea, baina ez euskaraz ohi-koa zen herri poesiaren berri ematea. Ez da hortaz harritzekoa XVIII. mendearen amaieran Herderrek bigarren Larramendi baten irrika erakutsi izana, McPhersonen Eskozian egindakoa euskaldunen artean egingo lukeena (ikus

Altzibar, 1986, 20; Apalategi, 2013, 59), Larramendi lehenak ez bezala. *Corografia* alde askotatik miresgarrian, esate baterako, Gipuzkoari eta Euskal Herriari buruzko horrenbeste berri jaso zuen, tartean hizkuntzari eta dantzak bezalako herri kultura adierazpenei buruzkoak, baina isiltasuna erabatekoa da herri literaturaz eta poesiaz den bezainbatean, nahiz eta ez diren gutxi autoritate gisa aipaturiko poeta ospetsuen aztarnak.⁹

Bigarren ezaugarriaz den bezainbatean, agerikoa da maitasun poesiaz dagoen isiltasuna Larramendiren hausnarketa poetiko eta metaliterarioetan, poesia mota horri darion kutsu erotikoa arbuigarria zaionez gero disziplinatzea (Foucaultek esango zukeenez) lehenesten duen diskurtso katoliko erromatar postridentinoari. Litekeena den arren Larramendik Etxepareren liburua ezagutu ez izana, erraz pentsa liteke ere erretore garaztarraren maitasun poemek oztupo gaindiezinak jarriko lizkiokeela Kontrarreformaren araberrako *decorum* disziplatuari: Etxepareren liburua ezagututa ere, nekez izango litzateke eredugarri Trentoren ondorengo elizgizonentzat eta are gutxiago jesuitentzat. Oihenarten lanen aipamena ere ezin adierazgarriagoa da: *Notitia* sarri dakar gogora Larramendik baina ez poesiarik. Bata erruz erabilia bestearen berririk bat ere ez zuen izan? Artean «*zortzicó*, y mejor

⁹ Artean esandakoaz gain, Larramendik gogoko eta erreferentziatzko zituen poetak arakatzeko toki egokia izan liteke *Corografia*. Poeta horiek autoritate gisa dakartza gogora, alegia etsenpluen eremuko argumentu gisa, bai eta bere jakituriaren ostentaziorako, eta ez eredu poetikoak eskaintzeko asmoz. Hala ere diskurtso poetikoan zituen lehentasunak adieraz ditzakete poeta aipatuek. Dene-tatik aipatuena Virgilio da: *Eneida* birritan aipatzen du, behin lehen kantuaeren zeharkako aipamen baten bitartez (1969, 31) eta beste behin 8.424-5 bertso lerroak zehazki aldatuta (1969, 72-73) – bertso lerro gogoangarriak nonbait *Hiztegi Hirukoitzaren* sarreran ere aipatzen dituen gero (1745, LIII)–, eta *Georgikak* behin (1.390-392), hori ere zeharka eta titulua aitortu gabe (1969, 41). Ovidioren *Metamorfosiak* (1.414-5) behin aipatu ditu, horiek ere zeharka eta titulua aitortu gabe (1969, 304), eta behin ere Juvenalen *Satirak* bildumako pasarte bat (15.69), zehazki aipatua baina poeta-ren izena eta honen lana aitortu gabe (1969, 305). Homero ere behin aipatua da, Virgiliorekin batera, baina oso modu orokorrean (1969, 72). Herri hizkuntzak darabiltzaten poeten artean Gongora da Larramendik aipaturiko bakarra, *Fábula de Polifemo* y *Galatea* poemako 4. ahapaldiko pasarte bat aldatuz (1969, 72), poema bereko 5. ahapaldiaren amaiera ospetsua («infame turba ...») aipatu zuen bezala *Hiztegi Hirukoitzaren* sarreran (1745, LV). Hortaz poeta erromatarak, antzina-koak alegia, nagusi dira Larramendiren aipuen artean, eta hori bezain adierazgarria da haien imi-tatzaile eta kuleranismoaren eredu den Gongora izatea modernoaren ordezkari bakarra. Larramen-diri dagokionez erabat arrazoizkoa da Juan Mari Lekuonak jesuiten poesiagintzaz esandakoa.

zortzidún [,] amarcó, y mejor amardún» esaten zuela (1729, 382), ez ote zituena sortu *–dun* amaierako molde metrikoen izenak Oihenartek asmatuak izan zirela *hamarkun* eta *hamalaurkun* hitzen eredura (2003, 513 eta 525), bertsoak izendatzeko herri eraren kaltetan eta kutsu jasoagokoaren mesedetan? Oihenarten jarrera kultista gogoko izanik haren poesiagintzaren ezagutza ezin ote zuen aitortu Larramendik jarrera moralista zurruna zela eta¹⁰? Azkenik, bizkaierazko maitasun poesia ere guztiz gelditu da isilpean Larramendiren lanetan, nahiz eta ezina dirudien haren berri ez ezagutu izana lehen atalean azalduko hipotesiaren arabera, alegia Andoaingoa Mikoletaren teoria metrikoetatik abiatu zela bereak sortzeko. Beraz maitasun kutsuko euskal poesia idatzi osoak eten nabarmena pairatuko zukeen Larramendiren eraginez.

3. Periodizazio irizpideak

Gure inguruko literaturen historien antzeko euskal literaturaren historia bat izan nahi bagenu ere, goragoko orrialdeetan esandakoaren arabera zera onartu beharko genuke: historia horiek posizio hegemonikoetatik idatziak izan direla, alegia, Euskal Herri penintsularreko euskal literaturak oso be-

¹⁰ *Corografía*, esate baterako, sexu moralarekiko kezka azaltzen duen azarnak agerikoak dira. Larramendi herri dantzen aldekoa bada ere, dantzak lizunkeriarako aukerarik ematen ez duen artean behintzat, biluztasunaren irudikapen poetikoen aurrean erne ageri da, ia antsietatez erantzuteraino: «*Brontesque Steropesque et nudus membra Pyracmon*» [Eneida 8.425]. ¿Para qué desnudos estos pobres ferrones? [...] Pues ¿cómo puede excusarse el pintarlos con tanta gravedad, indecentes por desnudos, y como los pariría su madre la gigantona, y esto sin respeto a que eran hijos de Vulcano o de Neptuno, dioses tan honrados? Díérales siquiera a cada uno su *obrero* o roclo largo de lona y, en acabando su trabajo y fuera de la cueva, vistiéranlos como acá se visten nuestros *olaguizones*: nadie dirá que son aquellos mismos que en la herrería parecían diablos tiznados» (Larramendi, 1969, 73). Gorputz biluziaren irudikapenari Larramendik erantzun bikoitza eman dio: lehenengo eta behin kritika poetikoaren bitartez, egoera epikoaren seriotasunak («gravedad») eta pertsonaien mailak eskatzen duen *decoruma* hautsi delakoan; eta bigarrenik *comparatio* amplifikatzailearen bitartez, *Eneida*ko pasarte horrek aukera ezin hobea eskaintzen duenez gero olagizon euskaldunen nagusitasuna erakusteko antzinate klasikoak burdingintzaz sorturiko irudikapenen parean, eta bide batez moralaren alorrean ere. Aldi berean olagizon euskaldunek arropa gutxi erabiliko zutela zioen diskurtsoari (esate baterako Covarrubias, 1611, s. v. «azero») ere erantzuten ari zen Larramendi.

randu (eta orduan ere ez oposiziorik gabe) ezagutu duen posizio batetik. Gure literaturak ezaugarri nabarmenik izatekotan posizio hegemoniko horretatik baztertua izana da, eta XVI-XVIII. mendeen arteko aldiari dagokionez, subalternitate egoerara zokoratu izana ere, horixe baita burdin aroaren irudiak adierazten duena.

Linda Hutcheonek literaturaren historien eredu nazionalen kutsu teleologikoa agerian utzi eta eredu horri aurkitutako mugak sintetizatu ditu. Aldi berean literaturaren historien eredu nazionalari ordezkioak bilatzeko bideak ere iradoki ditu (zilegi bekit gai horri buruzko pasarte luzea hona aldatzea):

Lo que necesitamos todavía es, entonces, más maneras nuevas de contar la historia del pasado literario y de imaginar su futuro. Dada la historia de la historia literaria, estas maneras tendrán que ser narrativas autocríticas y autorreflexivas, abiertas a voces contestarias y resistentes. [...] Las teorías de Foucault de las formas genealógicas y discursivas sugieren posibles modelos alternativos que encajarían en esta descripción. Como toda historia, la historia literaria es lo que Foucault denomina un discurso, una práctica discursiva con sus propios mecanismos, estrategias de argumentación y aparato retórico. Nuestra forma de utilizar esa práctica discursiva no sólo refleja, sino que también influye, en nuestra manera de pensar la cultura literaria y, de esta forma, la forma en que actuamos en esa cultura [...]. Esta es la razón por la que la historia literaria y las políticas identitarias –nacionales o de otro tipo– han llegado a estar tan estrechamente relacionadas de manera histórica: tales narrativas legitimistas tienen un impacto, además de reflejar el sentido de identidad de las personas como integrantes de un grupo, creando juntas una cultura. Pero hoy en día hay muchos grupos que se identifican a sí-mismos y cada individuo puede identificarse con un número muy variado de ellos, según la raza, género, elección sexual, etnia, nacionalidad, y así sucesivamente. En lugar de desesperarse buscando un enfoque único de trabajo para la historia literaria, quizás deberíamos, en su lugar, considerar perspectivas inclusivas, múltiples y comparativas que, sin embargo, no aspiren a ser totalizadoras ni universalistas. La temprana idea de Foucault del *episteme* como conjunto disyuntivo de relaciones, puede leerse también como una alternativa a la noción más convencional de historia literaria de un período o un *Weltanschauung*,

sugiriendo que, con el permiso de Huizinga o Fukuyama, no todo pensamiento histórico debe ser teleológico. Pero aún deberíamos necesitar alguna forma de configurar la comprensión histórica como un proceso que supone un diálogo crítico del pasado junto con el presente y el futuro, incluso si huecos y discontinuidades estructuran ese intercambio en lugar de la continuidad cronológica implicada por la teleología. (Hutcheon, 2006, 297-299)

XX. mendeko euskal literaturari dagokionez, eredu historiografiko nazionalaz gaindiko proposamena Joseba Gabilondok (2006) eskaini digu *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak* liburuan, non alegoria nazionalaren generoa auzitan jarri edo genero horretatik ihes egiten duten diskurtsoak eta euren subjektuak dagoen duintasunaz aztertzen dituen, historia postnazional batek eskatzen duen ahots aniztasunari lehentasuna emanaz. Orintsuago euskal literaturaren historiaren tarte zabalago batera hedatu du Gabilondok bere proposamena, Saizarbitoriaren *Martutene* eleberriak eragindako hausnarketaren haritik:

Jakina, ez dagoen [euskal historiaren] subjektu [positibo] hori sortzeko egin behar diren maniobra diskurtsiboak izugarriak dira. Euskal literaturaren historiara gure analisia mugatuz, doktrinak, hiztegiak eta gramatikak bihurtu behar izan dira ez dagoen literatura baten objektu positibo, hala euskal literaturaren subjektuaren historia era positiboan linealitate etengabe batean azal dadin, XVI. mendetik XXI. mendera arte. Historia hori positiboki ematea bezain ez-korki ukatzea oso da erraz: ez dago euskal literaturarik, orainalditik bateratutako saio filologiko bat baino ez da, historian jarraitasunik izan ez duena, eta abar. Jon Casenavek azaldu ditu eredu positiboaren mugak bere *Euskal literaturaren historiaren historia*-n. (Gabilondo, 2013, 96)

Goragoko ataletan erakutsitakoaren arabera, euskal literaturaren historia hori ukatzea horren erraza bada euskarazko literatura baterako aukera bera ukatu delako izan da, alegia euskarazko literatura dei genezakeen diskurtsoaren baldintzak errotik ukatu dituen episteme batean murgilduta bizi izan delako euskal literatura. Mugaz honako Euskal Herriaz den bezainbatean, horixe sinetsarazten zuen urrezko aro artistikoa bizi zuen Monarkia

Hispanikoaren diskurtso inperialak: Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea zela, burdin aroan bizi zen burdinaren lurraldea zela. Baldintza horietan subalternitate sakonera zokoratutako euskal subjektua sortu du formazio diskurtsibo horrek, bikoitza izan litekeen subalternitatera. Alde batetik, zatika baina positiboki ezaguna dugun ahozko edota herri literaturaren bilketak bultzatzen edozein ekimen indargabetu zuelako, euskal literaturaren eremu zabal eta emankorrak isiltasunera kondenaturik: erretra bildumak baditugu baina ez, esate baterako, garaian bertan egindako balada bildumarik, *romancero* bildumak diren moduan. Beste alde batetik, ezgaitasunaren diskurtso horrek berak garaiko literatura ereduaren arabera emaitzen sortuntza eta zabalkundea oztopatu behar izan zuen, nahiz eta eremu horretatik ere euskaraz idatzitako saioren aztarna urri bezain adierazgarriak heldu zaizkigun. Azken batean, biolentzia epistemikoaren eraginpean garatutako literatura baten historia kontatzeko modua bera da auzitan dagoena:

XVI. mendetik honako euskal historia ere hutsune jatorrizko baten inguruan idatzi behar da, ezorki, negatiboki, hain zuzen, euskal eliteek euskarari uko egin eta estatu zentralisten aurrean beren buruak subordinatzen dituzten momentu horretatik, euskal masa meatzari, nekazari eta arrantzaleak subordinatzen dituzten momentu horretatik abiatuta. Euskal historia subjektu ezkor baten inguruan idatzi behar da: euskal subjektu subordinatua definitzen duten zartadura eta bortizkeriako trauma. Gure historia historia subalternoa izan da, ezinaren historia negatibo bat, ezezka bakarrik kontatu daitekeena eta beti estatu frantsesaren eta espainiarraren gehiegitasuna ere badena, era positibo batean estatuaren hizkuntzan bakarrik idatz daitekeena, historia bera kontatzeari uko eginez. (Gabilondo, 2013, 97)

Proposamen horren muinarekin bat eginik ere, iritzia dut inperioaren artxiboa irakurtzea (ikus Said, 1996, 100-101) emankorra izan daitekeela, literaturaren historiari dagokionez behintzat, Gabilondok aipaturiko «historia subalternoa» horren ezagutzan egon litekeelako biolentzia epistemikoari ihes egiteko atea. Izan ere, formazio diskurtsibo inperialaren eragin zitalenetariko bat ezindua bera ezintasunaren errudun egitea da. Geroko pasarte ospetsuak hein batean diskurtso hegemonikoaren ikuspegia bereganatua du: «euscaldunec berèc dute falta eta ez euscarac» (Axular, 1643, 19). Liburuak sortu eta argitaratzeko beste hizkuntzetako erabiltzaileek

betetzen zuten posizio bera euskaldunek (batez ere Euskal Herri penintsularrekoek) ere betetzeko modurik ote zuten da galdetu beharrekoa.

Postnaziotasunaren ikuspegi hori transnaziotasunarenak indar lezake. Ikuspegi transnazionalen gauzatzea literatura azterbideen eremuan literatura konparatuak dakar. Edward Saidek literatura konparatuaren abantailak azpimarratu ditu nazionalismo murritzailaren eta dogma akritikoaren antidotogisa, baina aldi berean literatura konparatua bera sorreratik inperialismoari loturik dagoela ohartarazi du (Said, 1996, 90). Lehen konparatisten kutsu inperialista nabarmena Erromaniako literaturari eskainitako zentralitateak erakutsiko luke. Jarrera horren adibideen artean Saidek Auerbachen *Mimesis* aztertu du. Gure helburuetatik hurrago dagoen Curtius ere aipatzen du. Curtiusen *Literatura europea y Edad Media latina* ospetsuan ageri da *translation*aren historia goiztiarrenetarikoa. Historia horren harira *romance* hitzaren adierak ere bildu zituen Curtiusek, molde poetikoarena besteak beste (Curtius, 1955, 46-61), izenean bertan Erromaren aztarna duen hitzarena hain zuzen ere, XV. mendeko *Vocablos castellanos* bilduma lexikografikoak gogora zekarrenez. Baina kultur artxibo inperialaren irakurketa kontrapuntistikoari esker (Said, 1996, 100-101) argiago antzeman ditugu *vascuence* eta *euskara* hitzen adiera metriko-poetikoaren kutsu polemikoa eta erresistentziazkoa. Eta literatur generoen kategorietan ez ezik, periodizazioan ere izan lezake eraginik Saiden proposamenak, berak mendebaldetik kanpoko eremuetarako esandakoa Europa barruko herri txikietara eta haien hizkuntza eta kultura gutxituetara aplikagarri den heinean:

Casi sin excepción, los discursos universalizadores de la Europa moderna y de Estados Unidos presuponen el silencio, voluntario o no, del mundo no europeo. Silencio; ya sea a través de la incorporación, la inclusión, el gobierno directo o la coerción. [...] Nuestro cambio de óptica interpretativa nos permite desafiar la autoridad soberana e indiscutible del observador occidental, supuestamente desinteresado. (Said, 1996, 100)

Horren arabera, periodizazio kategorია unibertsalistak erlatibizatzeiko modua izanik eta inperioaren ikuspegi hegemoniko interesatua luzatu nahi ez bada, ustezko burdin aroa ez da nahi eta nahi ez literatura gabeziaren aldia izango -poetarik gabeko aldia-, inoren urrezko aroaren alteritate baizik,

bere burua urrezko aroan irudikatzeko gaitasuna duenak behar duen beste itxuraz isila baina funtsean isilarazia, subalterno posizioa betetzen duenari gertatu ohi zaionez. Agian aldi hori interpretatzeko era honek hobeto azalduko luke zergatik XVI-XVIII. mende arteko aldia katebegi galduen edota ostenduen aroa den.

Ikuspegi epistemologikoaren aldaketak izan dezakeen abantailak ageriarago geldituko ziren, behar bada. Eta hala ere, inorentzat hurbilketa positibista eta enpiristek oraindik zentzurik balute, aldi horretako euskal literatura penintsularrarentzat izango lukete, aldi horri buruzko ezjakintasunari eta isiltasunari erauzitako ahots aztarna berriak ekarriko lituzkeelako. Datu, testu edota berri gehiagoren agerpenak ez luke orduko subalternitate egoera aldatuko baina egun iraganaz dugun ezagutza aberastuko luke, egoera uste duguna baino korapilatsukiago irudikatu beharra balekar ere.

Azkenik, gure literaturaren historia nazio-estatu hegemonikoen literatur historien eredura idatzi nahi bagenu ere, agian gurearen antzeko subalternitate egoerak bizi izan dituzten kasuak bilatu beharko genituzke. Britainia Handiko eta Espainiako urrezko aldiak aurrez aurre jartzean, Barbara Fuchsek honako ondorioa atera du:

Only by noting the contrast between these constructions can we recognize the national investments of literary histories and their concomitant blind spots. Like any grand narrative, the literary histories that give us periodization require interrogation and qualification, both of which are enabled by a transnational account. [...] It behooves us to insist on the partial nature of the national version and to seek out instead the more nuanced, historicized, and geographically diverse narratives that might challenge powerful histories of teleology and primacy. (Fuchs, 2012, 326)

Fuchsek urrezko aroak bizi zituzten esperientzia inperialentzat esandakoa inperio horien besteentzat ere erabilgarri izan liteke. Azken batean, subalternitatearen esperientzia orokorragotzat jo liteke dominazioarena baino. Urrezko aroen burdin aroak elkarrekin historizatzeak historia subalterno bakoitza aberasteaz gain, historia hegemonikoei erronkak jartzeko moduko historia alternatibo baterako aukera eskainiko luke, bai eta subalternitate egoeratik datozen ahotsak etorkizunean sendoago entzunarazteko.

Bibliografia

ALTUNA, P., 1992, «Tratado de métrica vasca (1872)», *Fontes Linguae Vasconum*, 59 (1992) 119-165.

———, 2000, *Euskal bertso gintza. XVIII, XIX eta XXgarren mendeetako jesuita gazteek egin neurtitzak. Azterketa metrikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

———, 2002, *Haizeak ez eramango!* Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

ALTZIBAR, X., 1986, «Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)», *Euskera*, 31 (1986) 17-45.

APALATEGI, U., 2013, «Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintza estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak», [artikulu linean], 452^oF. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9 (2013) 56-77, [Konsulta data: 2013/09/09], < http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf >

ARANZADI, J., 2000, *Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Madril: Taurus.

ARMAS, F. A. de, 1986, *The return of Astraea: an astral-imperial myth in Calderón*. Lexington: University Press of Kentucky.

ARRIOLABENGOA, J., 2006, *Ibarguen-Cachopín kronika. Edizioa eta azterketa*. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Julen_Arriolabengoa_TESI.pdf

ASTIGARRAGA, A., KALZAKORTA, J., PEDROSA, J. M., 2008, *Gilgamesh, Prometeo, Ulises y San Martín. Mitología vasca y mitología comparada*. Ataun: Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa.

AXULAR, P., 1643, *Guero*. Bordele. (Faksimile-edizioa, Bilbo: Euskaltzaindia, 1988)

BIJUESCA, K. J., 2008, «Mikoleta, euskal poesiaren monumentalizazioan aintzindari», *Bidebarrieta*, XIX (2008) 11-24.

———, 2010, «Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren «Vuestra Merced»-en aitzakiaz», *Oihenart*, 25 (2010) 7-40.

———, 2013?, «Tierra sin poetas: para una genealogía de la subalternidad literaria en la Vasconia peninsular del Antiguo Régimen», *Prosopopeya*, 8 (2013?) (argitaratze bidean).

CID, J. A., 2013, «Lo popular en el cancionero de Lazarraga», *Litterae Vasconicae*, 13 (2013) 11-52.

CORDE: Real Academia Española: Banco de datos (CORDE) [linean]. *Corpus diacrónico del español*. <<http://www.rae.es>> [kontsulta data: 2013-11-26].

COVARRUBIAS, S., 1611, *Tesoro de la lengua castellana, o española*. Madril: Luis Sanchez.

CURTIVS, E. R., 1955, *Literatura europea y Edad Media latina*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

FUCHS, B., 2012, «Golden Ages and Golden Hinds; or, Periodizing Spain and England», *PMLA*, 127 (2012) 321-327.

GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

———, 2012, «1. XVI. mendetik XX. mendera: apologistak eta subjektu euskalduna», in Aizpuru, A., Altonaga, B., Gallettebeitia, I., Olariaga, A. (ed.), *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 9-27.

———, 2013, *New York-Martutene: Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

GIL-OSLE, J. P., 2013, «La Edad de Hierro en *La traición en la amistad* de María de Zayas», *Neophilologus*, 97 (2013), 1-12. DOI 10.1007/s11061-013-9356-2.

GOIKOETXEA, J., 1967, «Larramendi'ren egun aundia Salamanca'n», *Euskera*, 12 (1967) 119-138.

GOMEZ, R., «Euskal liburu eta eskuizkribu galduak», *FiloBlogia*, 2006ko uztailaren 18ko sarrera, <http://filoblogia.blogariak.net/2006/07/euskal-liburu-eta-eskuizkribu-galduak/>

HUTCHEON, L., 2006, «Repensar el modelo nacional», in Dolores Romero López (ed.), *Naciones literarias*. Bartzelona: Anthropos, 231-304.

JUARISTI, J., 1990, «De métrica vasco-románica», *ASJU*, XXIV (1990), 385-406.

KARDABERAZ, A., 1973, *Euskal idazlan guztiak*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

LARDIZAVAL, M. de, 1724, *Oración fúnebre con que el Real Colegio de la Compañía de Jesús de Salamanca celebró las reales exequias de nuestro joven monarca D. Luis primero de este nombre y alguna noticia del aparato lúgrube que se dejaba ver en la iglesia de dicho Real Colegio*. Salamanca?

LARRAMENDI, M., 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua vascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz.

———, 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero. (Faksimile-edizioa, Donostia: Txertoa 1984)

———, 1969, *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

———, 1973, *Autobiografía y otros escritos*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

———, 1990, *Euskal testuak (1690-1990 III. Mendeurrena)*. Usurbil: Andoaingo Udala.

MADARIAGA, J., 2008, *Apologistas y detractores de la lengua vasca*. Donostia: Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa.

MITXELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro.

———, 1990, *Textos arcaicos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

MIKOLETA, R. de, 1653, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*. (Eskuizkribuaren ale fotokopiatua, Deustuko Unibertsitatearen Liburutegia)

OIHENART, A., 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

RAE (Real Academia Española, Nieto, L., Alvar, M.), 2007, *Nuevo tesoro lexicográfico del español (s. XIV-1726)*. Madril: Arco.

RETOLAZA, I., 2010, «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta», *Euskera*, 55 (2010) 953-976.

SAID, E., 1996, *Cultura e imperialismo*. Anagrama: Bartzelona.

SARRIONANDIA, J., 2010, *Moroak gara behe laino artean?* Iruña: Pamiela.

URKIZU, P., 2000, *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED.

YATES, F., 1999, *Astraea: The Imperial Theme in the Sixteenth Century*. Londres: Routledge.

ZULAIKA, J. M., 2009, «El euskara en la obra de Edward Lhuyd (1660-1709)», *Oihenart*, 24 (2009) 291-334.

Literatur historia postnazionala: Mende- genero-belaunaldi-autore zatiketaren ideologia filologiko hilaren ondoko historiografiaz

Historia postnacional de la literatura vasca: Sobre la
historiografía posterior a una ideología filológica basada
en la división siglo-género-generación-autor

Histoire post-nationale de la littérature basque:
Historiographie postérieure à une idéologie
philologique basée sur la division siècle-genre-
génération-auteur

Postnacional Basque literary history: on historiography
after of the philological ideology of classification by
century-genre-generation-author

GABILONDO, Joseba
Michigan State University

Noiz jaso: 2014-03-18
Noiz onartua: 2014-04-28

Euskera. 2013, 58, 2. 609-627. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikuluak euskal literatur historiaren tradizio filologikoa eta soziologikoa aztertzen ditu bere mugatasunak azaltzeko. Muga horiek gainditzeko, artikuluak lau proposamen egiten ditu.

Euskal literaturaren historiak postnazionala izan behar du, bi literaturen historia baita, klase subalternoen literaturarena, zeina oro har ahozkoa eta euskaraz gauzatua den, eta, eliteko klaseena, zeinek beti estatu hizkuntzak baliatu dituzten. Era berean euskal literaturaren historiak biopolitikoa behar luke bilakatu. Hirugarrenik, euskal literatur historia postnazional eta biopolitiko bat ezin da mendeka eratu, baizik eta Europako eta Ameriketako inperialismoen talkan kokatzen den historia gisa. Azkenik, eta nazionalismoak ezartzen duen kontinentalismoa dela medio, Ameriketako diasporako literatura gehienak kontuan hartu behar ditu.

Hitz-gakoak: Euskal literatur historia, postnazionalismoa, biopolitika, inperialismoa, diaspora.

El artículo analiza la tradición filológica y sociológica de la historia de la literatura vasca, con el fin de explicar los límites de dicha tradición. Con el fin de superar esos límites en el artículo se hacen cuatro propuestas.

La historia de la literatura vasca ha de ser postnacional, porque es la historia de dos literaturas: la de la clase subalterna, oral y en euskera; y la de las elites, literatura escrita en las lenguas de los Estados. Esta historia ha de ser a su vez biopolítica, y una historia postnacional y biopolítica no se puede clasificar por siglos, sino dentro de un contexto histórico de conflicto entre pueblos y los imperialismos de Europa y América. Para finalizar, y por medio del continentalismo que fija el nacionalismo, ha de tener en cuenta la mayoría de las diásporas literarias de América.

Palabras clave: Historia de la literatura vasca, postnacionalismo, biopolítica, diaspora.

L'article analyse la tradition philologique et sociologique de l'histoire de la littérature basque, afin d'expliquer les limites de cette tradition. Afin de dépasser ces limites, cet article fait quatre propositions.

L'histoire de la littérature basque doit être postnationale, car il s'agit de l'histoire de deux littératures, celle de la classe inférieure, orale et en langue basque, et celle de l'élite, c'est-à-dire la littérature écrite dans les langues des Etats. Cette histoire doit devenir biopolitique, et une histoire postnationale et biopolitique ne peut être classée par siècle mais à l'intérieur d'un contexte historique de conflit entre les peuples et les impérialismes d'Europe et d'Amérique. Pour terminer, et par l'intermédiaire du continentalisme qui fixe le nationalisme, il faut tenir compte de la majorité des diasporas littéraires d'Amérique.

Mots-clés: Histoire de la littérature basque, postnationalisme, biopolitique, diaspora.

The philological and sociological traditions of Basque literary history are examined in order to show their limits. Four proposals are made to overcome those limits. Basque literary history needs to be postnational as it is the history of two literatures, that of subaltern literature, on the whole realised orally and in Basque, and that of the elites, who have always made use of the state languages. At the same time Basque literary history needs to become biopolitical. Thirdly, a postnational biopolitical Basque literary history cannot be ordered by century, but as a history situated in the clash between European and American imperialisms. Finally, bearing in mind the 'continentalism' imposed by nationalism, most of the literatures of the American diaspora need to be taken into account.

Keywords: History of Basque literature, postnacionalism, biopolitics, diaspora.

Jon Casenaveri zor diogu literatur historiografiaren arazoa perspektiba historiko zorrotzean jartzea. Neu ere saiatu naiz arazoaren alderdi historikoa ikuspuntu teoriko batetik azaltzen, nire *Nazioaren hondarrak* lanean (2006: 13-30). Casenavek bere liburua ohar baikor batekin amaitzen du:

Bilduma bat egitekotan erran daiteke XXI. mendearen hastape-nean, Euskal literaturaren historiaz eredu «erabilgarria» bat badugula eskutan. Ikuspegi teorikoaren aldetik eguneratua da. Bestalde, azken urte hauetan molde berezi batez, irakaskuntzarako egokitua izan da metodologia mailan. Gainera eredu bateratua da. Iparraldean eta Hegoaldean molde berdinez erabilia da eta, forma berean kanpora hedatua. [...] Haren ebaluaketa kritikoa, historiografiaren ikuspegitik, berrikitan hasi da. (2012: 109).

Casenavek bi arazo ikusten ditu oraindik konpondu gabe literatur historian. Alde batetik, Lasagabasterrek azaldu zuena, hots, «aniztasun linguitiko eta kulturala ez dira behar bezala landu» (2012: 109). Bestalde, eta Kortazarren lan bakana aipatuz, bigarren eta azken arazoa dakusa kinkan: «Epe luzerako landu beharra den bigarren gaia, soziolinguistikaren arlotik iragaiten da literaturan eremura. Hizkuntzaren problematikak sorkuntzaren gainean duen eragina du argitan ezartzen» (2012: 110). Dena den, Casenavek ez du eredu errotik auzitan jarri behar denik sumatzen.

Casenaveren analisiarekin ados banago ere, uste dut badela errotikako arazo bat, berak aipatu duen eredu normalizatuaren barnetik konpon ezin daitekeena. Edo esaera ingeles bat zilegi badakit, elefanteak gela erdian segitzen duela esango nuke eta ez dela aurrerapenik izan.¹ Hots, gaur arte hedatu den eredu kontsentsuatu hau filologikoa dela, Koldo Mitxelenaren lanaren orpotik oraindik urrundu edota desberdindu ez dena.

¹ Azken euskal literatura historia, oraingoan ingelesez, *Basque Literary History* (Olaziregi, koor.) eredu beraren zilegitzea da, oraingoan bizpahiru adabaki ezarriz, hala nola haur literatura eta gaztelera/erdarazko literatura. Egun publiko globalari ez zaizkio halako historia filologikoak interesatzen eta, zerbait adierazten badute, euskal literatura historiografiaren eta kritikaren pobrezia eta atzerapena dira. Hots, historiografia horren izaera atzerakoi eta erreakzionarioa dago kinkan.

Literatur historia filologikoak gure artean gaurdaino dirau bizirik.² Are, beronek dirau eredu bakar eta nagusi. Literatur historia erreakzionario mota honen arrakastaren arrazoiak bi eratakoak dira: bata instituzionala eta bestea historikoa.

Arazo instituzionala oso da sinplea: euskal literatura azken hogeita hamar urteetan erabat instituzionalizatu da EAEaren instituzioen inguruan, eta gainera, azken bost urteetan, globalki Etxepare Institutuak AEBetako «ikasketa iberiarren» ekimenenari jarraikiz –ekimen espainiar nazionalista³– *statu quo* oso kezagarri eta batez ere erreakzionarioa sortu du literaturaren alorrean oraindik ere XIX. mendeko «mission civilisatrice»aren ideologia inperialistari erantzuten diona, erakunde mota horietan guztietan bezala: Cervantes, Goethe, Aliance Française... Hots, egun euskal instituzio ofizialei ez zaie inondik ere interesatzen euskal literaturaren historia eremu edo diziplina eraldatzaile, berritzaile eta politikoki aurrerakoia bilakatzea, izan ere horrek instituzioak berak auzitan jartzea ekarriko bailuke. Hauxe genuke euskal literaturaren historiaren eta kritikaren *habitusa* (Bourdieu).

Ez da, beraz, kointzidentzia euskal literaturen historiaren gogoeta aurreakoi eta kritikoenak instituzionalizazio horren ertzetatik etorri badira, hala nola Casenaveren kasuan edota nirean. Ur Apalategik ere azken aldian, historizazioa bera arazotzat hartu ez badu ere, euskal literaturaren instituzionalizazioari eta komertzializazioari buruzko gogoeta zehatzak egin ditu (2013). Azkenik, Josu Bijueskak (2010, 2012) edota Iñaki Aldekoak (2010) instituzionalizazio horri interesatzen ez zaizkion garaiak birpentsatu dituzte, Errenazimentuaren eta Barrokoaren garaiak kritikoki eta politikoki jorratuz.

Uste dut, tradizio filologikoaren fruiturik umoena Jean Baptiste Orpustanen eta Aldekoaren frantsesezko eta gaztelerazko literatur historiak, aurrez aurre, direla, eta, tradizio horretaz baliatu behar garenetan, bertara jo

² Xoan Gonzalez Millanek jada literatur galiziarerako egina zuen antzeko gogoeta («O criterio filológico»).

³ Ikus aurtun argitaratuko den nire «Spanish Nationalist Excess: A Decolonial and Postnational Critique of Iberian Studies».

beharko genukeela.⁴ Hortik aurrera tradizio horri eustekak eta beronen emaitzak ingelesez globalizatzea, *berritasunaren* izenean, jardun antzu eta atzerakoia dateke. Aldekoaren eta Orpustanen lanak itzuli beharko lirateke tradizio horretako eredurik miresgarrien eta ez-filologikoen gisara.

Azkenik, eta alderdi instituzionalaren azterketa amaitzeko, esan behar, instituzionalizazioaren beste muturrean institutu eta ikastoletako irakasleak ditugula. Neoliberalismoak azken urteotan inposatu dituen murrizketa eta esplotazio neurriak kontuan hartzen baditugu (Wert, PP), eta gehitzen badiogu estatuek euskal diferentzia politikoki onartzeko azaldu duten gogorkeria (Hollande, PSF), argi dago institutu eta ikastoletako irakasleek ez dutela ez gogorik ezta astirik ere proposamen berriekin esperimentatzeko, eta, beraz, beraiek ere euskal kanon eta historia filologikoa hobesten dutela, efizientzia eta argitasun hutsaren beharrez.

Honek osatzen du euskal literatur historiografiaren *habitusa*. Historikoki arazoa oso da politikoa. Casenavek maisukiro azaldutako historiaren atzean, neuk egoera askoz ere erreakzionario eta zapaltzaileago bat azaldu gura nuke.

Joxe Azurmendik arazoaren hasiera zehatzago azaldu badu ere (*Volksgeist*), saia nadin gure egoera erreakzionario honen zenbait urrats historikoki azaltzen. Eredu filologikoaren oinarrian, Fichte-ren 1808ko *Nazio alemaniarren diskurtsoa* dugu, non arraza teutonikoa, eslaviarra eta latindarra bereizten dituen filosofoak lehen aldiz historia hirukoitz baten adar desberdin moduan. «Romanische stem» gisa aurkezten duena, eta gero itzulpen frantsesetatik abiatuta «race latine» edo «raza latina» bezala popularizatuko dena, Fichterentzat arraza zaharkitu, krisizko eta dekadentea litzateke, batez ere Napoleonen inbasiopean Alemania bizi den momentu batean. Geroko arraza, Europa berregituratuko duena, Fichteren iritziz teutonikoa da, arraza alemaniarra (non anglosaxoiak eta eskandinaviarrak ere sartzen diren).

Egun, Alemaniak ekonomikoki eta politikoki European duen garrantzia kontuan hartuta, agian Fichtek arrazoi ere bazuela ironikoki onartu beharko badugu ere, bere arraza-zatiketak helburu historiko zehatz bat zuen ga-

⁴ Patri Urkizurena aldiz, ikuspegi bateratzaile bat gabe, entziklopedikoagoa da.

raian: Fabian antropologoa eta gero «koebaltasun ukazioa» (*denial of coevalness*) bezala ezagutzen dena indartzea, hain zuzen. Hots, garai berean, Fichteren antzeko diskurtsoek garaikidetasunez, «koebaltasun»ez, bizitzea ukatzen diete teutoniko ez diren arrazei (hots, arraza latindarrari eta eslaviarrari).

Eta hain zuzen, lauzpabost bat urte geroago Schlegel anaiek argitaratuko dituzten literatur historietan, lehenak eta kanon sortzaileak, jada «ikerketa eta kritika filologikoaren» oinarriak ezartzen dituzte, zeinek azken batean, eta Fichteri jarraikiz, «filologia erromanikoa» sortuko duten literatura latindarraren koebaltasun-gabezia indartzeko. Hots, filologia erromanikoa sortzen da jada dekadentea den eta indarrik ez duen kultura latindar baten ikerketa arkeologikoa eratzeko. Subjektu ikertzailea alemaniarra eta ikerketa objektua erromanikoa den analisi egitura indartzen dute Schlegel anaiei lanek eta hala, erromantizismo alemaniarren lehenaldi loriatsu baina ez-koebala mundu erromantzean topatuko dute, Italian eta Espainian, Petrarca, Dante, Cervantes eta Calderonen literaturan.

Frantzian eta Espainian, Barthesen 1960ko polemikak arte behintzat, eta Espainian Carlos Blanco Aguinagak, Iris Zavalak eta Julio Rodriguezek sortu zuten eskandalu marxista arte, eredu filologikoak izan du indar. Hots, hizkuntza erromantzeak objektu kritiko ez-koebal bihurtzen dituen ideologia izan da buru XX. mendean, estatu espainiar eta frantziarrean.

Kritika honek estatu espainiarrean, Ortega y Gasset eta antzeko filosofoen eraginez, eta berriro ere filosofia alemaniarra erreferentziatzen hartuz (Dilthey), bere ekarpenik garrantzitsuentzat «belaunaldien teoria» inportatuko du kritika filologiko erromanikora. Harrezkero, «mende-genero-belaunaldi-autore» gisa izenda dezakegun matrizeak eragin hegemonikoa izan du, Frantzian 60ko hamarkada arte eta Espainian 70eko hamarkada arte. 80ko hamarkada hasierako Francisco Ricoren *Historia y crítica* izango litzateke eredu horren produkturik fin eta landuena, baina era berean, ideologia horren azken defendatzailea. Hollier-en *Histoire de la littérature française* (1989), aitzitik, filologia ezin gaingitu ahal izatearen onarpen postestrukturalista genuke: arazoaren ezagutzaile zorrotz, arazoa gaingitzeko ahalgabetsua.

Euskal Herrian, eta Francisque Michel-en *Le Pays Basque* (1857) lehen «literatur historia»tzat kontsidera dezakegula kontuan hartzen badugu, filologia erromanikoaren koebaltasun ukazioak are indar handiagoa izan du. Izan ere, antropologiaren, antikuarismoaren eta turismoaren diziplinak eta jardunek are beste geruza objektifikatzaile bat erantsi baitiote eredu filologiko erromanistari. Francisque Michelen lana ikuspegi antropologiko-antikuarista batetik idatzia izan baitzen, Euskal Herria eta bere literatura bi aldiz ez-koebala zen efektua indartuz: literatura erromanikoen alorrekoa eta bertan erromanikoa ere ez izanik. Izan ere, euskal literatura pre-historiaren eta idazketarik gabeko indigenen alorrekoa baitzen. Hala mintzo da euskal ahozko literaturan, koplen koebaltasun-gabeziak:

J'avouerai qu'en general elles me paraissent inférieures a celles de la Bretagne, que nous a fait connaitre M. de la Villemarqué, et je crains que le siècle actuel, habitué aux artifices de notre poésie et aux éclats de la musique moderne, ne trouve fades les naïfs accents de la muse des montagnes et les accords sans art de son pipeau rustique. Toutefois, au milieu de pensées communes, je dirai même triviales, il n'est pas rare de rencontrer des inspirations heureuses, des élans vraiment poétiques, qui, pour la hardiesse, la vigueur, la richesse ou la grâce, peuvent soutenir la comparaison avec ce que les littératures grecque et latine nous ont laissé de plus parfait en ce genre. (Michel 1857: 221).

Pierre Landhe eta Orixeren historiak gerrarteko *hiatus* bat izango lirake, gerora eragin handirik izan ez zutenak.

Mitxelenarengandik Aldekoa eta Orpustan arte hedatzen den tradizio filologiko honek ez du kritikarik edo zartadarik izan. Sarasolaren eta Aldekoaren kasuan, eta Jainkoari eskerrak, eredu honek egituraketa historikoa-go, sozialago eta kritikoago bat izan du. Kultura txikietan ezer arbuiatzeko luxurik ez dugunez, eta dena estrategikoki berrerabili behar dugunez, neuk Aldekoaren eta Orpustanen historiak gomendatuko nituzke erreferentzia kanonikotzat, Lasagabaster, Sarasola eta Casenaveren gomendioei jarraikiz, eta, era berean, hemen egin nahi dudana gogoetaren abiapuntu eta oinarri gisa, izan ere Aldekoaren azken lanek paradigma hori bera atzean utzi baitute.

Beraz, nola jo aurrera tradizio filologikoa eta soziologikoa berreskuratuz, baina era berean, tradizio horren kontraesan eta mugak gaindituz?

Hasteko, euskal literaturaren historiak *ezin du historia nazionalista izan* aurrera jotzeko, historia nazionalistek beren funtzio pedagogikoa badute ere. Honek batez ere gauza bat esan nahi du, eta, argien ikus daiteke literatur historia jardunaldi hauek helburu duten mendeetan (XVI-XVIII), hain zuzen, nahiz eta arazoa XXI. menderaino hedatzen den. *Euskal literaturaren historia bi literaturen historia da*, klase subalternoen literaturarena, zeina oro har ahozkoa eta euskaraz gauzatua den⁵, eta, eliteko klaseena, zeinek beti estatu hizkuntzak baliatu dituzten: erromantze nafarra, gaztelera, frantsesa, latina, ingelesa, eta abar. Klase subalternoa eta hegemonikoen arteko gatazkak izan behar du euskal literaturaren historiaren gune/ardatza, eta ez «euskaraz idatzitako lehen testuen» fetitxe filologikoak eratzen duen historia nazionalista. Historia nazionalista honek Euskal Herriko klase eta talde sozialen arteko gatazkaren muina-ardatza alboratu egiten du, mezu antihistoriko eta burgesaren alde: «nazio bat euskaraz idazten hasi eta mendeen buruan euskarazko testugintza normalizatu sortzera ailegatzen da». Euskal literaturen historia gatazka sozial baten historia da, diglosia sozial hedatu baten historia. Eta beraz, erdarazko zein euskarazko testuak beharrezko dira, hain zuzen zapalketa bere bilutasun sozial eta historikoan azaltzeko, bortizkeriak duen bi-aldekotasun erreduzi-ezinean. Maila honetan, Edouard Glissant-en teoriak behar-ko genituzke hizpide.

Ezin da, adibidez, apologisten diskurtsoa (gaztelera) eta XVI-XVIII. mendeetako ahozko literatura (euskaraz) bi «genero» eta «literatur tradizio» desberdinetan banatu, asepsia filologikoz. Hain zuzen, bi literatura horiek elkarren aurka sortzen duten talka sozialean irakurri behar dira, non apologistek euskara objektiboki (objektu gisa) erabiltzen duten bertako eliteak zilegitzeko, hain zuzen legebiltzarretan euskara debekatzen duten elite berak, euskara hizkuntza subalternoa bat bihurtuz, zeinak ahozkotasan bizirik iraun behar duen hurrengo hiru mendeetan.

⁵ Iratxe Retolazak hemengo tesi nagusiak jadanik aurreratu zituen bere «Literatura herrikoia» artikuluan.

Ezin dira eskuliburu erlijiosoak euskara kalitatearen arabera aztertu edota «lapurtera, bizkaiera edo gipuzkera klasikoa» sortzen dutela hutsik aldarrikatu. Horiek kezka filologikoak dira. Eskuliburuak, Foucault jarraikiz, eta Jesus Apodakak jadanik aztertu dituen moduan, «ni-aren teknologia erlijiosoak» dira, kristau subalternoaren kontzientzia indibiduala sortu eta erregulatzeko, hots, diskurtso eta diziplina teknologiak dira.⁶

Hala, apologismoa, ahozko literatura eta eskuliburu erlijiosoak, continuum edo jarraitutasun sozial baten hiru diskurtso eta teknologia desberdin, baina elkarri kontrajarrita irakurri behar dira eta analizatu: continuum diglosiko baten osatzaile modura. Garrantzitsua ez da fetitxismo testual filologikoa (euskaraz idatzita dago, oso euskara maila ona du, lapurtera klasikoa eratzen du...) baizik eta testuen eraketa diglosiko historikoa.

Testuinguru honetan Etxepare ez dugu idazle garrantzitsua, inondik ere ez aitzindaria. Hori ere falazia nazionalista antihistoriko, antisozial eta filologiko-fetitxista baten ondorio da. Aldekoak egin duen eran, haren doktrina ere irakurri behar da, poemekin batera, liburu bakar bat gisa, eta azkenean teknologia erlijioso moduan. Ikuspuntu honetatik, Etxeparek beste itxura eta leku bat hartzen du.

Era berean, eta Axularren eskuliburua bera ere, zeinak ez dituen sorginak inoiz aipatzen, klase ertain lapurtar baten sorkuntzaren teknologia subjektiboen artean aztertu behar da, barrokoa bera, masa kultura bezala aztertuz eta bere lana barrokoaren ulertze politiko honen barnean sartuz.

Azkenik, eta antzerki idatzi gutxi badugu ere, azken hiru mende hauetan (*Borracho burlado*, *Gabon saria*...) antzerki hau dugu, hain zuzen, eliteko klaseak eta klase subalternoak testuan bertan talka egiten duten espazio testual bakarrenetakoa, eta beraz hala irakurri behar ditugu.

Saiakeran ere, Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais-eko lehen *Ensayo*an, euskara eta gazteleraren artean sortzen diren dinamika diglosikoak aztertzea giltzarri da ilustrazioa ulertzeko. Alabaina, testu hau, gazteleraz dagoelako gehienbat, ez da inoiz euskal literaturan barneratzen.

⁶ Soziologikoki eta historikoki oraindik ere erabakitze dago gehienbat emakumeek irakurtzen zituzten.

Zentzu batean ez dut ezer berririk esan. Goikoak denak ezagunak dira. Baina oraindik ez da euskal literatura bat diglosia eta zapalkuntza ardatzat hartu dituen, testu euskaldunak eta erdaldunak batera aztertuz. Erdal testuak betiere sarrera edo testuinguru modura aipatzen dira, edo tranpa eginenez. Larramendiren kasua dugu giltzarri. Ia euskaraz idatzi ez bazuen ere, eta bere euskal ekoizpena hiztegien arloan izan zen arren, euskal historia guztiek eskaintzen diote sail zabal bat. Hots, kontrakarrean, inkontzienteki, Larramendi sartzen dute euskal idazle gisa, irizpide filologikoa traizionatuz.

Historia postnazional batek gainera biopolitikoak izan behar du (Foucault), hots, kategoria biopolitikoak aztertu behar ditu. Demadan etsenplu argigarri eta sinple bat. Gaurdaino, feminismoaren kritika ia erabat presentista izan da, hots, *idatzi duten emakumezko* autoreen azterketa, analisi testual filologikoa izan da. Hala, feminismoak ia eskusiboki egungo emakumezko idazleak aztertu ditu, lehenaldira jo ahala are emakume idazle gutxiagoren berri baitugu. Azterketa hau oso da garrantzitsua, jakina, baina azterketa honetan, azken batean, kritika feministak filologiaren menpe segitzen du.

Ahozko literaturari buruzko ikerketa bat aparte (Sareinak), generoa eta sexualitatea nola eratzen diren mendeetan barna, euskal kritika feministak ez du aztertu. Hots, XVI. mendera arte emakumezko «bertsolariak» baditugula argi dago. Alabaina, XVI. mendetik aurrera desagertu egiten dira, eta alde horretatik XVI. mendetik XIX. mendera doan tarteari euskaraz ere, galizieraz bezala, «os seculos oscuros» deitu beharko genioke. Izan ere, ez da inoiz loturarik egin emakumezko euskal bertsolarien desagertuaren eta eliteko klaseek euskara abandonatzeko egiten duten aukera politiko, historikoaren artean.

Are gehiago, XVI. mendetik aurrera apologismoak euskara, hain zuzen, «emakume» gisa aurkeztuko du, amandre kutun baina zahar modura, Baltasar Etxaberekin hasita (*Discursos de la antigüedad*).⁷ Era berean eta garai horretan, 1610eko sorginen aurkako inkisizioaren azken auto ezagunak kontuan harturik, euskara-emakume erlazioa ez da perspektiba feminista batetik zehazki aztertu. Hots, historikoki klase hegemonikoek euskara subalterniza-

⁷ Hemen afektibitate/afektuen azterketa bat behar dugu.

tu ahala, feminizatu ere egiten dute. Feminizazio honek XIX. mendera arte iraungo du, Mogel eta Xahorekin hasita, euskal patriarka berriak orduan hasiko baitira sortzen, hots, Peru Abarkak, Aitorrak, eta mende amaieran Joanesak. XIX. mendean euskarak berriro ere maskulinizazio berri bat pairatzen du eta fenomeno honek arrazoi ideologiko desberdinei erantzuten die.

Honi guztiari buruz, nik dakidala, oso gutxi idatzi da eta ez da inoiz literatur historiaren ardatz bihurtu; hau da, feminismoak eta, oro har, edozein kritika biopolitikoak filologia nazionalistaren menpe iraun du. Bada garaia feminismoak eta kritika kulturantzak nazionalismoaren espetxe filologikotik atera, eta zentraltasun postnazional bat izan dezan euskal literaturaren historia pentsatzerakoan, ez bakarrik XX. eta XXI. mendeetan, baizik eta historia osoan zehar.

Historia postnazionalista batek ere mendeen eraketa fetitxista-filologikoari uko egin behar dio, hots, mendeek halako botere esplikatzailerik magiko bat dutela onartu du filologia nazionalistak. Mendeen eraketa, batez ere beste irizpide politiko eta historikoagoen eza edo jakineza mozorrotzeko mobilizatu den egitura fetitxea da. Izan ere, azken batean, mendeen eraketa filologikoak onartzen du badela «euskal izpiritu nazional bat» ahistorikoki jaio eta hedatzen dena, eta, beraz, mendez mende haziz eta hedatuz doana, gatazkarik gabe, betiere mendez mendeko jarraitutasun nazionalista-teleologiko arazo gabea.

Errenazimentua, barrokoa, erromantizismoa eta antzeko kategoriak mobilizatu behar dira, baina berriro ere diot, ez jaugin fetitxista filologiko batek bultzatuta. Barrokoa ez da garai kultural bat estetikoki esplikatu daitekeena eta, beraz, ezaugarri testual berezi batzuk dituen (hots, testualak, filologiak azter ditzakeena). Barrokoa hasteko eta bukatzeko kultura eta politika espektakular bat da, masa kultura baita, eta beraz espektakuluaren bidez masak kontrolatu nahi dituen. Hor, berriro ere testuak ezin dira objektu gisa ulertu, baizik eta performantzia baten espazio moduan, non eliteek eta klase subalternoek talka egiten duten. Axularren testua bera ere ez zen batez ere irakurria, baizik eta «entzuna», hots, performantzia zen, eta masa desberdinen kontrol eta eraketa biopolitikorako teknologia subjektibo gisa egituratzen zen. Masen subjektu-tasuna zen azken batean auzitan zegoena.

Era berean, eta barrokoa hizpide dudanez, mugimendu eta teknologia kultural horiek inperialismoarekin loturik datoz. Maravallek onartzen duen gisan, barrokoa, inperialismo hispanikoaren hedapenaren gauzatze kulturala da. Geroago nazio protestanteek barrokoa berreskuratu eta beren interesen arabera hedatuko badute ere, erreferentzia inperialismo espainiar edo hispanikoa da.

Beraz, euskal literatur historia postnazional bat ezin da mendeka eratu, baizik eta *Europako eta Ameriketako inperialismoen talkan kokatzen den historia bat bezala esplikatu behar da*, eta beraz inperialismo horiek beharko genituzke ardatz historiko nagusi. Euskal literatura, bi literaturen talka diglosiko modura ulertuta, ez da mendez mende hedatzen eta hobetzen, eredu klasikoak euskalkika sendotuz, baizik eta inperialismo horien hedapen eta krisiekiko erantzun eta erreakzio gisa egituratzen da, XV. mendetik XX. mendera arte.

Inperialismo hauen egituratze koloniala, era berean, kontuan hartu behar da. Ez da kasualitatea, Baltasar Etxabek Mexikon idazten badu edota euskal Ilustrazioaren hasiera eta iturri ekonomikoa Caracasen badago (Real Compañía Guipuzcoana de Caracas), eta Tolosan (Frantzia) jesuiten eskola, nora euskal aristokrazia ilustratuak beren semeak bidaltzen zituen. Hots, inperialismo espainiar, frantses eta ingelesak, beren egituraketa koloniala dela medio, atlantikoak dira. Hala, euskal subjektu politiko desberdinek egituraketa kolonial eta atlantiko honi erantzuten diote. Beraz, *El borracho burladon*, azkenean eliteek ere euskaraz hitz egiten hasten diren momentu bakarrean, ez da kasualitatea saltzaile euskaldunak atlantikoko produktuak aipatzea: tabakoa eta Holandako ehunak. Momentu horretan argi azaltzen dena da, euskal literatura ilustratuaren egituraketa atlantikoa baita. Era berean, ezin dugu euskal literatura ulertu Katalina Erausoren biografia edota Lope de Agirrek Felipe II.ari bidalitako eskutitzak kontuan hartu gabe. Orobat, euskal Ilustrazioak Caracasen eta oro har Venezuelen gertatzen diren independentzia prozesuetan duen eragin ezkor baina funtsezkoa aztertu behar da, eta euskal literaturaren izaera atlantikoaren ondorio gisa azaldu.

Euskal literaturaren historiak, beraz, ezin du kontinental izan, transozeanikoa (eta batez ere atlantikoa) izan behar du (Gilroy). Era berean, Domingo Agirrerren kostunbrismoak beste tankera bat hartzen du, aurretik Truebak

eta Lotik egiten duten lan koloniala (barne koloniala) kontuan hartzen bada eta turismoaren, kolonialismoaren eta orientalismoaren erlazioa ulertzen bada (euskaldunak salbaia postkarlista baketsu gisa, zeinak burgesia madrildar, paristar eta londrestarrak gozatuko dituen turismoaren bidez). Orobat, Agirrerekin batera, Etxeitaren jira Filipinetatik zehar ezinbestekoa da, haren hasierako idazlanak Filipinetan gazteleraz, baina 1898ko Desastrea eta gero euskaraz idatzi zituela ulertzeko (Gabilondo 2010). Halaber, Xahoren imajinazioa, bere maisu Nodier dela medio, orientalista da, eta Euskal Herriarekiko bere jarrera ere orientalista eta koloniala da (*Voyage en Navarre* testu kolonial bat da, bidaia testu itxuran). Abadiak XIX. mendean Etiopia-Abisiniara egiten dituen bidaiak ezin dira inperialismo frantses eta britainiarraren testuingururik gabe ulertu. Eta beraz, handik itzulita eta Niloren iturriak topatu ez zituela onartzearen ondorio postkolonialak kontuan hartu gabe, ezin da ulertu hark euskal literatura modernoari eman zion hasiera Lore Jokoetan. Horiek prozesu kolonialak dira.

Beraz, mendeen banaketa eta egituraketa fetitxista-nazionalista-filologikoa alde batera utzita, inperialismo europar eta amerikarraren historiaren arabera berregituratu behar dugu euskal literaturaren historia postnazionala.

Azkenik, eta nazionalismoak ezartzen duen kontinentalismoa dela medio, Ameriketako diasporako literatura gehienak (batez ere gazteleraz eta ingelesez idatziak) ez ditugu inoiz euskal literatura filologiko eta nazionalista batean barneratuko. Beraz, kontinentalismo europarra alde batera uzteko irtenbide bakarra historia postnazional bat da, hain zuzen diaspora eta erbestea kontuan hartuko dituen. Sarrionaindiaren geografia kubatarra ez da inoiz kontuan hartzen bere lana aztertzeke. Era berean, Paul Laxalt eta batez ere bere *Sweet Promised Land* betiere linbo diasporikoan lagatzen da, nahiz eta «alegoria nazional»en azterketa kontuan hartzen bada, sasoian Txillardegik, Oteizak eta Arestik idatzi zituztenetatik gertu dagoen, eta azken hauen gainean argi berria jaurtitzen duen.

David Harvey-k aspaldi neoliberalismoari eta globalizazioari buruzko liburu erabakigarrienetako bat atera bazuen ere, oraindik Euskal Herrian postmodernitatea (alde eta kontra) da erreferentzia zaharkitua. Orokorki-ago, egun postmarxismoaren eskutik (Zizek, Hardt eta Negri, Badiou, Ran-

ciere), postkolonialismoaren eta ikerketa dekolonial eta subalternoen ondorioz, «world literature»n gaineko eztabaidei eskerrak, psikoanalisiaren (trauma/Real, jouissance) eta afektibitatearen (Sedgwick; Deleuze eta Guattari) bidetik, literatur historiaren diziplina errotik aldatzen ari da. Alabaina, euskal literaturan kritika eta korronte horiek oso isla txikia izan dute.

Helburua ez da, era elitistan, korronte eta kritika horiek «inportatu» eta, gero hemen, euskal literaturan aplikatzea, *demier cri*-an, *a la última* gaudela adierazteko. Hori, berriz diot, jira elitista-inperialista bat da, horretarako elite oso berezi batek baitu kapital kulturala. Helburua kritika eta korronte horiek hemen eztabaidatzea da, statu quo instituzionala erabat iraultzea. Era berean, korronte horiei ere kritika euskaldun bat itzuli behar zaie, ikuspuntu euskaldun batek eztabaida horiei zer ekarpen berri eta kritiko egin diezaiekeen azaltzeko; bestela, berriro ere koebaltasuna ukatzen zaion objektu bihurtuko genuke euskal literatur historia, inperialismo epistemologiko iparramerikarra indartuz.

Hain zuzen, aurten, euskal literaturen historia postnazional baten lehen proiektua argitaratuko dut ingelesez: *Before Babel: A History of Basque Literatures*. Liburu hau dohain egongo da nire web orrian (www.joseba.net/books.htm) eta salgai paperezko bertsioa amazon.com-en eta agian hemen go liburu-dendaren batean ere. Dohain ezarri dut, hain zuzen azpimarratzeko ez dela proiektu amaitua: abiapuntu bat baino ez da, aurrez azaldu ditudan arazo guztiak birpentsatzeko eta euskal literaturan aztertzeke. Web orriak aukera ematen du irakurleek beren iritziak bertan utz ditzaten, liburuaren orrialde bakoitzean. Hala, eta guztion artean (irakurleak eta neroni) proiektua hobetzeko eta hedatzeko plataforma bihurtuko da liburu. Urtero edota agian bi urtetik behin, liburu hedatu eta berrargitaratuko dut, irakurleen iruzkinak eta nire ikerketa berriak bateratuz. Hala, espero dut, beste hogeitaz urteren buruan, azkenean egiazki postnazionala izango den literatur historia bat idaztea, ordurako liburuki bat baino gehiago izango bada ere.

Bibliografia

ALDEKOA, Iñaki. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein, 2004.

———, «Bernard Etxepare: «Doctrina Christiana» y poesía amatoria». *ASJU* 44.2 (2010): 1-40.

APALATEGI, Ur. *Ramon Saizarbitoria. L'autre écrivain basque*. Paris: L'Harmattan, 2013.

AXULAR. *Gero*. Bilbo: Euskaltzaindia, d.g.

AZURMENDI, Joxe. *Volksgeist. Herri gogoa*. Donostia: Elkar, 2008.

BADIOU, Alain and Bruno BOSTEELS. *Theory of the Subject*. New York: Continuum, 2009.

BARTHES, *Writing Degree Zero*. New York: Hill and Wang, 1968.

BIJUESCA, Josu. «Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: Naissance de l'écrivain?» *Euskera* 55 (2012): 877-941.

———, «Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren "Vuestra Merced"-en aitzakiaz.» *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* 25 (2010): 7-40.

BLANCO, Aguinaga, Carlos et al. *Historia social de la literatura española*. Madrid: Akal, 2000.

BOURDIEU, Pierre. *The Field of Cultural Production: Essays On Art and Literature*. Cambridge: Polity Press in association with Blackwell Pub., 1995.

CASENAVE, Jon. *Euskal literaturaren historiaren historia*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2012.

CESAR, Dominguez. «Genres as Sites of Intercultural Encounters: New Perspectives for a Comparative Genre Theory.» *Cahiers de 'Echinox Journal* 16 (2009): 51-60.

CHAHO, Augustin. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques*, Bayonne: L. P. Lespés, 1865.

DELEUZE, GILLES eta Félix GUATTARI, *A Thousand Plateaus: Capitalism and Schizophrenia*. Minneapolis and London: University of Minnesota Press, 1987.

ERAUSO, Catalina. *Historia de la monja alférez*. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1986.

ETXABE, Baltasar. Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra bascongada. Mexiko: Pedro José de Rayón, 1607.

FABIAN, Johannes. Time and the Other: How Anthropology Makes Its Object. New York: Columbia University Press, 2002.

FICHTE, J. G. *Addresses to the German Nation*. New York: Harper, 1968.

FOUCAULT, Michel. *The History of Sexuality. I. An Introduction*. New York: Pantheon Books, 1978.

GABILONDO, Joseba. «Spanish Nationalist Excess: A Decolonial and Postnational Critique of Iberian Studies.» *Prosopopeya: revista de crítica contemporánea*, 2013. (argitaratzear)

———, «Galdós, Etxeita, Rizal – Madrid, Mundaka, Manila: On Colonial Disavowal and (Post)Imperial Articulations of the Hispanic Pacific-Atlantic.» 452F: *Revista de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada* 9 (2013): 13-43.

———, *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: EHU-ko Argitalpen Zerbitzuak, 2006.

GILROY, Paul. *The Black Atlantic: Modernity and Double Consciousness*. Cambridge: Harvard University Press, 1993.

GLISSANT, Edouard. *Caribbean Discourse: Selected Essays*. Charlottesville, VA: University of Virginia Press, 1992.

GONZÁLEZ –MILLÁN, Xoán. *Resistencia Cultural e Diferencia Historica*. L.g.: Sotelo Blanco Edicions, 2001.

———, «O criterio filoloxico e a configuracion dunha literatura nacional: achegas a un novo marco de reflexion. *Cadernos de Lingua* 17 (1998): 5-24.

HARDT, Michael eta Antonio NEGRI. *Empire*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 2000.

HARVEY, David. *A Brief History of Neoliberalism*. New York: Oxford University Press, 2005.

HOLLIER, Dennis, ed. *A New History of French Literature*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1989.

KORTAZAR, Jon. *Euskal literatura eta diglosia*. Utriusque Vasconiae, 2002.

- LAXALT, Robert. *Sweet Promised Land*. Reno: Nevada University Press, 1997.
- LHANDE, Pierre. *Le Pays Basque à vol d'oiseau*. Paris: Beauchesne, 1925.
- MARAVALL, José Antonio. *Culture of the Baroque: Analysis of a Historical Structure*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1986.
- MICHEL, Francisque. *Le Pays basque*. Paris: Firmin Didot Freres, 1857.
- MITXELENA, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Donosita: Erein, 1988.
- MUNIBE, Xabier. *Gabonsariak. El borracho burlado*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1991.
- OLAZIREGI, Marijose. *Basque Literary History*. Reno: Center for Basque Studies, 2013.
- ORIXE. *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*. <http://klasikoak.armiarma.com>. 2014-2-14.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste. *Precis D'histoire Litteraire Basque, 1545-1950: Cinq Siecles De Litterature En Euskara*. L.g.: Izpegi, 1996.
- ORTEGA Y GASSET, José. «En torno a Galileo». *Obras completas Vol V*. Madril: Revista de Occidente 1951. 371-507.
- RANCIERE, Jacques. *Dissensus: On Politics and Aesthetics*. New York: Bloomsbury Academic, 2010.
- REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS. *Ensayo de Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais. Año de 1766. Dedicado al Rey N. Señor*. Vitoria: Tomás Robles, 1768.
- RETOLAZA, Iratxe. «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herri-koitasun kontzeptuez zenbait gogoeta», *Euskera*, 55 (2010) 953-976.
- RICO, Francisco. *Historia y crítica de la literatura española*. Barcelona: Critica, 1980-1984.
- SARASOLA, Ibon. *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal, 1976.
- SAREINAK. «Milia balitz lamia.... Lesbianismoa eta euskal literatura.» *Desira desordenatuak*. Ibon Egaña, ed. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2012. 87-154.
- SCHLEGEL, Frederick. *History of Ancient and Modern Literature*. Anne Arbor: University of Michigan Library, 2009.

SCHLEGEL, Wilhelm. *Lectures on Dramatic Art and Literature*. L.g. Ulan Press, 2012.

SEDGWICK, E. Kosofsky. S. *Touching Feeling: Affect, Pedagogy, Performativity*. Durham: Duke University Press, 2003.

URKIZU, Patricio, ed. *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED, 2000.

ZIZEK, Slavoj. *Violence: Six Sideways Reflections*. New York: Picador, 2008.